

materialismo historikoa

03. Formakuntzako hirugarren blokea



ernaigazte.cc

2015ko uda

Erre ez zituzten sorginen
bilobak garelako. Egunero da
martxoaren 3a. Egunero gara
matxinoak.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/deed.eu>

Materialismo historikoa marxismoaren oinarritzko teoretako bat da. Guztiok entzun dugu zerbait baina sakonki aztertu ezean dogmetan baino ez gara eroriko. Eta hori, edozein mugimendu iraultzailerentzat egon daitekeen akatsik larriena da. Dogmatismoa garatzen ez doazen ideia multzoa da eta beraz, hobetu ezin daitekeena.

Guk errealitatea ulertu nahi dugu, hau aldatzeko. Eta horretarako beharrezkoak ditugu garatzen eta hobetzen doazen teoriak.

Marxismoa beraz, teoria kritiko eta iraultzailea izatean etengabeko garapenean aurkitzen da, etengabeko hobekuntzan. Guri dagokigu, militante politikooi, marxismoa hobetzea eta honi ekarpenak egitea. Azken finean, ikusi dugun bezala, marxismoa ez da akademiatik, intelektualismotik, egiten den teoria bat: militantziaz egiten dena baizik. Mundua eraldatzeko etengabeko saiakeran gaudenok, garatzen dugun errealitatea interpretatzeko moduari balio teorikoa eskaini behar diogu beraz.

Marxismoa maiz, dogmakerietatik erabilia izan da. Baina horren errua marxismoari botatzea ez da bidezkoa. Feminismoekin duen harremana horren lekuko. Hainbat marxista misogino amorratuak izateak ez dio marxismoari bere gaitasun iraultzailerik kenduko. Guretzat guztiz bat datoz teoria marxista eta feministak, eta elkar aberasten dira. Bien arteko batasuna bilatzen segituko dugu.

Ez dugu beraz marxismoaren manual bat aurkituko hemen. Horretarako badago edozein lekutan nahi adina material eskuragarri. Hemen marxismoaren bidez eginiko hiru lan txiki topatuko ditugu. Hiru zatiak modu independentean irakur ditzakegu, baina ez izan alperra eta eman aukera hiruei.

Lehenik Kapitalismoaren bilakaera ikusiko dugu. Esan bezala, marxismotik ikusten saiatuko gara, eta beraz, modu dialektikoan ulertuta, historiaurrearaino joko dugu. Saiatu gara ahalik eta azkar eta errazena egiten, baina baliteke momentu batzuetan astuna suertatzea. Hala balitz, saltatu hurrengo kapitulura baina ez utzi liburuxka lantzeari. Iraultzaile on bezala, erronka guztiei egin behar diegu eta aurre. Kapitulu bakoitzaren amaieran erabili dugun bibliografia duzu, bai eta hainbat galdera modu kolektiboan landu ahal izateko.

Bigarrenik, Euskal Langile Herriaren historia proposamen bat aurkezten dugu, "Resumen y propuesta de historia marxista vasca" Iñaki Gil de San Vicenteren lanetik abiatuta. Hemen Euskal Herriaren historia kontatzen dugu, baina zapalduon ikuspegitik. Zapaltzaileen istorioetat kokoteraino gaudelako. Zati honen amaieran ere bibliografia interesgarri bat duzu, eta baita formazio ariketa bat ere.

Azkenik, ekonomia politikora sarrera bat aurkituko duzu. Ekonomia zer den ulertzeko marxismo eta feminismoaren kategoriak erabiltzen saiatu gara. Baliteke irakurgai zaila iruditzea, baina hainbat kontzeptu argi edukitzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu kapitalismo-patriarkarraz hitz egin ahal izateko.

Espero dugu lagungarria izatea liburuxka hau. Sistema ulertu behar dugu, sistema garaitzeko. Kapitalismoa ez da bakarrik eroriko, bultzada txiki bat beharko du. Euskal gazteriak, euskal langile herriak, autogestiotik egingo dugun aldebakartasuneko bidean, bultzada horretan lagundu behar dugu, Euskal Herria Sozialista-Feminista eraikitzeko. Mundu aske bat eraikitzeko.

Badugu bidea, ekin diezaiogun!

AURKIBIDEA:

1.) MATERIALISMO HISTORIKOA

0. SARRERA

1. KULTURAREN ESTADIO AURRE HISTORIKOAK

Basakeria / Barbarietik zibilizaziora / Estatuaren sorrera

2. FEUDALISMOA

Feudalismo garaiko ekonomia / Estatu feudala / Feudalismo garaiko hiriak / Klase borroka feudalismoan / Estatu feudal zentralizatua

3. KAPITALISMOA ETA IRAULTZA BURGESA

Gizarte feudalean kapitalismoaren garapena / Jatorrizko Metatzea eta aurkikuntza geografikoak / Iraultza industrialak / Burgesiaren garapena / Kapitalaren metaketa, Zaintza lanak eta Soldaten Patriarkatua / Patriarkatuaren eraberritzea / Kapitalismoa eta bere ezaugarri konstanteak

4. IRAULTZA SOZIALISTEN MENDEA

MARXISMOAREN SORRERA: Sozialismo utopikotik, sozialismo zientifikora / Inperialismoa kapitalismoaren fase goren
IRAULTZA SOZIALISTAK: Errusiar Iraultza / Txinako Iraultza / Cubako Iraultza / Askapen Mugimendu anticolonialistak

5. BERREGITURAKETA KAPITALISTAK

Keynesianismoa eta Ongizate-estatuak / NEOLIBERALISMOA / Kapitalismoa eta Askatasuna / Neoliberalismoaren sorrera / Neoliberalismoaren kontraesanak / Sobiet Batasunaren erorketa, munduaren amaiera / Kapitalismoa Krisia da / Egungo egoera

2) EUSKAL LANGILE HERRIAREN HISTORIA BAT

Feudalismoa eta sorgin ehizak / Matxinadak / Estatu-nazioen sorrera / Karlistadak / Kapitalismoaren hasiera Euskal Herrian / II. Errepublika / Frankismo hasiera / ETA: abertzaletasun iraultzailearen sorrera / Langile Frontea / LABen sorrera / Martxoaren 3 / Desindustrializazio prozesua / Ongizate Estatuak / Azken finantza krisia

3.) EKONOMIA POLITIKORAKO SARRERA (OINARRIZKO KONTZEPTUAK)

Ondasun materialen ekoizpena, gizarte bizimoduaren oinarria / Zer da merkantzia? / Merkantiaren izaera bikoitza / Merkantiaren truke moduak / Zer da lana? / Lan abstraktua eta Lan konkretuaren arteko ezberdintasuna / Lan prozesuan parte hartzen duten elementu nagusiak / Zer da plusbalioa? / Zer dira ekoizpen harremanak? / Ekoizpen bitartekariaren jabetza pribatua / Klase Sozialak

1.

MATERIALISMO HISTORIKOA

0. **SÄRRERA**

Badakigu, soberan jakin ere, kapitalismoa ez dela “egon daitekeen mundurik hoberena”. Baina batzuetan badirudi ez dela posible bestelako mundurik. Beti izan dela berdina, aberatsak eta txiroak, gizon eta emakumeak... betidanik eta betirako egongo direla hor, aldaezin.

Zorionez, errealitatea askoz ere aberatsagoa da ideologia burgesa baino, eta marxismotik ikasi dugu etengabeko eraldaketan dagoela jendarte.

Marxismoaren edo teoria materialistaren arabera, historiako aldagai nagusia, azken finean, berehalako bizitzaren produkzio eta erreproduzioa da. Bi modutakoa izanik hau: batetik, existentziarako bitartekoen ekoizpena: jakiena, arroparena, etxebizitzarena eta hau lortzeko beharrezkoak diren tresnena. Bestetik, gizakiaren ekoizpena bera, espeziearen jarraipena, alegia. Bi ekoizpen hauek baldintzatzen dute giza talde baten ordena soziala: hau da, lanaren garapenak, alde batetik, eta familiaren garapenak, bestetik. **Gaur egun lan produktiboa eta erreproduktiboa bezala ezagutzen da bereizketa hau.**

Teoria honen arabera, **kondizio material eta produktiboak (hau da, egiturak) antolaketa soziala, politikoa eta kultura (gainegitura) guztiz baldintzatzen dute.** Egitura eta gainegituraren arteko harremanaz, honela mintzo da Marx: *“euren bizitzaren produkzio sozialean, pertsonak euren borondatearen independenteak eta beharrezkoak diren harremanak garatzen dituzte, harreman produktiboak, indar produktibo materialen garapen jakin bati dagozkionak. Produkzio harreman hauen baturari gizartearen egitura ekonomikoa deritzo, gainegitura juridiko eta politikoa eraikitzen den oinarri erreala hain zuzen, eta kontzientzia sozial jakin batzuk dagozkionak. Bizitza materialaren produkzio sozialak, bizitza sozialaren, politikoaren, eta oro har, espiritualaren prozesua baldintzatzen du. **Ez da pertsonaren kontzientzia bere izatea baldintzatzen duena, baizik, kontrari, izate soziala da bere kontzientzia determinatzen duena.**”*(contribución a la crítica de la economía política” Marx).

Horrela ba, gizartearen egitura ekonomikoak gizarte horren gainegituraren izaera politiko eta ideologikoak baldintzatzen du. Beraz, edozein arazo bere testuinguru ekonomikoan kokatu behar da: heteroaraua, multikulturalismoa, ekologia, erlijioa... ez da berdin ematen ekoizpen harreman ezberdinak dauden herrietan. **Klase izaerak, kontzientzia politikoa baldintzatzen duela esango dugu beraz.**

Jendarteak etengabeko garapenean egon dira beti. Ez ginen tximutik diruaren diktadurara pasa gauek egunera. Milaka urteko ibilbidean jendarte mota ezberdinak garatzen joan dira. Marxismoarentzat, aldaketako arrazoi nagusia beti klase antagonikoen arteko borroka izan da. **“Klase borroka da historiaren motorra”** esaldi famatu horrek, ordea zer demontre esan nahi du?

Hurrengo orrietan hau azaltzen saiatuko gara, nola gizakiaren sorreratik, kapitalismoaren azken faseraino egon den garapena, ez den izan pertsonai batzuen ideia eta lanen ondorio (Cesar, Napoleon, Obama...) baizik eta botere ekonomiko zein politikoen eta zapalduen arteko talken ondorio, klase borrokarena

hain zuzen.

Marxismoaren irakurketa klasikoak erabiliko ditugu (Marx, Engels, Lenin, Harnecker...) historiaren garapen hau kokatzen saiatzeko, eta oro har, aipatu behar ditugu bi arazo nagusi: batetik eurozentrismoa eta bestetik ekonomia feministaren ekarpenak behar bezala ez txertatzea momentu batzuetan.

Azkenik, klase borrokaren fase bezala, XX. mendeko iraultza sozialistak ere kokatu ditugu, nahiz eta hauetako askok egun ez diguten Euskal Herrirako eredu bezala balio, bai inspirazio iturri bezala ziurrenik. Kapitalismoa kolokan jartzea lortu zuten, eta fase historiko garrantzitsu bat izan zen, etorriko diren iraultza berri guztiak bururaino eramango baditugu, mundu osoan egindako iraultza sozialista guztiek egindako ekarpenengatik izango da eta.

1.

***KULTURAREN
ESTADIO AURRE
HISTORIKOAK***

BASAKERIA

Gizakia oihanetan bizi zen hasiera batean, oraindik zuhaitz eta sabanaren artean. Zuhaitzetatik sabanara emigratzean, bi hanketan ibiltzen hasiko da, eta honek eskuak libre edukitzea lortu zuenez, eskuak garatu ziren eta fruitu, intxaur eta sustraiez elikatzen omen zen. Txinpantzetik duela 5 milioi urte hasi ginen bereizten eta homo sapiensa duela 200.000 urte agertu zen, gutxi gora behera.

Gutxinaka arrainen elikadura agertuko da, eta honela ibaietatik ibilera eta honekin batera, suaren eta harrizko gailuen erabilerarekin, natura eraldatzeari ekingo zaio. Eskuen eraldaketak tresnak sortzeko balioko du eta tresnen sorrerak garuna transformatzeko, pentsamendu abstraktua sortuaz. Ibai-ertzetatik bidaiatzeari ekingo zaio, eta egoera berriei aurre egiten ikasi ere, hala nola, ehizaren sorrera, pentsamendu abstraktu izugarrian eskatuko duena, estrategia eta planifikazioak barne.

Eltzegintza, edo buztzingintzaren sorrera agertuko da, ehiza ostean. Fase honetatik aurrera, bereizketa ematen omen da kontinenteen artean. Honela, Europa-Asia-Afrikan etxerako abereak hezten hasten dira, eta ez ordea, Amerikan eta nekazaritza ere modu ezberdinean garatuko da bi eremuotan. Beraz, hemendik aurrera bi garapen mota izango dute bi kontinenteek.

Mendebaldeko kontinentean (Amerikan hain zuzen) artoaren nekazaritza intentsiboa garatuko da, beste hainbat barazki edo frutaren lanketarekin batera. Metal batzuen lanketa ere ageri da, baina ez burdinarena.

Ekialdeko kontinentean aldiz, animalien etxekotzea emango da, esnea, haragia eta beste lehengaiak lortuaz. Gainera, zereala lantzen hasiko da, nahiz eta animaliak elikatzeko izan hasiera batean.

Azkenik, zibilizazioen sorrera eman aurretik, burdinaren galdaketa hasiko da, eta honekin batera, nekazaritza propioki deitua, eta beraz, sedentarisinoa, duela 10.000 bat urte kontsideratzen da eman zela. Beste lanbideak sortzeko aukera beraz hemen emango litzateke, baita besteak beste idazkera.

Baina nola garatu zen fase honetatik zibilizaziorako jauzia? Arrazoi materialista batetik azaltzen ahalegindu dira pentsalari asko Basakeriatik Zibilizaziorako aldaketa, ekoizpen baldintzek estatuaren sorreran duten eragina azalduz, besteak beste.

BASAKERIATIK ZIBILIZAZIORA

Basakeria delakoaren azken etapan izan zen garapen ekonomiko eta teknologikoak jentil antolakuntza ezabatu eta zibilizaziorako oinarriak jarri zituen.

Jentil antolakuntza, familia eta familia sareen antolakuntza eredu bat zen, baldintza sozialei erantzuten ziena osoki. Izan ere, tribuko kide guztiek zituzten eskubide

eta betebeharrak berdinak edo antzekoak. Esan daiteke, ez zegoela bere horretan eskubide eta betebeharren arteko desberdintasun gehiegirik. Lanaren banaketa sexuaren arabera egiten zen: gizonak ehiza, arrantza, guda eta lehengaiak. Emakumeak, etxea, janaria, arropak eta tresnak. Bakoitza bere instrumentuen jabe zen: gizona armena, emakumea etxekoena. **Hemen lanaren o.banaketa sozial handiaz hitz egin dezakegu, beste banaketa guztien oinarri izango den sexu-genero araberrako banaketa.** (suposatzen da, fase honetan ez zegoela botere harreman antagonikorik: dena egiten zela denentzat. Hipotesi hau onartu beharko genuke, zapalkuntza betikoa ez dela onartzeko).

Asian alta, etapa honetan hezi zitezkeen animaliak topatu zituztenez, abeltzain tribuak sortu ziren, **lanaren lehen banaketa handiaz hitz egiten da** (sexu-generokoaz gain). Tribuok besteei gailendu zitzaizkien, ez soilik haragia eta esneagatik, baita ere larruak, hileak, hariak... zituztelako. Honek guztiak produktuen truke erregularra baimendu zuen lehen aldiz historian. Trukea hasieran komunitateetako buruzagiek bideratzen zuten, baina abereen jabetza pribatizatzen zioan heinean, norbanakoak hasi ziren trukea euren kabuz egiten. **Garapen hau da beraz, antolaketa sozial honen gainbeherarako arrazoi nagusia.**

Garai honetan suposatzen du teoria marxistak pasatzen direla abereak gizonaren jabetza pribatua izatera. Sexuen arabera egiten zen lan banaketak, gizona industrian ibiltzera eramane zuen, garaiko industria abeltzaintza zelarik. Norbera bere lanaren fruituen jabe bilakatzean gizona abereen jabe bilakatuko zen. Beraz, **familia barruko lanaren bereizketa izan zen, gizona eta emakumearen jabetzaren banaketarako oinarria.** Familiako bereizketak berdina izaten jarraituko du, baina aldatzen den kanpoko lanaren banaketak, familia barruko harremanak eraldatuko ditu. Emakumeak etxeko lanak egiteak zekarren etxearen gaineko boterea edukitzea, baina kausa beragatik geratzen da, botere gabe. **Gizonaren lan produktiboaren osagarri bihurtuko da ordutik emakumeari esleitzen zaion lan erreproduktiboa.**

*Garai honen gainean eztabaida ugari daude, batez ere korrante feminista ugariren kritiketatik abiatuta. Tesi marxista-feministen arabera, gizonen jabetza pribatua ber egin zuten armen eta indarraren bidez eta txaman eta gisa horietako botere ideologikoen aliantzatik. **Eta honek sortu zuen patriarkatua sistema bezala: Gizonen botere ekonomikoa-ideologikoa eta emakumeon zapalkuntza ekonomikoa-ideologikoa, klase bezala.** Teoria feminista ezberdinek zalantzan jartzen dute ideia hau, zapalkuntza ideologikoa ekonomikoaren lehenagotik zetorrela suposatuz, eta ez batera elkar elikatuz bi zapalkuntzok. Amaiezina den eztabaida honetan, interesatzen zaiguna dena den, klase zapalkuntza eta genero zapalkuntza aldi berean ematen direla onartzea da, **sexuen araberrako lanaren banaketa sozialean oinarritzen direla zapalkuntza oro.***

Burdinaren lanketa izango da basakerian ematen den azken iraultza handia. Ekoizpena biderkatu egiten da kuantitatibo eta kualitatiboki, eta ekoizpen adar berriak sortzen dira, produktu berriak egiteko. **Lanaren bigarren banaketa handia ematen da orain, nekazaritza eta lanbideen artekoa.** Honekin batera, trukerako

ekoizten hasten da, merkataritzarako ekoizpena agertzen delarik lehen aldiz historian, eta honekin batera, komertzioa. Ekoizpenean zuzenean parte hartzen ez duen klase berri bat sortzen da: merkataria. **Lanaren hirugarren bereizketa handia da hau.** Gainera, lehen aldiz, libre eta esklaboei, aberats eta pobreen banaketak gehitzen hasten zaizkio, honek dakartzan botere harremanekin. Izan ere, hemendik aurrera, merkatuaren arabera denez ekoizpena, merkatariek eta aberatsek kontrolatuko dute, besteak beste, diruaren bitartez ekoizpena eta, noski, ekoizpen harremanak, arauak...

Beraz, gizakiak bere sostengurako baino gehiago ekoizten du. Gainera, komunitateetako kideen lan eskerga ere handituko da, lan indar gehiago lortzea beharrezkoa izanik: eta gerrari esker lortuko da. **Hemen jazozen da beraz, lehen aldiz gizartearen banaketa klase ekonomikoen arabera, lehen aldiz esplotatzaile eta esplotatuz hitz egin daiteke.** *“Orduzko kondizio historiko guztiengatik, lanaren lehen banaketa sozial handiak, lanaren produktibitatea handitzean, eta ondorioz aberastasuna, eta ekintza produktiboaren eremua zabaltzean, ezinbestean esklabotza ekarri behar zuen. Lanaren lehen banaketa sozial handitik jaiotzen lehen gizartearen bereizketa handia bi klaseetan: jaunak eta esklaboak, esplotatzaileak eta esplotatuak” (F.Engels)*

Beraz komertzioaren zabaltzearekin, dirua eta lukurreriarekin batera, lurren jabetza eta hipotekarekin batera, aberastasunaren kontzentrazio eta zentralizazioa emango da, klase baten mesedetan, masaren pobrezia kopurua handitzen delarik. Honela, aristokraziak sortzen hasten dira, eta esklaboen kopurua biderkatu egiten da. Antolaketa eredu berri bat ekarri zuen halaberrez honek, klase ezberdinen interes ezberdinen sorrerarekin. Egoera berri honetan, egitura zaharrak ezingo dio beraz, beharrei erantzun, izan ere, kondizio ekonomikoen garapenak, gizaki aske eta esklaboen banaketa ekarriko du, baita aberats eta pobreena. **Honela, hirugarren botere baten beharra dago: Estatua agertzen da.**

ESTATUAREN SORRERA

Estatua, beraz, gizartea garapen maila jakin batetara iristean hartzen duen forma izango da, hau da, gizartearen beraren produktua izango da, eta ez “kanpotik inposaturiko botere bat”. Gizartea bere baitan korapilatu izatearen ondorioz, kontraesan bateraezin batetara heldu eta hau konpondu ezinaren onarpena da estatua beraren sorrera. Beraz, gizartetik sortua da, baina gizartearen gainetik: *“botere hori, gizartetik jaiotzen dena, baina bere gainetik jartzen dena, eta beregandik geroz eta gehiago dibortziatzen dena, da Estatua” (F.Engels)*

Estatuak antolaketa jentilizioaren aurrean, menpekoak, lurralde antolaketaren banaketa bidez banatuko ditu, lehen aldiz funtzio eskumen eta betebeharrak honela antolatzen direlarik, eta ez adibidez, odol-harremanengatik. Bigarren ezaugarri berezko bat, indar publiko baten egituratzea izango da, soldadu edo ejertzito forman, ez dena jada herri armatua. Klase gizarteak dakarren ondorio zuzena da hau, **Atenaseko 90.000 hiritarrek ezingo baituzte bestela 365.000 esklaboak mendean hartu.** Gainera, hiritarrak beraiek ere arrisku bat diren heinean,

polizia baten sorrera agertuko da ere estatu guztietan. Indar guzti hau kudeatu eta posible egiteko, zergen beharra agertuko da. Azkenik, indar publikoaren garapena bermatzeko, baita zergen kudeaketa egiteko, funtzionarioen sorrera agertuko da, gizartearen gaineko organoak bezala.

Estatua aldi berean, klase antagonismoaren gatazkak eta baretze nahiak, sortu dituen eran, **estatu ekonomikoki menderatzaile den klasearen zerbitzura egongo da, honela, ekonomikoki menderatzaile dena, politikoki ere menderatzailea izango da**, egituratik bertatik. Honela, estatu historiko gehienak eskubide eta betebeharrak, gaitasun ekonomikoen arabera banatu dituzte, azken batean jabedunen interesak eta pribilegioak mantentzen direlarik.

Beraz: *“estatu ez da betidanik existitu. Gizarteak egon dira bera gabe konpondu direnak, ez zutela Estatuaren eta bere boterearen nozio txikiena ere izan. Garapen ekonomiko jakin betako fasera heltzean, ezinbestean klase bereizketadun gizartea izanik, zatiketa honek Estatu behar batean bilakatu zuen. Orain, azkartasunez, ekonomiaren garapeneko fase batetara gerturazten ari gara, zeinetan klaseen existentzia beharrezko ez izateaz gain, ekoizpenerako oztopoa baino ez den. Klaseak desagertuko dira bere garaian sortu ziren bezain modu saihestezin batean. Klaseen desagertuarekin Estatu desagertuko da ezinbestean. Gizarteak, ekoizpena modu berrian berrantolatuz, ekoizle berdinaren asoziazio askean oinarriturik, Estatuaren makinaria guztia dagokion lekura botako du: antigoaleko museora, gorua eta brontzezko aizkorarekin batera.” (F.Engels)*

Beraz, zibilizazioa da, gizartearen garapeneko estadioa, zeinetan **lanaren banaketa, hortik eratorritako norbanakoen arteko trukea, eta merkataritza-ekoizpenak, beren garapen osoa lortzen duten eta aurreko gizarte osoan iraultza bat planteatzen den.**

Aurretiko gizarte guztietan ekoizpena esentzialki kolektiboa izan da, eta kontsumo produktuen zuzeneko banaketa batean oinarritu da. Muga guztiak barne, ekoizleek kontrolatzen zuten ekoizpena eta ekoizkina. Baina ekoizpen modu honetan gutxika, lanaren banaketa sartzen joan zen ekoizpen eta kontsumo komunitatean eraginez, eta jabetze indibiduala arau nagusi bilakatu. Trukea nagusitzen doa eta merkatal-ekoizpena nagusitzen da, hau da, **ez kontsumorako ekoizpena, baizik eta trukearako ekoizpena**. Honela ekoizlea eta ekoizkina banatzen dira, eta ekoizleak galtzen du kontrola.

Zibilizazioa hasten den merkatal-ekoizpenerako estadioan, beste faseengandik bereizten da honako arrazoiengatik, batez ere:

- 1) Txanpon metalikoaren agerpena eta honekin batera, diru kapitalarena, interesa eta lukurreria.
- 2) merkataria bitarteko klase bezala.
- 3) Lurraren jabetza pribatua.
- 4) esklaboen lana ekoizpen forma nagusi bezala.

Zibilizazioari dagokion familia eredia monogamia da, gizonaren gainjartzea emakumearekiko, eta familia indibiduala gizartearen unitate ekonomiko bezala.

Gizarte zibilizatuaren kohesioa bermatzen duen indarra Estatua da, *“esentzialki klase zapaldua eta esplotatua erreprimitzeko makinaria”*. Erregimen hau oinarri, gizadiak lortu du bestelako ereduak inoiz amestuko ez luketen garapena izatea. Baina lortu da diru-gosea izanik norbanakoen motor nagusietako bat, pertsona askoren helburu bakar *“aberastasuna, aberastasuna berriz, eta beti aberastasuna”* izan direlarik, baina ez gizartearena, norbanako makur batzuen baizik.

Zibilizazioaren oinarria klase baten zapalketa bada, etengabeko kontraesanetan garatuko da: *“Ekoizpenean garapen bakoitza, aldi berean, atzera pausu bat da klase zapalduarentzat, hau da, gehiengoarentzat”*. Baina horrek ez luke horrela izan behar, eta beste modu batean barneratua izateko, hipokresia konbentzional bat inposatzen du zibilizazioak *“klase zapalduaren esplotazioa klase zapaltzailearengandik egiten da, soilik klase zapalduaren hobe beharrez”*. Hau da, klase zapaltzailearen interesak dira gizartearen interesak. Abstrakzioa egiten da honela, araudi eta erabaki politikoak guztion ordezkapenaren izenean egiten direlarik, gutxi batzuen interesekin identifikatu ezkerro, noski.

Galderak:

- 1) Nola eragin zuten lan banaketek esplotazio eta zapalkuntza berriak sortzeko?
- 2) Familia ereduaren aldaketarako zeintzuk izan ziren arrazoi nagusiak?
- 3) Zein eragin izan zituen familiako aldaketa hauek patriarkatuaren sorrerarekin?
- 4) Estatuaren sorrerak zein ondorio izan zituela uste duzu?
- 5) Kapitulu honetan ikusitakoak gaur egun zein ondorio izan dituela uste duzu?

Bibliografia:

ENGELS, Friederich (1884): *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*. www.marxists.org/espanol/m-e/1880s/origen/el_origen_de_la_familia.pdf

LENIN, Vladimir Illich: (1917) *“Estatua eta Iraultza”* <http://topatu.info/estatua-eta-iraultza-liburua/>

2. **FEUDALISMOA**

ESTATU FEUDALA

Gizarteko sektore ezberdinen arteko hierarkizazio eta dispersio handia izango dira gizarte feudalaren ezaugarri garrantzitsuenak: *“Jaun orok du aldi berean beste jaun bat; zerbitzari orok du zerbitzari bat”*. Jopuek izan ezik, gizarteko sektore hierarkizatu horretako beste denek estatuaren eta lurren gaineko boterea izango dute, hierarkiaren barruan noski. Beraien gainetik daudenei zor dizkieten betebeharren bat ez egiteagatik soilik zuten botere pribilegio horiek galtzeko arriskua. **Jauntxo eta jopuen arteko esplotazio harremanean dago feudalismo garaiko kontraesan printzipala.**

Bestalde, aipatu beharra dago **Estatu feudalaren gizarte ordena mantentzeko Elizak izan zuen garrantzia, zer esanik ez zapalkuntza patriarkalarekin.** Jopuen kontzientzien eta ideologiaren gaineko polizia lana burutzen zuen, klase ezberdintasunen zergatiak arrazoi natural eta dibinoetan oinarritzen dela sinetsarazi arte. Garaiko ezjakintasun intelektualak ideologizazio (manipulazio) prozesu hau areagotu zuen. Nekazarien kontzientzietan birus txikia balitza garatzen hasten zen ideia horrek gizarte oso bat funtziona araztea ahalbidetu baitzuen.

FEUDALISMO GARAICO HIRIAK

Erromatar Inperioaren azken hamarkadetak hirien dekadentzia ekonomikoa eta hiri batzuen desagertzea fisikoan ere eragin zuten, baina **ekoizpen modu feudalaren egonkortzeak eta nekazariak ekoizpenak eragindako soberakinak, zein jauntxo feudalen esku batutako aberastasunak, komertzioaren berragerpena ahalbidetzea lortu zuen.** Hiri feudalak merkantziaren bueltan garatu zirela esan dezakegu: artisau espezializatuak, merkatua, komunikazio harremanetarako leku estrategikoak, merkatarien finkatze-leku bihurtzea lortu zuten hiriek.

Hiria politikoki Estatu feudalaren baitan kokatzen zen, ekoizpen zerga zehatz batzuek ordaindu behar zitzaizkion jauntxo feudal baten boterepean ia beti. Apurka-apurka, gero eta indar ekonomiko handiagoa eskuratzen zuten hiriek; merkataria eta artisauak gremioetan antolatzen hasi ziren eta zenbait estatus juridiko aplikatzea lortu zuten, gutxika domeinu feudallengandik independizatzeko hastea ahalbidetu zutenak.

Gremioek lehengaien erregulazioa, enpresa ezberdinen konpetentziaren arautzea eta jauntxo feudalek eragin zezaketen presio eta esplotazioaren aurka babestea zuten helburu. Organismo hauek horren garrantzitsuak izan ziren ofizio askatasuna desagertzea eragin zuten. Izan ere, artisauak gremioen baimenarekin soilik geratu zitezkeen hirietan eta beratako ekoizpen konpetentzian parte-hartu.

Feudalismo garaiko hiriak hortaz sistema feudala ezegonkortu zuten elementu bat izan ziren, autokontsumoan oinarritzen zen ekonomia itxia kolokan jarri baitzuten komertzioaren bidez. Garaiko biztanleriaren proportzio handia hirietara hurbiltzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka, ekoizpen modu artisauaren eta komertzioaren kulturaren sustatzearen poderioz lan banaketa soziala eta

harreman ekonomiko sozial berriak garatuz.

FEUDALISMO GARAIKO EKONOMIA

Feudalismoan ekoizpen gehiengoak nekazari guneetako abeltzaintza eta nekazaritza esplotazio familiarretan oinarritzen da, autosufizientzia helburu duena. Urtero egiten omen zen zozketa batengatik izan edo herentziaz jasotakoa izan, feudoetako lur-sailak nekazale familia ezberdinen esku zeuden. **Familia hauetako bakoitza ekoizpen agrikola, abeltzaintza eta artisautza unitate bat zen;** honek, hiru sektore horietako lan banaketa desagerrarazi zuen garai batez.

Familia bakoitzak ekoizten zuenaren **kantitate konkretu bat** (garaiko legeek eta arauak zehaztuta) **jauntxo feudalaren esku geratzen ziren**, bere lurretan bizi ahal izateko ordaindu beharreko zergak balira bezala. Gauza bera gertatzen zen abereekin edo produktu artisauekin. Jauntxoari egin beharreko eskaintza hauek osatzen zuten garaiko errenta feudala.

Nekazariak gainera beraien lurak lantzeaz gain jauntxoaren lur-sail zuzenak zirenak lantzerantz behartuta zeuden, bertan ekoiztutako guztia jauntxo feudalarantz izango zelarik. Hala ere, basoak eta ustiatu gabeko landa eremuak komunalak izaten jarraitzen zuten. Norbaitek hauek erabiltzeko edo ustiatzeko asmoa izanez gero osteraz, jauntxoari ordain sari bat egin beharra zegoen.

Ekoizpen sistema honek aurrerapen kualitatibo bat adierazten du sistema esklabistarekiko, izan ere, **sektore esplotatuak errenta feudala ordain ondoren ekoizpenaren zati bat bere esku geratzen zelako** eta honen jabetza berari zegokiolako (ekoizpen prozesua burutu duen familiaren kontsumorako). Beste ezberdintasun bat soberakinen erabilpenari dagokio. Gizarte feudalean nekazariak beren lan prozesuaren soberakinekin salerosketarako aukera dute, hortaz, zenbat eta lan gehiago egin orduan eta aberastasun gehiago eskuratzeko kontzientzia eta ekonomia garatzen da.

KLASE BORROKA FEUDALISMOAN

Nekazarien eta jauntxo feudalen arteko borroka da gizarte feudalaren kontraesanik oinarritzkoena. Komertzioaren indartzeaz eta diruaren beharraren agerpenaz nekazariak lantzen zituzten lurrengatik ordaintzen ziren zergak handitu egin ziren. **Historian lehen aldiz dirua kobratzen hasi zen orduan eta honek nekazari familien bizi baldintzak izugarri okertu zituen.**

Egoera berri honek feudalismoaren kontrako kontzientzia iraultzailea eragin zuen Europa osoan. Zergen abolizioa, komertzio askatasuna, jauntxoaren pribilegioetan oinarritzen ziren legedien deuseztapena... izan ziren nekazari mugimendu subertsibo horien aldarrikapen nagusiak.

Feudalismoan, nekazari ekoizpenak, familiak eta komunitateak zituen oinarritzko antolakuntza bezala. Nekazari guztiak beraz, komunitatean antolaturik zeuden,

bertan emakumeon papera protagonista zelarrik. Bizitza politiko sozial eta ekonomikoan protagonista zen bezala, nekazari matxinada guztietan protagonista zen ere emakumea. Honek ere errepresio berezia ekarri zuen, sorgin ehizak, hain zuzen.

Nahiz eta mugimendu iraultzaile hauek feudalismoa garaitzea ez zuten lortu izan, mirabetzaren abolizioa eragin zuten.

Bestalde, badira gizartearen baitan garatzean hasiak ziren beste kontraesan sozial batzuk: 1) jauntxo feudalen eta indartzen hasiak ziren hirien arteko gatazka ekonomikoa eta politikoak. 2) gremioen baitan ezartzen ziren mugak zirela eta interes ezberdinen arteko liskarrak. 3) Hiriko komertzioaren gremioen eta merkataritza elkarten artean desadostasunak areagotzen hasi ziren.

ESTATU FEUDAL ZENTRALIZATUA

Erdi Aroaren amaieran (XIV eta XV. mendeetan) sistema feudalaren krisialdi orokortua eman zen Europa osoan. Nekazari eta jauntxo feudalen arteko borroketan bezala, hirien eta nobleziaren arteko gatazkan eta nobleen arteko desadostasun politikoan azaleratu ziren gizartearen kontraesan politiko eta ekonomiko nagusiak. Honek, gizartea kondizio objektibo eta egoera egokian kokatu zuen Estatu feudalaren eraldaketa baterako, izan ere beharrezko zen estatua ekoizpen modu berrietara egokitzea.

Nekazariaren ekoizpena gero eta txikiagoa zen hirietako manufaktorekin alderaturik, artisautzaren ekoizpen gaitasunak talka egin zuen gremioen eskakizunekin... Eta erregimen feudala bere ekoizpen aurrerapen motelagatik, errutina existentzial batengatik eta tradizioaren indar legislatiboagatik ezaugarritzen zenez, aldaketa produktibo eta sozial berriek estatuaren berrartikulazioa eragin zuten.

Feudalismoaren funtzionamendu politikoak oztopo bat suposatzen zuen ekoizpen merkantilaren garapenerako. Jauntxoek beraien nahierara zerga sistema berriak antolatzen zituzten esate baterako, honek komertzioaren funtzionamendua mugatzeaz gain ekoizpen prozesua bera atzeratu eta moteltzen zuen. Hortaz, gizartearen kontraesanez gero eta forma bortitzagoa hartu ahala estatu feudal zentralizatua eratzeko oinarriak finkatu ziren: Estatu honen eraikuntzan monarkia, nobleziaren alderdi bat eta hiriak izan ziren interesatuenak.

Artisautza eta nekazal ekoizpenaren garapenak eta hirietan gauzatzen ari zen lan banaketa sozialak, herrialde bakoitzeko lurralde ezberdinen arteko ekonomia eta komertzio harremanak indartu egin zituen. **Honek *merkatu nazional* eman zien bide, zeinek Estatu zentralizatua gauzatu ahal izateko premisa ekonomikoak ezarri zituen.**

Erregeek koiuntura ekonomiko-politiko berri hau nobleziari pribilegioak kentzeko erabili izan zuten, eta legedi berrien onarpenen bitartez herrialde osoaren soberano izatea lortu zuten: *estatu-nazioei* sorrera emanaz. **Monarkia absolutuen**

izendapenean indartzen hasi ziren estatu-nazio zentralizatu hauek harreman kapitalisten sorrera eta garapena erraztu zituzten. Izan ere, merkatu nazional eta mundial baten egonkortzea, manufakturaren garapena eta aurkikuntza geografiko handiek kapitalismoaren agerpeneko oinarriak ezarri zituzten.

Bestetik, garaiko iraultza zientifiko eta filosofikoek kontraesanak jasanezin egingo dituzte. Feudalismoa izan da mendebaldeko historian aurrerapen teknologiko, industrial eta filosofikoa gutxien garatu den garaia. Gutxi gora behera 10 mende igaro ziren, katolizismotik ihes egiten zuen pentsamendu oro debekatu eta jazartzen zelarik.

Feudalismoaren amaieran, ordea, burgesiaren interesek ideia aurrerakoi ezberdinei bide emango die, zientzia eta filosofia garatuz. Katolizismoaren inguruko kritikak hasiko dira, baina batez ere eliza eta monarkiaren kontrakoak. Hobbesez estatu absolutua aldarrikatuz, Rousseau-k kontratu soziala aldarrikatuko du. Burgesiak beraz, herri sektore zapaldu guztien interesak (ustez) errepresentatzea lortu zuen: aldaketa gertu zegoen.

Jarraian ikusiko dugun bezala, iraultza burgesak etorri ziren. Ordea, ezinbestekoa da jarraitu aurretik bi ohar aipatzea: lehenik, burgesiaren ideia aurrerakoiez ari garenean, zientziaren garapenaz hitz egiten dugu, feudalismo-katolizistaren ondoan izugarritzko aldea suposatuko duenak. Baina argi eduki behar dugu "aurrerapen" honek kalte izugarria suposatu zuela proletarizazio prozesuei, batetik, eta emakumearen zapalkuntzan sakondu zuen, bestetik. Azken finean patriarkatuaren berrikuntzatik etorri zen kapitalismoa, emakumearen esplotazio bikoitzetik alegia. Kontu handia eduki behar dugu beraz, garapen hitz horrekin. Azken finean burgesiaren garaipen iraultzaileak, dominazio eta esklabotza forma berriak sortu zituen langile zein emakumeontzat.

Galderak:

- 1) Erdi-Aroko kontraesan nagusia zein zen? Zergatik?
- 2) Zein garapen egon da esklabotzatik?
- 3) Erdi-Aroari buruz Errege eta gerlarien gudak ikusi ditugu pelikuletan. Baina nola uste duzu zela langile herriaren bizimodua?
- 4) Esaten dute feudalismoan nekazariak lan gutxiago egiten zutela, egun baino. Gainera aipatu dugu diruaren agerpenak okertu egin zituela langileen baldintzak. Ze iritzi duzu bi fenomeno hauen gainean?

Bibliografia:

ENGELS, FRIEDRICH (1850): *La guerra campesina en Alemania*

ENGELS, F.: *El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado*

FEDERICI, SILVIA (2004): *Caliban y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*

KUCZINSKI, JÜRGEN: *Breve historia de la economía*

MARX, KARL (1876): *El Capital*

3.

**KAPITALISMOA
ETA IRAULTZA
BURGESA**

GIZARTE FEUDALEAN KAPITALISMOAREN GARAPENA

Orain arte ikusi duguna errepasatuz, ekoizpen modu kapitalistak gizarte feudalaren esteetan izan zuen bere sorrera, *Erdi Aroko erdi-aldian* hain zuzen ere. Garai honetan nekazaritza ekoizpena inoiz baino handiagoa izan zen Europan, eta ekoizpenaren areagotze honen ondorioz sortutako produktu soberakin kantitate handiak nekazal eremuetan bizi zen biztanleriari hirietara migratzeko aukera ahalbidetu zion. Horrela, **Erdi Aroko “burgoak” eta garatzen hasiak ziren** hiriak komertziorako leku aberatsak bilakatu ziren.

Gizarte feudaleko jopuetatik, horrela, industrializatzen hasitako guneeetan biziko ziren lehen hiritar libreak agertu ziren: feudalismoaren harreman-sozialetatik ihes egin zuten hiritarrak hauek izan ziren burgesiaren oinarriak garatu zituztenak, noski, gizon zuriez ari garela. Hirigune berri horietan *gremioetan* antolatzen ziren ekoizpen moduak ziren indartsuenak (artisautza batik bat) eta langile kopuru mugatua zuten ekoizpen modu aurre-industrial hauen harreman ekonomiko eta komertzialek ekoizpen askean eta konpetentzian oinarritutako harreman komertzialei atek ireki zizkieten, etorkizuneko kapitalismoaren oinarri izango zirenak.

Noblezia eta oro har lurjabeak ziren garai hartako botere politikoa zutenak, baina garatzen hasi berria zen harreman komertzialek ezberdintasun handiak sortu zituzten klase feudalaren eta burgesaren artean, **aberastasuna burgesen esku utziz**. Honek botere politikoaren legitimitatea zalantzan jartzea lortu zuen. Beraz, beharrezkoa izan zen ekoizpen modu kapitalistaren oinarriak ezarri zituen egitura gremialarekin bukatzea, eta gremioek ezartzen zituzten mugen ordez lantegi kapitalisten funtzionamendu eskariei bide ematea.

Lantegi kapitalista hauek uko egiten zioten gremioek ezartzen zituzten ekoizpen moduen mugei (langile kopuru mugatuari, ekoizpen kantitate mugatuari, salerosketako baimen mugatuei...), horrela, ekoizpen prozesuan parte hartzen zutenen izaera eraldaketa eragin zen: merkataria ekoizle bilakatu eta ekoizlea merkataria bilakatu zen, antzinako artisauen eta “merkatarien” arteko bereizketa gairiduz. Bestalde, garai hartara arte “lurjabeen” maizterrak ziren kolono asko merkatuarentzat ekoizten hasi ziren, gizarte feudalistaren jopu harremanak desagertzeaz zeuden eta.

Aurreko ekoizpen moduetatik ekoizpen modu kapitalista bereizten duen ezaugarri garrantzitsuenetako bat honako hau da: **ekoizpen modu kapitalista soldatapeko langilieriaren esplotazioan oinarritzen da**, langile “askearen” esplotazioan, eta honen helburua, kapitala lortzeko merkantzien arteko elkartrukea da.

Beraz, kapitalismoaren garapenerako beharrezkoa izan zen langileri “askearen” agerpena, zeintzuk **bizirauteko beraien lan-indarra saldu** (burgesen batek kontratatuzeko esperantzarekin) eta honen bitartez soldata eskuratzeaz gain, bizirauteko bestelako baliabiderik ez zutenak. Hau da, klase burgesaren menpekotasun osoa izango duen langile “askearen” agerpena. **Langile aske**

honen ondoan, beti ezkutuko langileak topatuko ditugu, zaintza lanen bidez esklabizatuak garen emakumeak.

Gizarte feudalistetan nekazal eremuetan bizi izan zen biztanleriaren gehiengoa. Hauek lurjabeen lurrak lantzeko aukera zuten beraien ekoizpenaren kantitate bat jauntxoari emanaz gero, hortaz, lur-jabeen menpekoak ziren arren, bazuten bizirauteko ekoizpen bitartekari propiorik: lurra. Lege eta espropiazio ezberdinen ondorioz nekazari askok beraien lurrak utzi eta hirira emigratu behar izan zuten, edozein ekoizpen bitartekariz desjabetuta beraien lan-indarra saltzea besterik ez zitzaizela geratu. Burgesiak orduan nekazarien egoera berri hau bere interesetarako erabili zuen, industrial guneak indartu eta soldatapeko lanaren bizi eredia eta diziplina inposatuz.

Ordura arteko tradizio komunalen kontra zihoan ordea, beste norbaitentzat lan egitea, egunero ordutegi zehatz batekin. Norberaren eta komunitatearen beharren arabera egiten baitzen lan, eta ez jabe bizkarroi batentzat. Ohitura komunitarioei debekuak ezarri, dantza eta festei, tabernetan egoteari... **Langileak indarrez derrigortuak izan ziren "askeak" izatera.**

XIV eta XV. mendeetan garatu zen batez ere gizarte kapitalistari hasiera emango zion gizarte feudalistaren ekoizpen modu tradizionalen eta burgesiak defendatzen zituen ekoizpen moduen arteko haustura.

JATORRIZKO METATZEA ETA AURKIKUNTZA GEOGRAFIKOAK

Kapitalismoaren sorrerarako beharrezkoa da **Kapitalaren Jatorrizko Metaketa** edo Acumulación Originaria del Capital, deitu izan dena, hau da, kapital bat alde aurretik akumulatua izatea, horrek plusbalioa sortuko duten ekoizpen bitartekoak erosi (makinak, fabrikak, lehengaiak, langileak...) eta zirkulatzen jarri ahal izateko.

Jatorrizko metaketa hau lurjabe boteretsuek eta jaio berri zen burgesiak esplotazio modu biolentoak erabiliz eskuratu zen. Lege errepresibo berrien bidez, nekazarien lurrak desjabetu, elikagaien zirkulazioa mugatu, derrigorrezko lanaldiak... Beraz, **XV eta XVI mendeen artean nekazari eta langileen kontrako errepresio izugarriak, batez ere sorgin ehizak, eta munduko herrien kolonizazio eta esplotazioak ahalbidetu zuten kapital mordoa akumulatzea, eta honekin batera, lehen bankuen sorrera.**

"Mundu berriaren" kolonizazioak zein ekialdeko herrialdeekin indartzen hasitako harreman ekonomikoak garrantzitsuak izan ziren oso kapital metaketa honetarako, aberastasun ugari bildu izan baitzen Ameriketako indigenen esplotazioaren ekialdeko komertzioen bitartez. Ameriketako aberastasun iturri denak ustiatu baitzitezten ia-ia inolako koste ekonomikorik gabe. Urrez eta zilarrez jositako barku espainiar eta portugesak ateratzen ziren astero Amerikatik Europara, bidean, pirata ingelesek lapurtu eta Ingalaterrako banketxeei saltzen zizkietelarik askotan.

Silvia Federicik ongi azaltzen du, burgesiaren borroka berri horretan, Ameriketako

lan esku esklaboaz gain Europan ere esklabotza berri baten sorrera emango zela, emakumearen kanporaketa merkatutik, lan esku guztia dohain egitera behartuak izanik.

Kapitalaren metaketan azken elementu nagusia ejertzitoen bilakaera handia izango da. Gizartea klaseetan banatua egon denetik, gerrak paper nagusia izan du historian. Erdi Aroaren amaieran gerrek ejertzito permanenteak sortu zituzten estatu guztietan, horrek suposatzen zuen guztiarekin: behar ekonomikoak asetzeko, nazioen ekonomiak garatu zirela, eta horretarako nazio-estatuak. Hazkunde etengabea gerrak egiteko.

Jatorrizko metaketa, hortaz sistema kapitalista ezartzeko beharrezko izan zen kapital akumulazioa da. Ikusi dugun bezala, lau zutabeen gainean garatu delarik: estatuaren eskutik herri langilearen kontra, gainontzeko herrien kontra, emakumeon kontra eta jarrera belikoarekin. **Kapitalismoaren lau zutabe estrategiko beraz: klasismoa, arrazismoa, patriarkatua eta biolentzia.**

Kapitala burgesen esku geratzean eta gainera hauek ekoizpen bitartekarien jabetza pribatua eskuratzean, gizarteko esturktura ekonomikoa beraien interesen arabera antolatzeke eta gauzatzeko aukera izan zuten.

IRAULTZA INDUSTRIALA

«La burguesía no puede existir sino a condición de revolucionar incesantemente los instrumentos de producción y, por consiguiente, las relaciones de producción, y con ello todas las relaciones sociales» (K.Marx)

Ekoizpen sistema kapitalista garatzen ari zen egoera berri honetan kapitalistak edo burgesak, ekoizpen modu gremialak ezartzen zituen murrizketez askaturik, lantegi txikietan langile kopuru handiak batzera dedikatu zen. Lantegi bakarrean langile kopuru handia aglomeratzeak artisautza klasikoaren ekoizpen gastuak murriztea ahalbidetu zuen, eta honez gain, denbora tarte berean aurretik ekoiztu zitezkeen produktu kantitatea nabarmen handitu zen.

Manufakturaren agerpena (lehen ekoizpen modu kapitalista zehatza) modu espontaneo baten eman zen. Lantegietan lanean ari ziren langileak apurka apurka **ekoizpen prozesu osoko zati konkretu baten espezializatzen hasi ziren**, aldi berean ekoizpen prozesuko lan banaketa gertatu zen eta lan tresneria izugarri perfektionatuz zihoan. Guzti honek esku-lanari dagokion ekoizpen ahalmena areagotzea lortu zuen.

Hala ere, kapitalistek gero eta *plusbalio* gehiago eskuratzeko zuten beharraren poderioz eta esku-lanaren ekoizpenak zituen mugak zirela eta, ekoizpen bitartekariak garatzen eta perfektionatzen jarraitzea eragin zuen. Behar honi erantzunez asmatu ziren lehen makinak, ekoizpen prozesuaren makinizazioari hasiera emanaz.

Iraultza industrialia langileri sektorearen klase izaera eta kontzientzia hartzea ahalbidetu zituen fenomeno da, proletalgo modernoaren sortzaile. Manufakturetan lanean zebiltzan langile gehienek oraindik bazuten lur-zail txiki edo lan tresna batzuen gaineko jabetza, industrializazioaren ondorengo langileek berriz, beraien lan-indarra zuten gizartean parte-hartzeko baliabide bakarra. Lantegiek eta prekarietateak ematen zien batasunak, gehi garaian sortutako mugimendu iraultzaileek eman zieten klase kontzientzia.

Honez gain, industriaren *makinizazio* prozesuak langile asko langabezi egoerara bultzatu zituen, eta lanean ari zirenak makina berri horien manipulatzailerik bilakatu zituzten; pertsona, ekoizpen prozesuko ekintza sortzaile denetatik aldenduz. Lanaren eta langilearen alienazio modernoa ekarriko du honek.

Industrializazio prozesuaren ostean soldatapeko lana ekoizpenaren oinarri bilakatu zen. **Aurrerapen teknikoek gizakia lan prozesuaren atal gogorrenetatik askatu beharrean, soldatapeko lanaren bitartez langileak elkarren esplotazioaren sustatzaile izatea (konpetenziaren bitartez) eta klase kapitalistarekiko dependentsia areagotu zituzten.**

Industrializazioak gainera, **etxea eta lantokiaren arteko banaketa eragingo du, publiko/pribatu banaketa larriki areagotuz eta emakumeak lan produktibotik kanporatzeko arrazoi gehiago emanez:** lantegiak ez zirelako emakumeentzako toki egokiak, etxeko "eginbeharrak" ezin zirela lantegiarekin uztartu, langile gizonak distraitzen zituztela, "prostituzioan" erortzeko arriskua zegoela, eta abar.

BURGESIAREN GARAIPENA

Industria manufakaturatuak garatzen zihoazen heinean burgesiak botere ekonomiko handiagoa bereganatzea lortu zuen. Horrela, sektore feudalaren esku zegoen boterearen eta burgesiaren interes ekonomiko eta politikoen arteko kontraesana azaleratzea lortu zen. Izan ere, burgesiak Estatuaren aparatuak eskuratzeko beharra zuen ekonomia kapitalistari jarraibidea eman ahal izateko. Kontraesan honen azaleratzeak *iraultza burgesak* deritzonak eragin zituen.

Ugariak izan ziren iraultza burgesak, horien lehenengoa Herbehereetan eman zela ziurtatu ohi da, bigarrena Ingalaterran eta Frantzia 1789. urtean, egun ospetsuena dena. Beste testuinguru eta garapen batekin, Amerikar Estatu Batuetan ere izan zen 1771 urtean.

Iraultza guzti hauen **ezaugarri esanguratsuetako bat klase dominante burgesaren, proletalgoaren eta nekazarien arteko elkarlana izan zen, aristokrazia kanporatzeko intentzioarekin burutu zutena.** Iraultza hauetan burgesiak desira eta behar sozialen abangoardia eta errepresentatzaile izendatu zuen bere burua, baina boterea eskuratu eta berehala gizarteko sektore txiroenen eta zapalduen interes iraultzaileak zapuztu egin zituen. Aristokrazia gainditu ostean hortaz, beste gizarte sektore eta klaseekin mantendutako elkarlana bertan behera utzi eta proletalgoa bilakatu zuen bere etsairik handiena.

Proletalgoaz gain emakumea ere etsai bihurtu zen, nahiz eta iraultza honetan presente egon, hiritartasunetik at mantendu zituzten, esklaboak bezalaxe. Sortu zuten botere politiko berria arrazista, sexista eta klasista izan zen. Feminismotik azpimarratu den bezala, nahiz eta iraultzan "aitarekin" (erregea) amaitu eta "anaien" (fraternité) arteko aliantza aldarrikatu, azken finean soilik patriarkatu "paternaletik", patriarkatu "fraternalera" pasatu zen, "anaien" arteko kontratu sozial horrek emakumeak baztertzen eta zapaltzen jarraitzen baitzuen.

Burgesia gizarte feudalistaren gainera jarri eta sistema kapitalista burgesaren oinarri politiko eta kulturalak mundu osora hedatu zituen.

Gizarte kapitalista diruaren botere inbertsonalean oinarritzen da eta honek gizartearen polarizazioa eragiten du bi klase sozial handitan: alde batetik **burgesia** dugu, **ekoizpen bitartekarien jabetza pribatua duena**; eta bestetik **proletalgoa edo langile klasea, ekoizpen bitartekari ororengandik desjabetua eta bizirauteko bere lan indarra saltzera derrigortua dagoena.**

Burgesia hortaz Estatuaren jabea da (polizia, jurisprudentzia, kartzelak, armada... bere agindupean daude) eta bere interesen alde eta langileriaren interesen aurka darabil.

Langileriak bere lan-indarraren jabetza besterik ez duenez eta ekoizpen prozesu guztia burutzen duena denez, klase sozial handiena eta kontzienteena izan da historikoki. Azken finean, bera da gizarteko behar guztiak asetzen dituen klasea, ez burgesia bezala, bizkarroia besterik ez dela. Beraz, langileriak bakarrik gairitu dezake kapitalismoa eta klaserik gabeko jendartea sortu. Langileria da gizarte polarizatu honetako motor iraultzailea, bera da bere burua emantzipatzeko aukera bakarra.

Aipatu beharra dago, proletarioez mintzatzen garenean **ez garela buzo urdineko langile gizonez bakarrik ari.** Hasiara batean, nekazari txirotuak fabriketan pilatu baziren, eta hau bazen langileriaren ikur nagusi, kapitalismoa forma ezberdinak hartzen joan den heinean **proletalgoaren nolakotasuna ere aldatuz joan da.** Egungo Euskal Herrian, industria pisutsuko langileez gain, industria teknologikoko zein zerbitzuetako langileak izan behar ditugu kontuan, adibidez. Beraz, gauza bat da, proletalgoa klaserik handiena eta ahaldunena dela (potentzialki) jendarte kapitalista guztietan, eta beste bat da, langileri horren nolakotasuna. Hau da, **gauza bat da klase analisi marxista eta beste gauza bat, langile mugimenduak historikoki erabili duen sinbologia.**

Gaur egun Euskal Herrian, Leninek III internazionallean egindako ekarpenetatik abiatutik, Langile Herriaz hitz egiten dugu, proletalgo industrialaz gain bestelako herri sektoreek bere burua identifikatua ikus dezaten ere klase zapalduen artean. Eta hemen sartzen dugu mugimendu feministak egindako ekarpen ezinbestekoa: **Etxekoandreen egoera.**

Etxeko lanak eta zaintza lanak, historikoki ikusi dugun bezala, **emakumeon esku**

geratu dira. Kontua da kapitalismoa ez den gainontzeko ekoizpen ereduetan (komunismo primitibo, esklabotza, feudalismo...) **komunitatea eta famili unitate ekonomiko eta produktiboa izatean, lan banaketaren barruan lan erreproduktiboa ere onartua zegoela, eta etxeoandrea langile kontsideratua zegoela ere** (nahiz eta noski zapalkuntza ere bazegoen). Kapitalismoaren harreman ereduen barruan ordea, emakumeak **merkantziarik ez sortzean ekoizpenetik kanpo dagoela kontsideratzen da (ideologikoki, politikoki, sozialki eta ekonomikoki) eta beraz, bere lana ikusezin bihurtzen da.** Lana izan beharrean obligazio bezala ikusiko da. Are gehiago, etxeo eta zaintza lana emakume izateko baldintza zen eta ama izatea horien patu bakarra. Beraz, emakumeak senar bati salduko dio bere lan indarra mantenuaren truke soilik (harreman eredu esklabista hutsa). Emakume proletarioak bi aldiz gara zapalduak beraz. Engelsek esan bezala: "etxean gizon langilea da burgesa, eta emakumea proletarioa".

Kapitalaren metaketa, Zaintza lanak eta Soldaten Patriarkatua

Ekonomia marxistak askotan baztertu izan ditu emakumeon historiak eta problematikak, batez ere klase borrokari zegokionean. Silvia Federici italiar feminista marxistaren ekarpenek ordea, hainbat argi eskaintzen dizkiote gure irakurketei.

Feudalismoan, nekazari eta langile herriaren borrokek konstante ezberdinak zituzten, horietako bat, emakumeon protagonismoa zelarik. Ezin zen beraz, inolako erasorik eman langile herriaren kontra, ongi antolatuta zegoelako, eta **zatiketa bat eman beharra zegoen: Patriarkatuaren eraberritzeak ekarriko zuen.**

Europar kapitalismoaren sorrerak bi prozesu nagusi izan zituela ikusi dugu, **lurren pribatizazioa eta prezioen iraultza.** Bi hauek bakarrik ez ziren nahikoa kapitalismoaren sorrera behar zuen metaketarako, ez eta lanak behar zuen diziplinarizaziorako proletarizazio-prozesu barruan; emakumeon kontrako erasoaldia eman behar izan zen horretarako, **Soldaten patriarkatua izenez ezagutu izan dena sortuaz.**

Biziraupenerako ekoizpenetik, merkaturako ekoizpenera pasa zen jendartea, komunitatea eta oinarritzko beharrak merkatuaren logikatik kanpo kokatuaz. Ekoizpen orok zentzua hartzen zuen, soilik, bere aldaketa-balioaren arabera, eta inolaz ere ez bere erabilera-balioaren arabera. Beraz, ekoizpen oro, **diruarengatik neurtua** izaten hasiko da, baita sexualki diferentziatua egoten. Zaintza lanak edo lan erreproduktiboak beraz, ikusezin bihurtu ziren, **"lan" bezala kontsideratzeari utzi zitzalearik: emakumeon berezko eginbehar bezala baizik.**

Aldaketa historiko hauek XIX. mendean egin zuten gailurra, **denbora osorako etxeoandrea figuraren sorrerarekin.** Sexuen araberako lan banaketa berri honek emakumeak gizonarekiko dependentzia berri bat edukiko dute: soldatarena. Estatuak eta gizonak, emakumea lotzeko tresna zuten horrela.

Ekoizpena eta erreprodukzioaren banaketa honek emakumeen klase proletario bat sortu zuen, gizonak bezain behartsuak, baina gizonekin alderatuta, geroz

eta monetarizaturik zegoen jendarte batean, soldatekiko inolako sarbiderik gabe, **pobrezia kroniko batetara dependentzia ekonomikora eta langile bezala ikusezintasunera kondenaturik**. Emakumeon muturreko degradazio sozial honek, aberastasunetik banatzeaz gain, doako lan ugari eskaini zion (eta dio) kapitalismoari, jatorrizko metaketarako ezinbestekoak izan zirenak.

Europako kapitalismorako trantsizioak, erasoaldi estatal multzoa ekarri zuen, hiru helburu nagusi zituztenak: a) lan indar diziplinatu bat sortzea b) gatazka soziala baretzea eta c) langileak euren lanetara lotzea. Herri kulturaren kontrako eraso bat eman behar izan zen diziplinen sorrerarako, tabernen erregulazioa edo sexualitatearen inguruko neurriak esaterako. Bestetik, estatu modernoaren sorrera emango da ere gutxinaka, asistentzia publikoaren bidez, langileen bizitza eta heriotza kontrolatuz lehen aldiz historian. Erreprodukzioan izan zuen batez ere, lehen eragina honek, erregistro demografiko, jaiotza-tasa, zentsua eta abar guztiekin... **Noski erreprodukzioa kontrolatu nahi izateak, emakumeak kontrolatu nahi izatea suposatzen zuen**. Beraz, erasoaldi oso hau langile herri osoaren kontrakoa bazen ere, emakumeoi bideratuta zegoen batez ere (hemen gertatu zen ere abortu, antikonzeptibo, eta infantizidioaren kontrako lege gogorrenak, dibortzioaren kontrakoak, mediku edo emaginen kontrakoak...). Emakumeoi geure gorputzen jabe izateko ukazioak, argi eta garbi, emakumeon ezaugarri guztien integritasuna mozten du, amatasuna derrigorrezko lan bezala garatuz.

PATRIARKATUAREN ERABERRITZEA

XVI. Eta XVII.mendeak emakumeon kontra inoiz egondako erasoaldi errepresibo eta ideologiko handienak izan ziren. Gutxika, lege ezberdinen bitartez emakumearen eskubideak gizonezkoarengandik berezituz joan ziren: bakarrik bizitzeko debekuak, erabakiak hartzeko senarren menpekotasuna... Puten kontrako bortxaketek adibidez, delitu izateari utzi zion estatu frantsesean XVI.mendean.

Literaturan eta herri kulturaren zabaldu zen eztabaidak, genero harremanen birdefinizio ideologiko bat ekarri zuen. Kanon kultural berriek gizon eta emakumeon arteko ezberdintasunak handitzen zituzten, emakumeak gutxiesten ziren bitartean: arrazoimen gutxiak, harroak, xahutzaileak... ginen. **Sorginak eta putak**.

Honek, historiako terrore kanpaina handienetakoa ekarri zuen. **Sorgin ehizaren bitartez, emakumeon identitate sozialaren galerak erreprodukzioarako subjektu pasibo bihurtzea izan zuen helburu hasieratik: gizonen kapitalismo baten mesedetan**.

Gizon Zuriaren garaipenaren ostean, XVII.menderen bueltan, **bigarren feminitate eredu bat sortu zen**: emazte ideala, pasiboa, zintzoa, garbia, aurreztailea... Jada ez zen beraz, kontu eduki beharreko etsaia, baizik eta zaindu eta babestu beharreko, bigarren mailako herritarra. Infantilizaizo bat eman zela esan daiteke ere, bizitza sozial eta politikotik kanporatua izango den zaindu beharreko emakume gajoa.

Familia, esfera publikotik irten egin zen, eremu pribatuak sortuz langile herriaren

artean, lehen aldiz historian. Horrela, bereziki emakumearen kontrako instituzio bihurtu zen, elizaren babes ideologikoarekin, eta burgesiaren babes politikoarekin. Ez da arraroa beraz mikro-estatu edo mikro-eliza lez irudikatu izana maiz familia.

Klase altuenetan, jabetzak ematen bazion senarrari boterea emazte eta seme-alaben gainean, langile klaseetan berriz, emakumeak soldatetatik bazterturik egoteak ematen zion boterea.

Politika honek, **emakumeek dirurik ez edukitzea ekartzean, gizonekiko dependentzia materiala ekarri zuen, soldatapeko patriarkatuaren sorrera ekarri.** Honek bere garapena eduki zuen, XIX mendean denbora osoko etxeakoandreairearen figura sortzeraino.

Beraz, akumulazio kapitalistarako bi erasoaldi jasan izan behar zituen emakumeak: plusbaliorako esklabo lana egitea (zaintza lanak zein, ordaindu gabeko beste hamaika lan ekoizle) eta bestetik, hori baimentzeko erasoaldi ideologikoa

KAPITALISMOA ETA BERE EZAUGARRI KONSTANTEAK

XIX eta XX. mendeetan egonkortu zen kapitalismoa. Ekoizpen sistema kapitalista garaile suertatu zen momentutik aurrera krisi ekonomiko, gerrate bortitz edota zenbait iraultzei egin behar izan die aurre. Kapitalismoa bera kolokan jarri izan zuten hainbat gertakari: iraultza sobietarrak eta Bloke Sobietikoaren agerpenak adibidez.

Lehen eta bigarren mundu gerrek eragindako kalte ekonomiko eta sozialak ere oso determinanteak izan dira kapitalismoaren historian, edota hauek iraun artean estatu kapitalistek indartu behar izan zituzten ekoizpen armamentistiko eta belikoak, merkatu honen areagotzeak beste sektore ekonomikoen beherakada izugarria eragin baitzuen.

Ugariak dira historian zehar ekoizpen sistema kapitalistak izan dituen aurpegi politikoak, XX. mendeko faxismoen altxamenduak edota gaur egungo demokrazia errepresentatiboak sistema ekonomiko beraren errepresentazio ezberdinak besterik ez dira. **Oso zaila da kapitalismoa itxura eta forma bakar batekin identifikatzea.**

Beraz kapitalismoa behin egonkortuta **eraldaketa historikoak pairatu ez dituzten zenbait ezaugarri konstante antzeman ditzakegu.** Momentu eta herrialde zehatzetan horietako batzuk modu ezberdinetara adierazi badira ere, oinarrian beraien izaera primarioa mantendu dute. Ezaugarri hauek dira ekoizpen sistema kapitalista funtsatzen eta honen biziraupena ahalbidetzen dutenak.

- a) Ekoizpen bitartekoak (lurra eta kapitala) **jabetza pribatuaren** bitartez antolatzen dira. Produktuek ekoizpenari eta honen gaineko jabetza pribatuari dagokionez kapitalak ekoizpen prozesurako beharrezkoak diren eraikin, makinaria eta herra mintza multzoari egiten dio erreferentzia.

- b) **Soldatapeko lana** edo lan-indarraren merkantilizazioa beste oinarrietako bat da. Izan ere, aurreko puntuan aipatu bezala ekoizpen bitartekariak jabetza pribatuaren esku izaterakoan langileek merkatuan parte hartu ahal izateko beraien lan-indarra merkantzia bilakatuz eta kapitalisten ekoizpenean merkantzia hori salduz bakarrik eskuratu dezakete merkatura ateak irekiko dizkien dirua. **Soldatapeko lanaren bidez sortzen da plusbalioa.**

Soldatapeko lana ulertzeko ezinbestekoa zaigu ekonomia kapitalista “izebergaren metaforatik” ulertzea, hau da, kapitalismoak soldatatik ateratzen duen plusbalioaren zati garrantzitsu bat emakumeen lan ezkututik ateratzen du, izan ere, soldata langileen beharrianak asetzeko pentsatutako dago (ez sortu duten produktuaren balio berdina emateko langileei), hau esplotazioren oinarritzko elementua da baina, kapitalistek badakite langileen beharrian oinarritzkoenak eremu pribatuan asetuak dituztela emakumeen lan erreproduktiboei esker eta beraz, soldatak baxuagoak izan daitezkeela horregatik.

- d) **Merkantzien etengabeko zirkulazioak** antolatzen du gizarte kapitalistetako ekonomia. Merkantzien zirkulazioak merkantzia sal-erosketan datza eta zirkulazio hau diruak ahalbidetzen du. Bigarren puntuaren zergatia hemen ulertu dezakegu. Izan ere, pertsona batek bizirauteko beharrezkoak dituen produktuak diruaren bitartez bakarrik eskuratu ditzake gizarte kapitalistan, eta hortaz, derrigortuta dago bere lan-indarra zaltzera, ekoizpen gaitasunik ez du eta. langileen lan-indarraren gehi eremu erreproduktibotik ateratzen den guztiaren boidez, **Kapitalaren akumulazio pribatua ematen da, hau izanik burgesiaren helburu bakarra.** Zirkulazioa etengo balitz kapital akumulaziorik ez litzateke emango, eta beraz, ez litzateke ekoizpen kapitalistarik egongo. Horregatik kapitalismoa etengabeko hazkundearen paradigmatik arabera dago antolatuturik.
- e) Gizarte kapitalista guztiak **klaseen arteko bereizketa zurrunean oinarritzen dira: burgesak eta langileak.** Lehenak ekoizpen bitartekariak jabeak dira, eta bigarrenak diruaren truke lan-indarra saltzera derrigortuak daudenak. Azken 200 urteetan hauen ezaugarriak aldatzen joan diren arren, klase bereizketak bere horretan dirau, geroz eta pertsona gutxiagok geroz eta botere gehiago dutelarik mundu mailan.
- f) **Kapitalismoan etengabe krisi ziklikoak gertatzen dira:** ekoizpenaren handitzeak, kapitalaren inbertsioa areagotzea exijitzen du, irabazi tasa txikituaz. Honek, beraz, inbertsioa jaistea ekartzen du, eta honek ekoizpena gelditzeak. Prezioen gorakadak eta ekoizpenaren suntsitzeak, langileon miseriak areagotzen ditu, eta berrestrukturaketa kapitalistak ekartzen ditu. 8 eta 22 urteko zikloetan gertatzen dira krisi kapitalistak eta 40-50 urtetan berregokitze estrategikoak. Kapitalismoaren ekoizpen krisia, batera dator, bizitzaren krisiekin: zaintza lanena, demokraziarena, kulturarena, ekologiarena, energiarena...

- g) Patriarkatua: Kapitalismoak irauten badu, bere oinarritzko ezaugarrietako bat da patriarkatuaren bidez elikatzen dela. Emakumeon lan ezkutuaren bitartez sortzen da plusbalio altuagoa eta beraz akumulazio kapitalista. Hortaz, **kapitalismo eta patriarkaturen arteko aliantza berezko ezaugarri bat da.**
- h) **Amalurraren suntsiketa.** Kapitalaren etengabeko zirkulazioak merkatu berrien esplotazioa ekartzen du, etengabea, maiz amalurraren kaltetan gertatzen delarik. Komunikazio sare etengabeak (internet, autopistak, trenbideak...), zein energiaren bilaketak (fracking, petrolio, zein mineralen ustiaketa...) amalurraren kaltetan egiten dira beti. Eta zer esan ekoizpenak sortutako kontaminazioak sortzen duen espezieen desagertze etengabeak.

Hauek dira kapitalismoa ezaugarritzen duten faktore garrantzitsuenak; bestalde, hauen ezagutza izanda errez identifikatu ditzakegu zein gizarte diren kapitalistak eta zeintzuk ez. Izan ere, ugariak eta oso ezberdinak izan daitezke kapitalismo basatiaren aurpegiak, mendebaldeko sozial-demokrazietan adibidez. Ongizate estatuaren izenean estali nahi izan direnak, baina azaldu berri ditugun karakteristikak dira esplotazio kapitalista gauzatzen dutenak. Horiek aldatu gabe, hortaz, ezin gaitezke kapitalaren eta kapitalisten kateengandik askatu.

Galderak:

- 1) Zeintzuk izan ziren feudalismotik kapitalismora igarotzeko arrazoi nagusiak?
- 2) Eta zeintzuk eman beharreko aldaketak?
- 3) Sorgin ehizek zein paper jokatu zuten kapitalismoaren garapenean?
- 4) Kapitalismoaren zein ezaugarri uste duzu dela funtsezkoena? Zergatik?
- 5) Jabetza pribatua mantenduta, posible litzake esplotazioa gainditzea? Nola?
- 6) Zeintzuk dira egun kapitalismoaren ezaugarri nagusiak?

Bibliografia:

ENGELS, F. & MARX, K: *Manifestu Komunista*

FEDERICI, SILVIA (2004): *Caliban y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*

MARX, KARL (1876): *El Capital*

4.

***IRAULTZA
SOZIALISTEN
MENDEA***

MARXISMOAREN SORRERA:

Kapitalismoaren aurreko jendarteak eta ekonomia ereduak, interes kontrajarriak zituzten klaseen arteko talkak izan dituzte oinarri. **Jendartearen antolaketa ekoizpen gaitasunekin talkan jartzen denean ematen dira krisiak eta aldaketarako aukerak.** Horretan konturatu ziren lehenak Marx eta Engels izan ziren, “klase borroka historiaren motorra” dela aitortu zutelarik horrela.

Friedrich Engels (1820-1895) eta Karl Marx (1818-1883) filosofo alemaniarrek, 1841ean ezagutu ziren elkar, eta 1844ean hasiko zuten bizi osorako kolaborazio intelektual oparo eta banaezin bat, marxismoa izenez ezagutu dena. Aipatzea, Marxena izan arren historiara pasa den izena, Engelsen ekarpenak ezinbestekoak izan direla ere, ez soilik *Marxi idatzi zizkion* lanengatik, baizik eta besterik gabe, beti batera jarduten duten bi pertsonen lana ezin delako inolaz ere lan indibidual kontsideratu.

Marxismoa bada, XIX. mendearen testuinguruan sortzen zaigu, eztabaida filosofiko, politiko eta zientifiko ugariaren artean. Industria Iraultzaren garaia dira, eta paradigma teoriko berriak sortzen hasi dira, azaltzeko landa eta hiriaren arteko desoreka joerak, langileriaren egoera prekariora, makinek eta ekoizpen modu berriek izaten ari diren eraginak... honen eraginak ulertzeko saiakerak, soziologiaren sorrera ekarriko dute. Honez gain industria iraultzak zientziaren garapena dakar, arlo guztietan. Eta besteak beste, batez ere, Darwinen eboluzioaren teoriak paradigma berriak jartzen ditu mahai gainean. Jada soilik ez da ez garelako jainkoen hautetsiak, baizik eta tximinoen lehengusuak garelako, animaliak bezain animalia gara. Beraz, jada ez dugu Jainkoen beharrik mundua ulertzeko, zientzia bihurtzen hasi da *Jainko berria*.

Baina ez hori bakarrik. Kontuan edukita, iraultza burgesak gertatu berri direla, 1789an apenas, antolaketa politiko-erlijiosoari ere buelta teorikoak ematen zaizkio, estatu berriak ez baitira espero ziren bezain askatzaileak izan gehiengoarentzat. Honela, eta aurretik aipaturiko aldaketa soziologiko berriez gain, antolaketa politikoa nahieran aldatzeko grina aurkitzen da, Europar grina iraultzailea hedatzen delarik. Aipatzea grina honek, oinarria izanen duela, besteak beste, iraultzaile burgesek garatu duten premisa batean: gizaki guztiek balio berdina dutela, hain zuzen. Nola ez, gizaki diogunean, gizon txuri burges esan nahi dutela hasieratik, baina tira, ideia hau gainjartzen denetik, jada, bioemakume, beltz, homosexual, txiro... eta gizon heterosexual zuria ez den orok ere eskubidedun gizaki-ren kategoria irabaziko du, borroka latzen ondorio bada ere. Iraultza burgesek, gizakiaren berezko eskubideak jarriko ditu beraz mahai gainean.

Azkenik, garaia testuingurua kokatzeko Alemaniako filosofiaren egoera ekarri behar dugu. Hegel delarik garaiko pentsalari garrantzitsuenetakoa, bere metodo dialektikoaren ikasle ugari biltzen ditu. Honela, Marxek eta Engelsek, dialektikaren gakoak bere egiten dituzte, kontrakoen talka eta batasuna eta etengabeko mugimendua, naturaren eta historian konstante bat direnaren ideia zentralarekin, besteak beste.

SOZIALISMO UTOPIKOTIK, SOZIALISMO ZIENTIFIKORA

Ekoizpenaren handitzeak, eta beraz aberastasun sozialenak, ez zituzten langileen bizi baldintzak hobetu, ezta gutxiago ere. Okertu egin ziren lan baldintza orokorrak, eta aberats eta txiroen arteko distantzia handitu egin zen. Testuinguru honetan sortu ziren sozialismo utopiko bezala ezagutu izan diren ideologiak. Hiru izan ziren pentsalari nagusiak: **Saint Simon** eta **Fourier** estatu frantsesean eta **Owen** Ingalaterran. Utopikoak deitu zitzairen, izan ere, jendarte justu eta askeago bat imajinatzeari ekin zioten, gizaki ororen askatasuna bat-batean lortu asmoz. Hausnarketa garrantzitsuak egin zituzten arren, ez ziren gai izan jendartearen analisi batetik bide orri erreal bat gauzatzeko, **ez zutelako errealitatea interpretatzea lortu.**

XIX.mendearen erdialdean, Europako herrialde gehienetan zen kapitalismoa jaun eta jabe. Industrializazioak ekoizpena izugarri handitu zuen eta langileria lantegietan pilatu zen. Hiriak eraldatu egin ziren, eta urte gutxitan biderkatu, proletalگو eta burgesiaren espazio guda batean bilakatuz. 1830 eta 1840ko hamarkadetan, hainbat iraultza eta matxinada eman ziren Europan zehar, burgesiaren erregimenaren eta nekazari eta proletarioen artekoak. **Burgesia garaile atera eta bere hegemonia politiko eta ideologikoa indartzuz, indar atzerakoi kontsidera dezakegu hemendik aurrera** (ordura arte, sektore iraultzaileak barnebiltzen zituen, adibidez elizaren kontra).

Egoera sozial berri honek, historia osoaren errepassoa ekarriko zuen. Marx eta Engelsen eskutik beraz, klase borrokaren teoria azalduko da, bai eta proletalگوaren diktadurarena: **Sozialismoa hemendik aurrera, ez da izango mundu imajinario hobe eta zoriontsu abstraktu bat, langile eta burgesen interes kontrajarrien gudaren ondorioa baizik.**

“Historia aurreko gizateriaren historia guztia klase borrokaren historia izan da eta elkar borrokatzen zuten klase hauek garai guztietan, euren ekoizpen eta aldaketa harremanen arabera izan dira”, eta “Estatua klase dominatzailearen antolakuntza da, menpeko klasea esplotatzeko eta zapaltzeko tresna bezala erabiltzen duena” eta “klase borrokak ezinbestean proletalگوaren diktadurara eramaten gaitu, eta diktadura hau klaseen aboliziorako trantsizio bat baino ez da, klaserik gabeko jendarte baterantz: Komunismoa.”

1848an idatzi zuten Engels eta Marxek Manifestu Komunista, mundu osoko langile mugimenduentzako borroka tresna bihurtuko zena. **Lehen aldiz langileria subjektu iraultzaile bezala agertuz, ahalduntze itzel bat suposatu zuen.** Marxismoaren oinarriko hainbat ideia agertu ziren lehen aldiz hemen, proletalگوaren diktadura, jabetza soziala, klase borroka... adibidez. Noski, marxismoak bere bidea egin zuela eta oinarri teoriko zientifikoak ezarri zirela, gutxika garatzen joango direnak. Kapitala izango da Marxen obra gorena eta bertan egingo da inoiz egin den kapitalismoaren definiziorik sakonena. Nahiz eta 1850eko Ingalaterra zuen ikergune nagusi, egun ere bere obra ikertu egiten da, krisiaren testuinguruan erantzunak bilatu asmoz.

Langileriaren esplotazioa plusbalioaren sorreran oinarritzen zela deskubritu zuen marxismoak besteak beste. Honek, esan bezala, **zapalkuntzari oinarri material eta zientifikoa eman zion**. Izan ere, ordura arte kapitalismoaren gaineko teoriak mistizismoz josiak zeuden: esku ikusezina, berezko zapalkuntza, txitxarra eta inurriaren ipuina... Bestelako aurkikuntzak, indar ekoizleen izaera soziala eta honen emaitzen jabetza pribatuaren kontraesana erakusten zituen.

Ikuspegi zientifiko honek, Marx eta Engels buru, I.internazionalaren sorrera ekarri zuen, eta honela hasieran Europan eta ondoren mundu osoan zehar langile mugimenduentzako teoria eta praktika iraultzailea, langileen alderdi iraultzaileen sorrerarekin herrialde guztietan.

Langile mugimenduak marxismoarekin bat eginik, lehen garaipen iraultzailea ekarri zuen **1871eko Pariseko Komuna**, hain zuzen. Burgesiaren oldarraldiei aurre eginez, Pariseko langileriak kalera irten eta estatuko boterea hartu zuen. Burgesiak alde egin behar izan zuen, eta langileriak, armaturik, bere etorkizuna eraikitzeari ekin zion. Horrela, estatu burgesa desegin zuten, polizia eta ejertzitua desegin zituzten, herria armatu zuten, estatua eta elizaren arteko loturak eten zituzten, funtzionarioen hautaketa publikoa ezarri ziren... eta beste hainbat erroko aldaketa ezarri ziren. Ordea, iraultza egin eta aurrera eramateaz gain, langileria ez zen gai izan iraultza mantentzeko, eta burgesia, ejertzitoko kideen laguntzaz, komuna desegiteaz arduratu zen.

Pariseko komunatik bi ondorio nagusi aterako dira, lehenik langileriak bere indarren kontzientzia hartzen duenean iraultzak egiteko gaitasuna duela, hau da, **subjektu iraultzaile izaera onartuko zaio**, eta bestetik, **iraultza defendatu beharra dagoela**. Estatu berria eraikitzeaz gain, estatu hori defendatzeko estrategia ere diseinatu beharra agerian geratuko da, klase borroka inoiz baino gogorragoa izango zela, alegia.

INPERIALISMOA KAPITALISMOAREN FASE GOREN

XIX.mendekoa garapenak kapitalismoa bere etapa monopolistara eramanean izan zuen, eta honen garapen izan zen inperialismora. *Monopolioak*, industria handiaren hazkunde eta zentralizazio izugarriaren ondorioz sortzen dira. Hazkunde honen funtsa konpetentzia kapitalista da.

Gainekoizpen krisi periodikoek kontzentrazio hau handitzen dute, izan ere, enpresa txikiak ezin krisiari aurre egitean desagertu egiten dira, erraldioen mesederako. **Monopolio eredu ezberdinak sortzen dira**: konsortzioak, zuzendaritza bakarria duten enpresa taldeak; trustak, enpresa indartsuenak gainontzekoak xurgatzen dituztenean; edokartelak, produktu berdinak egiten dituzte eta prezio homogeenak jartzen dituzte enpresa ezberdinek, independentzia mantentzen dutelarik. 1873ko eta 1903ko krisi kapitalistekin monopolioak bihurtu ziren kapitalismoaren antolakuntza eredu dominatzailea. Beraz: **konpetentzia kapitalistak ekoizpenaren kontzentrazioa dakar, eta honek, aldi berean, monopolioen sorrera**.

Ekoiizpenaren kontzentrazioarekin eta monopolioen sorrerarekin batera, bankuen kontzentrazioa sortzen da eta kapital finantzarioaren sorrera. Etapa aurre-monopolistan, bankuak bitartekari hutsak baziren, industriaren hazkunderarekin batera, bankuek kapitalista guztien kapitala bereganatu zuten, eta horrela, ekoiizpen bitartekariak kontrolatzen hasi ziren.

Kredituaren bidez banketxeek enpresen kontrola lortzen dute. Kapitalistek horren beharra dute, kompetenziari aurre egiteko. Horrela, bankuek gutxinaka enpresa txikiak jaten dituzte, bitartekari huts izatetik benetako instituzio ekonomikoak bihurtu direlarik. Kapital monetario eta komertziala eta kapital industrialaren fusioaz sortuko da kapital finantzarioa, banku kontsorzioen esku egongo dena, talde sozial txiki baten esku: oligarkia finantzarioa.

Kapitalismo finantzarioak, monopolioa edukitzean, irabazi izugarriak lortzen ditu sozietate anonimoak sortzen, balio emisioak ematen, Estatuari emprestatoak ematen... Baina goera komertzialeko sasoieta irabaziak handiak badira, zer esanik ez krisi ekonomiko garaietan. Hauek lehertzean, zorrei aurre egiteko diru behar masiboari erantzunez, interesak igotzen dira, espekulazio ekonomiko soilaren prozesu batean.

Monopolioek merkatu berrien beharra dute etengabeko hazkunderako eta kapitalen inbertsiorako, eta horrek, nolabait **potentzia inperialisten artean munduaren banaketa ekarriko zuen.** Kolonizaziotik inperialismora egiten den bidean, potentzien arteko guda etengabea izango da (kapitalismoaren demokrazia!) eta XIX.mendearen amaierarako mundu osoaren banaketa indarraren bidez neurtuko da: **lehen mundu gerrarekin** hain zuzen.

Etapa honetan, kontraesan oro handitu egiten da, bereziki **herrialde kapitalista bakoitzeko burgesia eta langileriaren artekoa.** Krisi ekonomiko kronikoa, langabezia, miseriaren handitzea... aldi berean, **talde monopolisten arteko sari banaketak elkarren arteko enfrentamendua ekarriko du.** Honek ekarri zuen 1914ean lehen mundu gerraren sorrera. Honek baldintza berriak sortu zituen, langileria borrokara lotzeko eta lehen iraultza sozialista handia gertatu zen beraz: Errusiako iraultza.

IRAULTZA SOZIALISTAK:

ERRUSIAR IRAULTZA

1917ko otsailean Errusiako Tsarra kanporatua izan zen, behin behineko gobernu bat sortuz. Ordurako langileria sobietetan antolaturik zegoen, langileez osaturiko fabrika edo auzoguneetako batzordeek hain zuzen. Honek botere bikoitz egoera bat sortu zuen: batetik estatu ahul eta berri batena, eta bestetik herri antolatuarena. **Urriaren beraz, boltxebikeen gidaritzapean, langileriak armak hartu eta estatu burgesaren boterea eskuratzea lortu zuten, urriko iraultza historikoa gertatu zen.**

Sobieten errepublikaren sorrera XX mendeko gertakari garrantzitsuena izan zen, zalantza gutxirekin. **Lehen eredu sozialista ekartzeaz gain, mundu osoko langileriak ipar bat eduki zuen non begiratu.** Munduko potentzia bihurtu zen Sobieten Errepublika, mundu osoko mugimendu iraultzaileei laguntza eskaintzen ziolarik. Gutxi balitz nazismoaren garaipena lortu zuten II mundu gerrari amaiera emanaz.

Sobiet Batasunaren historia oso korapilatsua da, baina aipatu behar dira gako inportante batzuk egoera ulertzeko. Teoria marxistaren arabera, sozialismoaren eraikuntzako lehen etaparako, hau da estatu burgesaren suntsiketaren faserako, ezinbestekoa da sare industrial potente bat edukitzea, baita herritarren kultura maila altua ere. **Hori esan nahi zuten Marxek eta Engelsek esatean kapitalismoa beharrezkoa zela sozialismorako.** Kapitalismoak oinarri material eta ideologikoak ekarri omen zitzakeen beste jendarte bat eraikitzeko.

Errusiaren egoera, ordea, oso bestelakoa zen: ez zuen ez ekonomia sendorik eta langile eta nekazarien analfabetismo mailak izugarriak ziren. Gutxi balitz, lehen mundu gerraren sarraskiaren buruan heldu ziren langileak boterera, eta **gerra testuinguru horretan hasi behar izan ziren mundu berri bat asmatzen.** Pariseko komunaren irakaspenak jasota, sobiet herritarrak ez ziren armagabetu boterera heltzean, eta horri esker, **burgesiak antolatu zuen gerra zibilean, garaipena lortu zuten.**

Lehen urteak gerra urteak izan baziren, ez ziren gutxiagorako izango hurrengoak: 30.hamarkadan Nazien gorakadak bigarren mundu gerra ekarri zuten. Historia liburuetan, Nazismoaren karikatuta bat iritsi zaigu, bai eta gertakari distorsionatuen sorta ederra. Askotan badirudi bigarren mundu gerra juduen kontrako erokeria bat izan zela, amerikano, ingeles eta frantsesei esker garaitua. Ordea, **klase borrokaren forma anker bat izan zen, ideologia faxista, burgesiaren eskutik iritsi zen, marxismoaren eta langileriaren espiritu iraultzailearen kontra** eta etsai erraldoiaren kontra: Sobietar Batasuna. Borroka horretan potentzia "demokratiko" guztiek bat egin zuten arren hasiera batean, ikusirik faxismoak ekar zitzakeen ondorioak euren estatuetan klase borroka areagotzeko, batetik, eta Sobietar Batasunak irabazteko aukerak zituela ikusirik bestetik, pakto bat egin behar izan zuten potentzia kapitalistek sozialistekin.

Sobietar Batasunak menderatu zuen faxismoa, eta berak utzi zituen hildako gehien: 27 milioi pertsona, horien artean 18 milioi zirelarik zibilak. Juduak pasa dira historiara bigarren mundu gerrako biktima nagusi bezala, kontzentrazio eremuen ankerkeriagatik. 6 milioi bizi torturatu ziren arren, historiako biktima egin dituztenak amerikar eta sionismoko burgesiak izan dira, nahita ahaztuaz eraillako judu gehienak militante antifaxistak izan zirela. **Judu aberatsenek, Estatu Batuetatik aprobetxatu zuten Holokaustoa.**

Beraz, Sobietar Batasuna gerran bizi izan zen 1945era arte, ondoren gerra hotza izenez ezagutu izan zenari aurre egin behar izan ziolarik. Zein ondorio izan zituen honek? Egoera estremoetan neurri estremoak hartu behar izatean estatu autoritario

bihurtzeraino. Beraz garaipen sozialista ugari eskuratzea lortu zen arren, **langile masen protagonismoa gutxituz joan zen, burokrazia eta beldurraren ondorioz.**

1956ean Alderdi Komunistaren XX. kongresuan Nikita Khrushchev-ek ordura arteko Stalinen figura kritikatu zuen, erreforma berriak proposatuaz. Honek ordura arte Sozialismo errealaren eraikuntzan emandako urrats ugari atzera botatzea ekarri zuen, eta errepresioa gutxitu zuen arren, **burokratizazioa handitzeko prozesu bat izan zen.**

Guzti honek, SESBen inguruko iritzi distortsionatuak sortzea ekarri du. Batzuk gertaturiko erailketengatik soilik epaitzen dutelarik Sobietar Batasuna, eta beste batzuk lorturiko garaipenengatik soilik. Ez da erreza, esan bezala ideia orokor hori egitea eta beraz **testuinguratzen jakin behar dugu.** Sobietar iraultza munduko herri zapalduentzat eredu izan zen XX. mende osoan zehar, iraultza egiteko eredu bat sortu zuen eta mundu osoan zehar hedatzen ahalegindu zen. Bere handitasunak ordea, bere erorketa ekarri zuen, burokrazia bihurtu zelarik estatu iraultzaileko gestore, herriaren protagonismorik gabe, erreformismoaren ideiak sartzen joan ziren, Sozialismo sobietarraren kolapsoa etorri arte 1989an.

TXINAKO IRAULTZA

1949an Alderdi Komunistak gidaturiko ejertzito gorriak garaipena lortu zuen urteetako gerra zibilaren ondorioz. **Jendarte feudal batetik, biztanleria nekazari eta kulturalki analfabetoarekin jendarte sozialista bat eraikitzearen erronkari heldu zitzaion.**

1949tik 56ra Sobietar Batasunaren laguntza jaso zuen, eta planifikazio ekonomikoari ekin zitzaion, industria pisutsua sortzeko helburuarekin hiri guneeetan, eta landa eremuetan nekazari kooperatibak sortuaz. 56tik aurrera sobietar batasunean emandako aldaketek Txinarekiko harremanak okertzea ekarri zuen, kooperazioa etenez.

Mao Zedong presidenteak, isolaturik zeudela ikusirik, **“Aurrerako Jauzi Handia”** proposatzea ekarri zuen, zituzten indarrekin indar produktiboak garatzeko apustua. Nekazal kooperatiben berrantolaketa bat ekarri zuen, komuna handietan saretuz, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenetik, ekoizpen industrialera ere igaro zedin. Industriaren eta kooperatiben kolektibizazioak zekartzan zailtasunei hondamendi naturalak gehitu zitzaizkion eta honek historiako gosete handienetako bat ekarri zuen, milioika pertsonen heriotza ekarri zuena. 1958-62 iraun zuen saiakerak.

1966tik aurrera, Iraultza Kulturala hasi zen, ikasle unibertsitarioen, langile eta nekazari gazteen mobilizazioa izan zen, armadaren babesa izan zuena, ideia iraultzaile sozialisten, antiburgesen eta tradizio kulturalen apurketen pean. Bi irakurketa egin izan dira ekimen honen inguruan:

Baten arabera, **Maok Xiaopingek zituen erreforma ekonomiko kapitalistak egiteko asmoa gelditzea zuen helburu.** Beste ikuspegi baten arabera, **Maoren**

helburua gazteriak bere gaitasun iraultzaileen eta bere boterearen kontzientzia hartzea izan zen, autoritateari eta milaka urteetako kultura sumisoari beldurra galdu arazteko. Egitasmo honek guda eta hildako ugari ekarri bazituen ere, proiektu sozialista eta komunitario berri bat eraiki ahal izateko oinarri subjektiboak ekarri zituen, herri boterea artikulatzeko hain zuzen.

1978an “Lau Modernizazioak” hasi ziren, nekazaritzan, industrian, zientzian eta teknologian eta defentsa nazionalan, erreforma ekonomikoaren hasiera ekarri zuen: nekazaritzan kooperatiba familiarrak sortu ziren, lurak publikoak izanik. Industrian, enpresa atzerritar batzuk estatuarekin adostu ezker sartzeko erabakia hartu zen, bertako lan esku merkea ikusirik, multinazional ugarik eskua sartu zuten bertan. Hala ere, Estatuak enpresa estrategikoen jabetza publikoa mantendu zuen, horrela “Sozialismorako bide txinatarra” bezala deitzen dutenaren parte garrantzitsua izan zelarik: horrela, jabetza estatala da nagusia, jabetza sozial eta kooperatiboa hurrena eta azkenik pribatua, hau dena planifikazio sistema batekin “merkatu ekonomia sozialista” deritzona sortuz.

Erreforma ekonomiko honen ondorioa izan da Txinaren hazkunde izugarria, azpiegitura ekonomiko modernoa, teknologia eta ezagutzen garapena, eta biztanleen bizi mailaren hobetze garrantzitsu bat.

Hala ere, helburu sozialista batzuk betetzeaz gain, **estatuari eta Alderdiari loturiko burgesia txiki, ertain eta handi batzuk sortu dira, sekulako desberdintasun sozialak daudelarik.** Hainbat kontraesan sortzen ditu Txinarekikn ditugun ezberdintasun kulturalak mendebaldeko iraultzaileen artean, euren herri demokrazia ereduak gurearekin bat ez datorrelako, ama lurarekin duen axolagabekeriagatik, nazioartean dituzten politikengatik eta abar. Ezberdintasun kultural guzti hauek Txinan eredu bat ez ikustea ekartzen dute.

CUBAKO IRAULTZA

1953. Moncadako kuartela erasotu zuten uztailaren 26 batean Fidel Castro buru zuen gazte talde batek. Bihotzez eraso egin arren, galdu eta atxilotu, torturatu eta erail zituzten gazte kubatar gehienak. Fideli epaiketa egin zioten, eta **“la historia me absolverá” ospetsu horrekin, Batistaren diktaduraren amaieraren hasiera hasi zen.**

Bi urte beranduago Fidel Mexikon zegoen, bere anaia Raul eta beste hainbat iraultzaileekin bilduta, Cubara itzultzeko gerrilla txiki bat prestatzen. Granma itsasontzia 1956en lurreratu zen Playa Girón-en, 20 inguru gazterekin, tartean ere Ernesto Guevara zegoelarik.

Sierra Maestran ibili ziren, Iraultzarako deia eginez Radio Rebeldetik, eta ejertzitoaren kontra ekiteaz gain herria antolatzeari ekin zitzaion, **movimiento 26 de julioren bitartez.** Greba, enboskada, herri mobilizazio eta matxinada ezberdin ugariren ondoren, lortu zuten **Batista diktadoreak 1959ko urtarrilaren batean ospa egitea Cubatik.**

Herriak boterea hartzean gobernu probisional bat osatu zen, sozialista, demokrata kristau, komunista eta gainontzeko indar aurrerakoiekin, iraultza demokratiko gisa gorpuztu zelarik. Ordea, 1962an AEB-k Bahia de Cochinosen lurreratu ziren, Cubaren inbasioa gauzatu nahian. Herriak armak hartuta aurre egin zion inbasioari, eta horrela, etsaiaren aurrean determinazio handiagoz **Cuba estatu Sozialista izendatu zen**. Fidel ordura arte neutralagoa agertu bazen, alderdi komunistako kide egin zen Cuban benetako iraultzari bide emanaz.

Erreforma ugari planteatu ziren, nekazal eremuan, edota jabetza pribatua deuseztean. Kolonia txiki bat zen Cuba, azukrearen monokultibora kondenaturik. Baina SESBn edo Txinan ez bezala, **Cubako lehentasuna ez zen iraultza teknologiko-industrial bat garatzea, gizakia erdian jarriko zuen iraultza bat egitea baizik**. Horrela, ekonomikoki gaitasun nahiko urriak zituen herria izan arren, **Hezkuntzan, Osasungintzan, Asistentzia Sozialean eta Kulturaren egin ziren inbertsio handienak**, "gizon berriaren" sorrera ekarriko zutenak.

Cuba da munduan, aipaturiko arloetan gehien inbertitzen duen herria, eta horri esker jarraitzen du izaten munduko iraultzaile guztiontzat erreferentzia uka ezin bat. Joera dugu askotan Cuba Europarekin konparatzeko eta horrela, demokrazia, produktuen eskasia edo parekidetasunaren arlotik baloratzeko. Baina Cuba, Caribeko edo Latinoamerikako testuinguruan kokatu ezker, benetan lortu zezaketena eta lortu dutena ikusita, guztiontzako eredu izan behar duen herria da. Kontraesanak kontraesan aurrera egiten duen herria da, eraso guztien gainetik.

Cubaren eredu, Latinoamerikako testuinguruan kokatua, bertako herrientzako eredu hegemoniko bihurtu dela argi dago, batez ere gerrillen sorreran. XX.mende osoa gerrilla mugimendu guztiek Cubako ereduari zuten burua eta bihotza.

ASKAPEN MUGIMENDU ANTIKOLONIALISTAK

Azkenik, aipatua geratu dadin, XX.mendeko mugimendu iraultzaileen barruan, **askapen mugimendu antikolonialistak kokatzea ezinbestekoa zaigu**. Bigarren mundu gerra ondoren, munduaren banaketa berri bat egin zen, potentzia inperialisten artean, batetik, eta potentzia sozialisten artean bestetik. Biak noski oso helburu ezberdinekin, baina talkak eraginez mundu osoan zehar.

Herri kolonizatuek euren askapen prozesuei ekin zieten, batez ere Ingalaterra eta Frantziak oraindik mantentzen zituzten kolonien kontra. Aipatzeko garrantzitsuenak India, Viet Nam edo Argelia izan daitezke. Azken bi hauetan geldituko gara, izan ere, Txinako eredu hartuz sozialismorako bide bezala ikusten zuten inperialismoaren kontrako borroka: **"klase borrokak askapen nazionalaren forma hartzen du"**, Maoren lelo famatua.

Viet Namgo independentzia gerra edo IndoTxinako gerra, 1954ean bukatu zen, tropa frantsesen kanporaketarekin. Ginebrako tratatuaren ondorioz, ordea, bi zatitan banatua izan zen: Iparraldeko eta Hegoaldeko Viet Nam. Alderdi Komunista zen nagusi iparraldekoan eta, batasunerako deiak etengabeak ziren. Estatu Batuak

“kaskada efektuaren” beldur zirenez, Hegoaldean sartu eta inbasioari ekin zioten.

Euren harridurarako Vietnamdarrak **Viet-Cong gerrilan** ondo antolaturik zeuden, gerrilla gerraren teoria muturrera eramateko prest zeudelarik. **Erasotu eta ezkutatu, hori zen vietnamdar borrokalarien estrategia, elefante eta tigreen metaforarekin ezaguna egin zena.** Ejertzito erregular bati aurre egiteko tunel sare itzela eraiki zuten, alde batetik bestera ihes egin ahal izateko. Amerikarrak ez ziren gai izan euren nagusitasun militarrekin horren ondo antolaturiko herria garaitzeko, “bonbek ez dituzte ideiak hiltzen”. Izan ere, izugarrizko sarraskia eragin zuten yankiek, napalm edo agente laranja arma kimikoekin erasotuz herria vietnamdarra. Bigarren mundu gerran jaurti zen adina lehergailu tona bota zen urte gutxitan soilik Viet Namen, milioika eraiketa eraginez, batetik, eta bertako industria oro suntsituz bestetik. Desastre ekonomiko eta humano horri arma kimikoen gaixotasunak aipatu behar ditugu, hurrengo belaunaldi guztiek jasango dituzten deformazio guztiekin.

Amerikarrek galdutako historiako gerra bakarra Vietnamdar iraultzaileek eragindakoa da. Urte batzuk lehenago frantziar ejertzittoa garaitu zuen herri berberak, inperialismoaren kontrako ikur bihurtuz honela.

Frantziar inperialismoaren kontrako Viet Namgo garaipenak, Argeliako askapen mugimendua hauspotu zuen. **Front de Libération Nationale argeliarrak 1954ean ekin zion frantsesak kanporatzeko borrokari.** Ezinbestekoa dugu, Frantz Fanonen “les damnés de la terre” liburua ulertzeko garai horretan egin zen mugimendu antikolonialen teorizazioa. Ondorio argienetako bat **askapen mugimendu nazional eta sozialaren batasuna izango ziren,** baina nolabait, Moscutik zetorren marxismo dogmatikotik ihesi. Honek, mugimendu iraultzaileei freskotasuna ekarri zien, horregatik erradikalismoa galdu gabe.

1962an herri argeliarrak tropa eta kolono frantsesak kanporatzea lortu zuten, independentzia lortuz. **1963ko konstituzioan Argeliaren orientazio sozialista onartu zen.** Ben Bella presidenteak frantsesek abandonaturiko enpresak nazionalizatu egin zituen, sozialismo eredu arabiar bati hasiera emanez, enpresen autogestioan oinarrituta. Nekazal erreforma bat egin zen baita emakumeon askapenerako hainbat urrats eman, bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko neurriak bultzatuz, baita alfabetizazio kanpaina garrantzitsu bat egin ere.

1965eko ekainaren 19an ordea, estatu kolpe militar batek boteretik kendu zuen Ben Bella eta 10 urtez baino gehiagoz izan zen espetxeratu. Estatu kolpeak ejertzitook boterea hartzea ekarri zuen. Nahiz eta sozialistak kontsideratu ziren, erreforma ezberdinen bitartez bidea ireki zioten pribatizazio eta neurri kapitalistei.

Herri argeliarraren askapen prozesuak iraun zuen hamarkadan Frantses estatuak inperialismoaren kulturari men eginez muturreko biolentziaren bidez geratu nahi izan zuen. Mugimendu subertsiboen kontrako gerra sortu zen horrela: Gerra iraultzailearen edo gerra subertsiboaren teoria.

Gerrillen gerraren teorizazioak ikasiz “iraultzaileak herria behar du arrainak itsasoa bezala” tesiari jarraituz, arraina itsasorik gabe uztea da helburua, herririk gabe, alegia. **Beraz xedea ez dago soilik borroka frontean, leku guztietan baizik.** Heriotza-eskuadroiak sortuko dira horrela, tortura eta desagertzeak eragingo dituzten elitezko parakaidistak, hain zuzen. 27.000 atxilotu erregistratu ziren garai batean, baina 4.000 soilik zeuden espetxeetan. Gainontzekoak itsasoak itzultzen zituen...

Gerra Subertsiboaren teoria Argelian sortzen hasi zen, baina ez zen nahikoa izan herriaren nahien gainjartzeko eta iraultza egitea lortu zuten. Ordea, hurrengo urteetan, estatu frantsesak eta Amerikar Estatu Batuek, teoria hau garatu zuten, gerrillen gerraren teoria erabil ezin bihurtuz.

Izan ere, mugimendu iraultzaileen estrategia militarren historia azkar bat egingo bagenu, ikusten dugu nola nekazariak, XVII eta XVIII mendeetan lurren okupazio, greba, matxinada edo bestelako legearen kontrako jardunekin, nahikoa zuten lege konkretu batzuk atzera bota edota azken batean, boterea lortzeko. Ejertzito erregularrak sortu zirenean, ezinezkoa zen horrela garaitzea, eta ejertzito errebeldeen bidez estatuaren boterea eskuratzeari ekin zitzaion. Teknologia armamentista garatu ahala, ejertzito errebeldeek ez zuten zer eginik erregularren kontra eta gerrillen teoria sortu zen: herriaren babesa ardatz eta enfrentamendu zuzena ekiditen zuena. Ordea, 70 eta 80. hamarkadetan, gerrillen teoriari aurre egingo dion teoria eta praktikak garatu dituzte estatu kapitalistek, satelite bidezko kontrolerik hasita, gerran komunikabideek duten garrantzia, terrorismo eta gerra zikineko ekintzetaraino, ezinezko eginez inolako iraultza armatu.

XX mendearen ondorio gisa, ikus dezakegu Sozialismora heltzeko teoria ezberdinak jarri direla martxan, hau da, herri bakoitzak bere bidea asmatu behar izan duela. Ez dago iraultza mota bat ez eta sozialismo eredu bat, baliagarria dena bi herrietarako. **Herri bakoitzak gure bidea egin behar dugu gainontzeko herriengandik ikasiz.** Beraz, Sozialismora antidogmatismotik heldu gaitzeko soilik.

Galderak:

- 1) *Marxismoaren sorrerak zein aldaketa ekarri zituela esango zenuke?*
- 2) *Uste duzu egun baliagarria dela jendartea interpretatzeko metodo bezala?*
- 3) *Zer aldatu da azken 150 urteetan marxismoari eta iraultza sozialistei esker?*
- 4) *Aipaturiko iraultzak ezagunak zaizkizu? Zer gehituko zenuke esandakoari?*
- 5) *Egun nola zaizkigu baliagarriak?*
- 6) *Beste zein iraultza aipatuko zenituzke?*

Bibliografia:

CASTRO, FIDEL (1953): ***La historia me absolverá*** <http://aristobulo.psuv.org.ve/wp-content/uploads/2008/10/castro-fidel-la-historia-me-absolvera-discurso-16-de-octubre-de-1953.pdf>

ENGELS, FRIEDRICH (1880): ***del Socialismo Utópico al Socialismo Científico*** http://www.dominiopublico.es/libros/E/Friedrich_Engels/Friedrich%20Engels%20-%20Del%20Socialismo%20Ut%C3%B3pico%20al%20Socialismo%20Cientifico.pdf

FANON, FRANTZ (1963): ***Los condenados de la Tierra*** (txalaparta)

GUERRA, SERGIO & MALDONADO, ALEJO (2009): ***Historia de la Revolución Cubana*** (Txalaparta)

LENIN, V.I (1916): ***Imperialismo fase superior del capitalismo*** <https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/oe12/lenin-obrasescogidas05-12.pdf>

MAO ZEDONG (1968): ***Cinco Tesis Filosóficas*** <http://www.ciudadoriental.com/cincotesisfilosoficas.pdf>

5.

***BERREGITURAKETA
KAPITALISTAK***

KEYNESIANISMOA ETA “ONGIZATE-ESTATUA”

Ikusi dugun bezala, kapitalismoak garapen eta egokitzapen fase ugari izan ditu, batzuk barne garapenak eraginda, beste batzuk kanpo faktoreen ondorioz, izan gerrateak, izurrite edo desastre ekologikoak... baina ezin dugu albo batera utzi historiaren aldagai nagusia, klase borroka bera, hain zuzen. **Kontrakoen batasunean garatu izan dira sistema ekonomiko eta politiko guztiak gaur egun arte: hau da, interes kontrajarriak dituzten giza taldeen arteko talkan.**

Esan bezala Sobietar Batasunaren ondoren, ezer ez da berdina izango. **Mundu osoko langileriak, nork bere errealitatetik, mundu berri bat eraikitzeari ekingo dio, gizateria osoaren emantzipazio ideiekin saiakera ugari egingo direlarik.** Bigarren mundu gerraz geroztik, bloke sozialistaren sorrerarekin gainera, iraultza deiek gora eta gora besterik ez dute egingo.

“Ongizate-estatu” edo Estatu keynesiarra bigarren mundu gerraren osteko erreformekin agertu zen da Europako herrialdeetan. Gerran parte hartu eta kaltetuak izan ziren herrialdeen berreraikuntzaren beharrez estatuak izandako interbentzio handiarekin beraien izaera eta funtzioak aldatu egin ziren eta honek, gaitasun ekonomikoaren handitzea ahalbidetu zuen, ongizate-estatuari bide emango zioten erreformak indartuz. **Etapari historiko berri honek estatuaren aurretik zuten rol politiko eta ekonomiko aldatu egin zuen.**

1929ko Crack-a ekarri behar dugu gogora ere: gauetik egunera, bizi osoko aurrezkiak galdu zituzten milaka lagunek, erbestera joanak, buruaz beste egiten zutenak... krisi itzel horren antidoto bezala, estatuak ekonomian parte hartzeko beharra ikusi zen. **Ez zen kapitalismoaren amaiera, baina bai garai baterako “lasseiz-faire” edo “dejar hacer”-aren amaiera,** Keynesek esan bezala.

Arlo ekonomikoan Keynesek liberalismoak ez bezala, merkatuak ezin zuela bere burua erregulatu uste zuen, eta **estatuak gizartearen eta baita merkatuaren ere esku-hartzea izan behar duela defendatu zuen,** horrela langabezia desagertuko litzatekeela baieztatuz eta horretarako gastu publikoaren eta presio-fiskalaren areagotzeak beharrezkotzat jotzen ditu.

“Ongizate estatuaren” sorrera ekarri zuen honek: **Sozialismoaren aurrean alternatiba kapitalista bat.** Gastu publikoaren areagotzea, herritarrei segurantza sozialeko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea, zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera... Hau da, **“Ongizate-estatuak” kapitalismoaren aurpegi bortitza estali nahi dute herritarrei oinarriko kontsideratzen diren zerbitzuak eskainiz.** Hala ere, “erosotasun” horren bitartez injustizia sozialen areagotzea bermatzen du sistema ekonomiko honek, kapitalaren akumulazioa babestu eta kapitalisten eta langileen arteko gaitasun ekonomiko ezberdintasunak handitzen dituen bitartean.

“Ongizate-estatu” keynesiarraren beste ezaugarri bat Demokrazia liberalak dira. Partidu politikoen errepresentazioen bitartez eta herritarren bozka-eskubidearen bitartez parte-hartze politiko zuzena mugatu eta herritarren interesei erreparatu

gabe gizartearen eta merkatuaren gaineko eskubideak herritarron ordezkari omen direnen gutxi batzuen esku uzten ditu. **Estatuak beraz, partidu politikoen beharren arabera antolatzen dira eta gizartearen zein ekonomiaren gaineko erabakiak elite burokratiko baten esku monopolizatzen dituzte.** Beraz, herritarrek politikaren gaineko “erabakiak” har ditzakete (bozka bidez), baina inoiz ez ekonomiari buruzkoak. Estatuak, eta egitura supra estatalek hartzen dituzte erabakiok.

Ikuspegi feminista batetik, irakurketa ere bestelakoa da. Ekonomista feminista askoren aburuz, **Estado de Bienestar beharrean, Estado de Malestar deituko beharko genuke gizarte antolaketari.** II Mundu Gerraren testuingurua aipatu behar da emakumeen papera ulertzeko. Gerran zehar, emakumeek berebiziko papera izan genuen. Ez ginen gerrara joan fusila eskuan hartuta, hori gizonei esleitutako papera izan baitzen. Ordea, gure herrietan geratu eta hauen kudeaketa, garapena eta superbibentzia emakumeon esku geratu zen. Hau da, emakumeak lantegietan sartu ginen lan produktiboak egitera, politikan parte hartze aktiboagoa eskuratu genuen, ordura arte debekatuta izan genuen eremu publikoaren jaun eta jabe egin ziren gizonak gerran zeuden bitartean. Honek izugarrizko ahalduntzea suposatzen zuen guretzat.

Gerra amaitzerakoan, behin gizonak gerratik itzuli, emakumeoi “etxera itzultzeko” esan ziguten, eremu publikoa geure tokia zen soilik gerra bezalako salbuespeneko egoeratan. Honek emakumeontzat atzerapauso larria suposatzen zuen, emakume figura berri bat hedatzen zihoan momentuan, “emakume modernoaren” figura hain zuzen ere.

Are gehiago, Ongizate Estatua garatzeko ezinbestekoa izan zen lanaren sexu bereizketa bortitza: “enplegu osoko” gizarte gisa irudikatu den hori, soilik gizonen enplegu osoko gizartea izan da, emakumeak etxeetan lan ezkutuak egiten ibili baitira. “Ongizate Estatuan” gainera, eskubideak lan merkatuan duzun paperaren arabera dira, emakumeek lan merkatuan parte hartzerik ez duten heinean, eskubide sozial gutxiago dituzte, euren senarren lanetatik eratorritakoak hain zuzen ere.

NEOLIBERALISMOA:

KAPITALISMOA ETA ASKATASUNA

Ongizate estatuen *lasseiz-fairearen* kontrako politikek eta aberastasunaren banaketak, emaitza onak eman zituen bai estatu eta bai enpresentzat, alde batetik, eta baita ere, langileen bizi baldintzak hobetzeari begira, bestetik. Ordea, multinazionalen buruek askoz gehiago zuten irabazteko, eta aspalditik Milton Friedman eta enparauen ideiak praktikan jartzeko tenorea zen.

1950ean Chicagoko unibertsitateko ekonomia fakultatean, neoliberalismoaren ideiak gorputza hartzen joan ziren. Friedman buru zutela, pentsamendu eskola kontserbadore eta guztiz kapitalista sortu zen, helburu argi batekin: koadro ekonomiko eta politikoak sortzea, iraultza neoliberal aurrera eramateko.

Milton Friedmanek Kapitalismoa eta askatasuna liburuak idatzi zuen, merkatu librearen manuala bihurtuko zenak, ondorengo errezetak garatu zituen: **Hasteko irabazien akumulazioa zailtzen duten arautze eta erregulazioak ezabatuak izan behar dira**. Bigarrenaz, **irabaziak sor ditzakeen aktibo guztiak saldu behar dira**. Eta hirugarrenaz, **programa sozialei bideratutako aurrekontu guztiak eten behar dira**. Formulak hiru zati ditu beraz: **desregulazioa, pribatizazioa eta murrizketak**.

Zergak egotekotan, baxuak izan behar dira, bai aberats eta baita txiroentzat, biek tasa fijo bera ordaindu dezaten. Enpresek munduko edozein tokitan, haien produktuak saltzeko eskubidea izan behar dute, eta aldi berean gobernuek ezingo dute bertako industria eta enpresa txikiak babesteko politikarik erabili. Prezio oro, lan indarrarena barne, merkatuarengandik ezarriak izango dira, horrela, soldata minimorik ez litzateke existituko. Friedmanek proposatzen zuen Hezkuntza, Osasungintza, Pentsioak, Parke Nazionalak... eta abar pribatizatzea. Finean, estatuaren parte hartzea ekonomian desagerraraziz, dena kapitalisten legeen arabera erregulatuko litzateke. Indartsuenaren legea.

Neoliberalismoa edozein herrialdetan garatzen hasteko "patroi" ekonomiko eta politikoak oso antzekoak dira, horregatik hain zuzen ere AEB-etako neoliberalismo eredia ikertzea mundu osoko erreforma neoliberalak aztertzeko eta ulertzeko aproposa da, AEB-tako prozesua izan daiteke eta beste herrialde guztien erreforma prozesuaren "kanona". Neoliberalismoaren ezaugarriak honako ezaugarri hauek ditu oinarri:

- 1) Komertzio kapitalistaren eta merkatu finantzieroaren desregulazioa, maila nazional eta baita maila internazionalen ere.
- 2) Erreformak egin arte Estatuaren eskumen izan ziren zerbitzu publikoen pribatizazioa.
- 3) Estatuaren merkatua erregulatzeko eta baldintzatzeko gaitasunen eta eskubideen galera, batik bat enpleguari dagokionez.
- 4) Gastu sozial edo publikoan murrizketa basatiak.
- 5) Enpresei eta familia instituzioei dagozkien zergen murrizketa.
- 6) Gobernuaren eta enpresa pribatuen aldetik sindikatuenganako eraso zuzenak: boterearen desplazamendua kapitalaren alde, langileen kondizioak eta eskubideak negoziatzeko gaitasuna ahulduz.
- 7) Lan finkoen desagertze prozesua eta hauen ordez denboraldi laburreko lan kontratuen agerpena.
- 8) Enpresa handien arteko kompetentzia areagotzea.
- 9) Gizartearen eta herrialdeen kudeaketa politikoaren desplazamendua: estatuen gaitasun politikoa gutxitu eta enpresa zein erakunde pribatuen botere politikoa handitu.

NEOLIBERALISMOAREN SORRERA

70.hamarkadan erreforma eta politika neoliberalen aurpegi publikoak izan ziren Margaret Thatcher eta Ronald Reagan... Nola ahaztu Thatcher eta Pinochet-en argazkia edota Thatcher bera Reaganekin dantzan. Beraiek izan ziren garai hartan

hurrengo urte luzeetarako ia mundu osoko jolas mahaia zehaztu zutenak, beraiek izan ziren neoliberalismoa lehen aldiz legitimazio osoarekin aplikatu izan zutenak.

Baina neoliberalismoa ez zen horren berria. 1929. urtean New Yorkeko burtsan eman zen krisialdiari aurre egiteko mekanismo modura proposatua izan zen 1930. urtean. Garai horretan ordea, ongi antolaturiko langileriak ezin zuten hori ere planteatzea pentsatu ere. Ideia horiek gordeak izan ziren, hurrengo krisialdirako prest egon zitezten.

Krisia etortzeaz zela, Shockaren doktrinaren bidez, esperimentu ekonomiko-politiko bat ezarri zen Salvador Allenderen Chilen. Pinochet diktadoreak, mugimendu iraultzaile demokratiko berria tortura eta terrorearen bidez desagerrarazi zuen. Aurretik ikusi ditugun Frantziako heriotza eskudroiek eta gerra subertsiboaren teoriak ere bertan esperimentatu ziren, Escuela de las Americas terrorismoaren agentzia sortuz honela. Noski, CIA eta Britainia Handiak babestu eta akuilatu zuten estatu kolpea izan zela.

Baina inperialismoaren morroietan, arriskutsuenak Chicagoko Eskolan formatu ziren ekonomista txiletar talde bat zegoen: **Chicago Boys-ak**. Friedmanen doktrina ekonomikoekin Pinocheten diktadurako programa ekonomikoa diseinatu zutenak, hain zuzen.

Gertutik jarraitu zuten Thatcher eta Reaganek, **Chileko esperientzia, hori baitzen hurrengo hamarkadetan inposatu beharreko ekonomia eta ideologia erdua**. Izan ere, ikusi dugun bezala, XX mende osoan zehar mugimendu iraultzaileen gorakadak ezkerren hegemonia erakusten zuen. Ikasleria eta esparru intelektualean, batez ere, mugimendu anticolonialistek sortzen zuten sinpatia eta atxikimendua izugarria zen. Cuba, Txina eta Viet Nam mundu osoarentzat ikur ziren, 68ko maiatzetako iraultzetan ikusi zen bezala. Hegemonia horri aurre egin behar zitzaion esparru guztietatik: akademia, arteak, historiagintza, politika... Chicago Boysek hasiera iragarri zuten.

Erresuma Batuan, neoliberalismoaren ezarpena, Malvinetako gerren testuinguruan eman zen. Gerra guztiz antzua bai geopolitikoki bai ekonomikoki ere, baina ez hain antzua shockaren teoriaren ikuspegitik.

NEOLIBERALISMOAREN KONTRAESANAK

Neoliberalistek ekonomiari dagokion mugimendu askatasuna aldarrikatzen dute; mugimendu eta parte-hartze askatasun honek merkatuen eta komertzioaren liberazioa edo araurik gabeko parte-hartzea bultzatzen du. **Hortaz, merkatuaren desregulazio baten ondorioz ekonomian (merkatu kapitalistan) pertsona orok mugarik gabe komertzializatzeko aukera izango luke**. Eduardo Galeanok argi sintetizatzen zuen: *"Con el dinero ocurre al revés que con las personas: cuanto más libre, peor"*.

Beraz, Kapitalen eta merkantzien garraioa eta desregulazioaren ondotik, gizakion

garraio eta erregulazioa dator. Neoliberalismoa da mundu mailan migrazio kontrol eta politikak gehien zorroztu dituen sistema.

Hemen ikusten dugu Kapitala eta Estatuaren arteko ezkontza. Teorian liberalek estatuaren parte hartze minimoa eskatzen dute. *Laissez Faire* osoa omen da, askatasun totala. **Baina errealtatean, uste dugu neoliberalismoa eta estatua uste baino askoz ere elkarrekin lotuagoak daudela.** Guattari eta Deleuzen “kapitalismoa ez da inoiz izan liberala, beti izan da estatu-kapitalismoa”, famatua etortzen zaigu gogora. **Estatua eta Kapitalaren arteko ezkontza da neoliberalismoaren oinarria, Friedmanek kontrako iragarri arren.**

Beraz “gehiegi gobernatzen dela”, “irrazionala gehiegi gobernatzearen ondorio dela” eta ondorioz “ahalik eta gutxien gobernatu behar dela” tesiak faltsutzat eman ditzakegu. **Gobernu neoliberalak gobernuen teknika autoritarioen zentralizazio eta biderketa bat ekartzen du.** Demokrazia saltatzeari ekin diote beraz, estatu neoliberalak (edo neoliberalak estatuan), merkatuaren logikaren arabera jardunez.

AEBetan espetxe pribatuak egoteak ideia hau defendatzen du. Izan ere, zigor sistema izanik edozein estaturen tresna nagusietako bat, bere legeak aurrera eramateko, hauek esku pribatuetan uztea, gobernatze eredu neoliberal baina ez da. Hau da, estatua omnipresentea da eta hau irabazi kapitalisten mesedetan dago, merkatu nitxo berriak zabalduaz eta horretarako klase borrokan parte hartuz.

Soberania kontzeptu berri baten agerpena genuke: Estatu ekonomia, botere politikoa eta kapitalaren boterea bereizezinak liratekeenak. Izan ere errepresentazio sistema bere horretan zeharo ahulduta ageri zaigu (batez ere azken krisialdia eta gero), jendeak bozkaturakoa ez bada kapitalaren interesei lotzen jai dauka. Ikus bestela Irlanda, Grezia edo Italia. Gauetik egunera teknokratek hartu dituzte estatuaren aginte gela guztiak, Fondo Monetario Internazionalak eta Europako Banku Zentralaren agindu zuzenaz. Eta zer esanik ez estatu espainol eta frantsesean. Lehman Brothers eta Goldman Sachs-etik zuzen-zuzenean etorritako ekonomia ministro edo politikariak horren adibide baina ez dira: Mario Draghi, Mario Monti, Lucas Papademos, Luis de Guindos, Antonio Borges...

Ikusi ditugun azken bi eredu hauek (gaizki-izate estatua eta neoliberalismoa) kontrajarriak diruditen arren, Burgesiaren proiektua ez da sekula aldatu: orain arteko Ongizate estatuak botere harreman baten aitortza besterik ez du egin. **Beraz neoliberalismoa ez da fase berezi bat, salbuespen edo krisi politika bat, bere ezaugarri bereziekin... kapitalismoa da bere horretan, bere purutasunean, kontrahegemonikorik ez duen proiektua.** Burgesiaren maskararik gabeko proiektua, hain zuzen. Harrapakerien proiektua.

SOBIET BATASUNAREN ERORKETA, MUNDUAREN AMAIERA

Neoliberalismoaren doktrinen gorakadak eta kontsumismoaren bizi ereduak, eman zituzten beren fruituak. Globalizazioaren aroan, herri guztietako kultura homogeneizatzea ekarri zuen. Hollywood eta industria musikala izan ziren, tresna

kultural ezinbestekoak, Europa, Latinoamerika eta Afrikan, batez ere, American Dream-a inosatzea. Bloke Sozialistara ere iristen ziren kontsumismoaren lilurak, Nike zapatilak eta pornografia industrialak.

Sobietar Batasunean, Perestroika garaia hasi zen 80.hamarkadan, erreforma ekonomiko eta politiko sakonak proposatzen zituenak, sozialismo ereduari zegokionean. Ordea, **buokratizazio maila handiek, eta urteetan zehar herri masen parte hartze mugatuaren ondorioz, perestroikak Sobietar Batasunaren erorketa ekarri zuen.**

Francis Fukuyamak "historiaren amaiera" famatua iragarri zuen. Ideologien garaia garaituta, klase borrokak garaituta, soilik kapitalismoaren garapen natural eta harmoniatsua geratuko zen.

Kapitalismoaren alde harrapakariena agertu zen ordea: Errusian, Polonian, Alemanian... Baina baita Txina edo Hego Afrikan, politika neoliberalerik esker, kapitalistek, enpresa, zerbitzu eta lurak bereganatu zituzten, ia debalde. Multimilionarioen aro berri bat hasiko da, neoliberalismoaren hamarkada zoriontsua.

Maila ekonomikoan, mundu osoan politika kapitalisten hedatzeak, argi eta garbi langileen bizi baldintzen kontra egin zuen, Afrika, Asia eta Latinoamerikan neurri inosatzaile berriak ezarriz, prekarizazio eta pobrezia egoera are eta gehiago okertuz. Gainera, bloke sozialistaren erorketak, mundu mailako botere harremana eraldatzeaz gain, beste ondorio traumatiko bat ekarri zuen mundu osoko mugimendu iraultzaileentzat.

Egia da Alderdi Komunisten indarra asko jaitsi zela azken hamarkadetan, batez ere Europan. 68ko erreboltek maila teorikoan eragin handia izan zuten, mugimendu feminista, autonomo, ekologista, eta abarren sorrerarekin, adibidez. **Proletalgoaren diktadura, eta alderdi komunisten aitzindaritza papera oso higituak ikusten ziren. Horri gainera, alderdi hauetako burokratek herri mugimenduekin zuten harreman kaxkarra zela eta, sozialismoko teoria klasikoetatik urrundu egin zuen langileria.**

Hala ere, nahiz eta SESB ez zen "eredu ideala" mugimendu gehienentzat, jende guztiak ikusten zuen bertan mundua beste modu batean eraikitzeko aukera, mundu berri baten aukera. Gainera, ildo horretan SESB-n laguntza eta babesa mugimendu eta estatu iraultzaileekiko argia zen.

Beraz, eredu baten galerarekin batera iraultzak egiteko aukera errealak ere galdu zirela zirudien. Marxismoa, azken 150 urteetan mundu osoko langileria eta askapen mugimenduen hizkuntza izatetik, lotsatzeko objektua bihurtu da, satanizatu eta margintzeraino. Batez ere Europan, baina baita munduko toki ugarietan, moda ideologiko pseudoiraultzaileak besarkatzen hasi ziren mugimendu gehienak, edozein proiektu iraultzaile bizkarra emanez.

KAPITALISMOA KRISIA DA

Baina urte gutxiren bueltan kapitalismoaren amets hezeek lurra joko dute. 92an Venezuelan altxamendua izan zen Hugo Chavezekin, 94 Mexikon Zapatistekin. Biek iraultzarako paradigma berriak proposatuko zituzten urte gutxiren bueltan: **XXI. mendeko Sozialismoa eta estatuaren boterera eskuratu gabe boterea sortzea**, bai anarkismoaren dogmatismotik ihesi. 98an ere Seattleko bataila bezala ezagunean antiglobalizazio mugimenduaren sorrera hasiko da, urte gutxitan foro sozial altermundistetan hartuko duena gorputza.

Neoliberalismoak, noski etsai ugari sortuz joan da, disidentziak han-hemenka sortzen joan dira, baina aipaturiko ezkerren noraezaren barruan proiektu hegemonikorik sortzeko aukerarik gabe, gutxienez, mendebaldeko kulturetan.

Hala ere, Bushen eta Aznarren festek irudikatu zezaketen kapitalismoaren urrezko hamarkadak ez zuen asko iraungo. Azken krisi ekonomikoaren ezta, "American Dream"-a eta kapitalismoaren hegemonia leherraraziko du.

Subprime hipoteken krisia lehertu zen **2008ko udazkenean, Wall Streeteko inbertsio banku nagusien desagertzea ekarri zuen**, horien artean sinbolikoena Lehman Brothers izan zelarik. Kredituen merkatu globalak izoztu egin ziren, baita mundu osoan zehar zeuden edozein bankurenak ere. Hilabete gutxitan sistema bankariotik kanpo zabaldu zen, zorren jabeek adibidez. Seguru etxeak eta mota orotako industriak etorri ziren jarraian, banan banan izuarekin batera hedatzen zirelarik mota orotako kiebrak.

Wall Streetek 700.000 milioi dolarretako erreskatea exijitu zion Estatu Batuetako gobernuari, baina honek (aberats batzuen pribilegioak mantentzen laguntzeaz gain) ez zuen deus ere lortu. Diru efektiboa falta zen, eta aldi berean etxe, ofizina eta denda andana salgai, ekoizpen gaitasun soberakin batekin eta lehen baino lan indar gehiagorekin soberan.

Krisi ekonomiko mundial hau ez da, 70. hamarkadatik hona egondako bakarra, tartean Asia, Errusia, Argentina edo Japonen izan dituzte finantza krisi larriak. **Azken honek ordea, fase oso baten amaiera ekar dezakeela erakusten digu.**

Krisi ekonomiko latz honek, beste hamaika krisirekin egin du talka, egoera benetan okertuz. Azken hamarkadotako "ongizate ilusioa" hamaika zatitan birrindu egin da, atzean zeuden arrisku eta miseriak agerian utziz:

Feminismotik zein marxismotik noski, kapitalismoaren krisi finantzarioaz aurretik sistema bera krisi larrian zegoela seinatu izan da. Hain zuzen ere, krisi ekologikoa, erreproduktzio krisia eta zaintza krisia larriak baitziren. Hegoalde globalean, pertsonen beharrezkoak asetzeko baliabide guztiak mendebaldarrek ustiatuta, bizitza aurrera egiteko aukerak eskasak dira (elikagaien krisia kasu), populazioa migratzera behartuz. Horretaz gain, krisi ekologiko globalak sortutako ondorioak pairatzen ari gara ere (klima aldaketak, espezieen desagertzeak...),

garapenaren ideia eta produkzioaren mitoa zalantzan jarritz. Azkenik, iparralde globalean zaintza krisi bortitza dugu: populazioa gero eta zaharragoa den honetan, zaintza beharrak gero eta handiagoak dira, emakumeak lan merkatura sartu dira “berdintasun faltsuaren” efektua geure haragitan pairatuz. Izan ere, gizartea “gizon etxeko burua/ ama etxeko andrea” egitura berdin jarraituko balitz funtzionatzen jarraitu du, hortaz, emakumeen arazo indibiduala da lan merkatura sartu baino lehen geure egoera familiarra alde aurretik “konponduta” izatea. Honek lan merkatu prekarioari bide berriak ireki dizkio: emakume migranteak ekonomia ez-erregulatuan zaintza lanak burutzea. Arazoa beraz, emakumeon artean afera jarraitu du izaten, baina klase eta arraza elementuak gehituz: emakumeen arteko zapalkuntza egoerak sortuz.

Finantza krisia lehertzean, zaintza krisia areagotu da: zaintza lanen kargak arindu zezaketen zerbitzu publikoak bortizki murriztu dira (osasuna, hezkuntza, dependentzia legea,..) eta familiek dagoeneko ez daukate diru nahikorik merkatu ez-erregulatuan emakume migranteak kontratatzeko. Hortaz, krisiaren desajusteak etxeetan, familietan eta batez ere emakumeen eskuetan geratzen ari dira. Agerian geratu da feminismotik azpimarratzen zuen ideia, sistema honen kontraesan nagusia kapitala eta bizitzaren artean dagoela, alegia. Kapitalismoaren helburua ahalik eta kapital gehiago metatzea da bizitza sostengatzen dituzten prozesu guztiak mesprextatuz, pertsonak esplotatzen ditu, erail, natura suntsitu...

Bazuen arabera, krisi hau parentesi bat baino ez da, amaitzean kapitalismoaren garapenak bere horretan jarraituko duela. Baina ezinbestekoa da ulertzea ezetz, **hau ez dela parentesi bat**, salbuespen bat kapitalismoan. Krisi hauek berezkoak dira, ezinbestean ziklikoki sortzen direnak, hazkunde eta kompetentziaren ondorioz, indar produktiboen garapena kapitalisten mesedetan egotean, behar sozialekin kontraesanetan jartzean. Krisi honek ordea fase baten amaiera ekarri du.

EGUNGO EGOERA

Beraz, Kapitalismoa erortzear al dago? Ez, noski. Ezta gutxiago ere. Kapitalismoaren krisiak gehiengoaren bizi maila okertu badu ere, gutxiengo batena biderkatu eta hobetu egin du. **Kapitalismoaren logika ederki dabil beraz.**

Boterearen eta aberatsen kontzentrazio bat ekarri du azken krisiak, eta demokraziaren ahultze bat, merkatuen diktaduren mesedetara. **Estatuak ordea, indartuak atera dira, batez ere maila errepresiboan eta FMI bezalako instituzioen aginduetara jarduten dute** orain inoiz baino ageriago. Hezkuntza, Osasungintza, ura... etengabe eta mundu osoan zehar pribatizazio prozesu larrietan dago. Gainera, pribatizatzen ez diren zerbitzuetan diru gutxiago inbertitzen da. Terrorismoaren kontrako eta protesten kontrako neurriak zorrotzen dira, eskubide zibil eta politikoak murriztuz. Pertsonen migrazioa erregulatzeko beharra zabaltzen ari da... **Finean: desregulazioa, pribatizazioa eta murrizketak.**

Ezaguna egiten? Shockaren doktrinaren bidez, errepresioa erabiliz, doktrina neoliberalak ezartzen ari da mundu osoan zehar. Krisi kapitalista beharrean,

eraldaketa edo birformulazio kapitalista deitzea agian hobe litzateke. **Kapitalismo-patriarkarraren ideologia eta sistema mundu osoan inposatzeko fasean gaude beraz.**

Hemen kokatu dezakegu ere kontserbadurismotik hartu nahi dituzten neurriak: abortuaren kontrako lege erreforma kasu. Berriro ere emakumeen gorputzak kontrolaturik mantendu nahi dituzte (orain arte izan dugun kontrola areagotuz), erreprodukziorako makinak nahi gaituzte, sistema mantentzeko ezinbestekoa delako.

Baina, hau horrela al da? Ez al dago alternatibarik?

Hegemonia kapitalistak azken urteetan higadura handia izan du, politikari eta bankeroen etika faltak, mendebaldeko kultura “demokrazia zalearekin” talka egin du. Baina ez dago Europan langile herriaren interesak defendatu eta proiektu iraultzaile komun bat aurrera eramango duen proposamen zehatzik. Kontrara, eskuin aldetik mugimendu faxisten sorrera handitzen ari da, 30 hamarkadako testuingurura itzuliaz zenbait eremutan.

Baina badaude disidentziak. Eskerrak ez dugula dena mendebalde lobotomizatu honetan jokutzen. Latinoamerika da ezbairik gabe, egungo iraultzaileok begiratu beharreko eredia. Cubaren duintasuna ipar, **Venezuela, Ecuador eta Bolivian martxan dauden prozesuek, mundu osoko Langile Herrien askapen prozesuentzat eredu dira.** Herri bakoitzak bere bidea eginez, ereduak bilatu behar ditugu, eta **langileontzako, herri zapalduontzako eta emakumeontzako autonomia eta autogestio prozesu diren Latinoamerikako herriei arreta berezia eskaini behar diegu.**

Zentzu honetan, ezin dugu aipatu gabe utzi Latinoamerikako herrialde indigenetatik egiten den proposamena: **“ongi bizitzeko” proposamena**, hain zuzen ere. **Feminismoa, sozialismoa eta ekologismoa eskutik helduta, bizitzaren jasangarritasuna (pertsonena, herriena, naturarena) bermatzeko prozesuak gizartearen erdigunean jartzeko apustua dugu.** Baina honek galdera eta eztabaida pila bat mahai gaineratzera eramaten gaitu: desazkundera noraino nahi dugu? Zeintzuk dira beharrian minimoak? Minimoa baino gehiago nahi dugu? Beharrian eta desioen arteko oreka bilatu behar dugu? Zer da ongi bizitzea? Nola kolektibizatzen eta demokratizatzen ditugu bizitza sostengatzeko prozesuak? Hona hemen Amaia Perez Orozco eskaintzen digun gogoeta:

“Oraingo egiturarekin, bizitzari eusteko ardura ez da kolektiboa, baizik eta pribatua, etxe barrukoa eta ezkutukoa. **Guk, berriz, hau nahi dugu: ongi bizitzeko ardura demokratizatu eta kolektibizatu** (...). Orain alderantzizkoa egiten ari gara: urgentziazko neurrien bila ari gara, eta horrek funtsezko eztabaida sortzea eragozten du. Baina konturatu behar dugu oraingo sistema perbertsoa dela erabat. Perbertsio etikoetako bat da giza bizitza beste guztiaren gainetik jartzen dugula, eta uste dugula dena, planeta osoa, dagoela haren zerbitzura. Eta ez dugu ikusten hori gabe ez dagoela bizitzarik, ezta giza bizitzarik ere.

Beste perbertsio bat da norberak bere burua aski duela, inork ez duela beste inoren beharrik. Sinestarazi digute gizakia beregaina dela, eta ez gara ohartzen bizitza hauskorra dela, eta ingurukoekin dugun elkarrekintzari esker eusten diogula. Elkarrekintza hori onartu egin daiteke edo ezkutatu, orain egiten den bezala; eta izan daiteke simetrikoa edo asimetrikoa, hierarkikoa.

Alegia, **ez gara konturatzen naturaren menpeko eta elkarren menpeko garenik**. Hortik hasi behar dugu, ohartzetik bizitza hauskorra dela, eta zaindu egin behar dela. Eta, hori jakinda, lehen esandako bi galderei erantzuteko eztabaida ireki behar dugu: zer den ongi bizitzea, eta nola kudeatuko dugun horretarako behar diren baldintzak sortzeko ardura kolektiboa. Kontua da galdera horiei erantzuteko eztabaida demokratikoa ireki behar dela, eta orain dugun egituraren barruan hori ezinezkoa da. Hortaz, lehen-lehenik, gai horiek eztabaidatzeko espazioa sortu behar dugu, baina zertarako jakinda. Horretan ari gara oraintxe” .

Feminismoak eskaintzen dizkigu egun, proiektu askatzaileak pentsatzeko oinarrizko galderak.

Ezin dugu ere aipatu gabe utzi, mundu mailan sortzen ari den polarizazio berria. Askok BRICS delakoen (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) sorrerak hegemonia berri baten sorrera ekar dezakeela uste da. Nahiz eta askotan, bost potentzia emergente hauen eragina puzteko joera dagoen, Txina munduko lehen potentzia ekonomikoa izatea ezin dugu ahaztu. Lehen aldiz XX.mendeaz geroztik, AEBk euren nagusitasun ekonomikoa zalantzan dute.

Oraindik ordea, kapitalak egingo du bere guda eta testuinguru horretan ulertu behar dugu ere TTIP akordioaren balizko sorrera. *Transatlantic Trade and Investment Partnership* Europaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza askeko hitzarmena da. Kapitalismoaren historian askea hitzak dituen konnotazioak ikusirik, ondoriozta dezakegu zer esna nahi duen honek, ezta? Indartsuenen aldeko desregulazio eta pribatizazio legeak adostea, potentzia mailan indartu ahal izateko.

Baina ez da betirako kapitalismo-patriarkarraren hegemonia. Orain arte ikusitakotik zerbait ikasi baldin badezakegu argia da: **Historia etengabeko aldaketan dago, ezer ez da betirako**. Klaseen arteko talkan eta sexu-genero zapalkuntzan oinarritutako eredu politiko eta ekonomikoa irauli beharra dugu. Eta gu gara, Herri guztietako langileria hau egiteko motorra. Munduko zapaldu, marginatu eta esplotatuak, elkarrekin egin beharreko bidea. **Aspaldi ohartarazi ziguten bezala: kapitalismoa ez da bakarrik eroriko. Bultzakada txiki bat beharko du.**

Galderak:

- 1) Zein da egun Euskal Herrian Ongizate-estatua eta neoliberalismoaren arteko harremana?
- 2) Zein aldaketa eman dira neoliberalismoaren inplementazioan?
- 3) Krisiak zein eragin izan ditu?
- 4) Gaietik ikusi ditugun ereduak gainean zein nolako lanketa egin beharko genuke?
- 5) Feminismoak balio digu Sozialismoa pentsatzeko? Eta Sozialismoak feminismoa?
- 6) Egun Venezuela, Bolivia eta Ecuadorren ematen diren prozesuak nola baliatu ditzakegu guk? Eta adibidez, zapatistena?
- 7) Zein harreman dute hauek guztiek Feminismoarekin?

Bibliografia:

HARNECKER, MARTA (2011): *Un mundo a construir. Nuevos caminos.*
<http://www.rebellion.org/docs/178845.pdf>

HARVEY, DAVID (2007): *Breve historia del neoliberalismo* http://www.extension.edu.uy/sites/extension.edu.uy/files/breve_historia_del_neoliberalismo._harvey.pdf

KLEIN, NAOMI (2007) *La doctrina del Shock: El auge del capitalismo del desastre*

KLEIN, NAOMI (2012) *El enigma del capital. y las crisis del capitalismo*

PEREZ DE OROZCO, AMAIA (2014): *Subversión Feminista de la Economía. Aportes para un debate entre el conflicto capital-vida*

2.

**EUSKAL
LANGILE
HERRIAREN
HISTORIA BAT**

Ezinezkoa zaigu Euskal Herriak bere sozialismorako bidea lan honetan zirrimarratzea. Beste jendarte eredu baten aldeko borroka, komunitatea erdigunean kokatuko duena eta klase bereizketak baztertuko dituena, konstante bat da, ikusi dugun bezala, historiako jendarte guztietan. Euskal Herrian ez da gutxiago iza, eta herri erresistentzia, moduz aldatuz bazihoan ere, belaunaldiz belaunaldi garatu izan da.

Ezin dugu noski, liburuxka honetan Euskal Herri osoko historia kontatu, baina, ideia bat egitea ezinbestekoa zaigu. Zergatik? Ba herriak bere historia kontatu ezean, boteretsuek kontaktzen dutelako. Eta boteretsuen historia beti da berdina: nobleen balentriak, aberatsen eraikinak, etsaien gerlak... baina ezer ere ez, langile borrokez, errepresioaz. Klase borroka ahaztea, langileok gure herriaren protagonista ez garela oroitzeko modu bat da.

Bertolt Brechtek irudikatu zuen Langile bat Historia Liburu baten aurrean. Boteretsuen historia soilik irakurtzen du, bere errealitateari buruzko galderak ditu buruan. Ez dezagun utzi gure herriaren historiari buruz galdera berberak egin behar izaten:

Zazpi Atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri.

Erregeek garraiatu ote zituzten harriztat haundiok?

Eta hainbatetan porrokatua izan zen Babilonia, nork jaso zuen beste hainbestetan?

Lima distirant hura eraiki zuten langilleak, ze etxetan bizi ote ziren?

Txinako Harresia bukatu zen iluntzean: nora jo zuten harginek?

Erroma bikain hura garaitza arkuz beterik. Nork altxatu zituen?

Nortzuk menperatu zituzten Zesarrek?

Hain ospetsua zen Bizanziok, jauregiz besterik ez ote zuen bertako jendearentzat?

Alegiazko Atlantidan berebat, itsasoak irentsi zuen gauean, biztanleak ito zorian oihuka ari zitzaizkien beren esklaboei leguntza eske.

Alejandro gazteak India bereganatu zuen. Berak bakarrik ote?

Zesarrek galoak menderatu. Ez ote zuen berarekin sukaldari bat bederen?

Felipe Espainiakoak negar egin zuen bere Armada urperatu zenean. Ez ote zuen beste inork negarrik egin?

Federiko Bigarrenak Zazpi Urteko Gerra irabazi. Nork bestek zuen irabazi?

Garaitza bat orrialde bakoitzean. Nortzuk atondu zituzten garaitza banketeak?

Hamar urtez behin gizon haundi bat. Nork ordaintzen zituen haren gastuak?

Zenbat historia, hainbat galdera. Historiak bezainbat galdera.

Zenbat historia! Zenbat galdera!

FEUDALISMOA ETA SORGIN EHIZAK

Euskal Herrian Kapitalismoa garatu aurretik, bestelako ekoizpen eta distribuzio

sistemak zeudela jakina da. **Komunismo primitiboa, esklabotza erromatarra eta feudalismoa ere izan ziren gurean, nahiz eta zaila den hauen gaineko ziurtasun handiegirik garatzea.** Kapitalismoaren aurrekarietarako, XIV.mendera joko dugu beraz.

Gerra banderizoak, nekazari, burges eta jauntxoek arteko gerrak izan ziren, feudalismoa igatu zutenak, gutxika bestelako ekoizpen ereduak martxan jartzea ekarri. Izan ere, garrantzitsua da azpimarratzea, Hego Euskal Herrian, Iparraldean ez bezala, ez zela estatu mailako iraultza burgesik gertatu eta beraz aldaketak gutxika txertatzen joan ziren. Hala ere, hainbat historialarik, iraultza burges txikiez hitz egiten dute, aldaketa ezberdinak ekarri dituztenak.

Gerra hauek marko sozioekonomiko orokorrako batean kokatu ezker, ikusiko dugu nola lehen langile greba eta matxinadak ematen diren, edota mugimendu heretikoen egoera, Durangon 1425ean ezagun egin zena. Jauntxoek pribilegioak mantendu arren burgesiak hainbat lorpen demokratiko egin zituen (euskararen defentsan, hidalgia eskubideak, Eliza eta Inkisizioaren botere politikoaren gainbehera...).

Esanak esan, **Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako bloke dominatzaile berri honek, Estatu Gaztelauarekin aliantza sendotuko du, 1512ko Nafarroaren inbasioa babestuz.** Ordutik, klase dominatzaile nazionalak, estatu espainolari begiratu diote, Nafarroarekin birbatasuna bilatu ordez. Arrazoi nagusiak Ameriketan eta Filipinetan inbasio eta lapurretak izan zirela esan genezake, baina baita koroaren armadaren babesa izatea ere.

Klase borrokak aurrera, **nekazarien mugimendu eta matxinadak (askotan mugimendu heretiko eta erlijiosoekin nahastuak) burgesia eta jauntxoek errepresioak ekarri zituzten,** benetakoa genozidioa gauzatu Europa osoan zehar, eta oso **bereziki Euskal Herriko langile herriaren kontra.**

Euskal emakumea izan zen akabatu beharreko lehen subjektu errebeldea. Emakumeon kontrako errepresio hau, sorginkeria deitu izan zitzaiona, burgesiaren mesedetan zeuden aldagai patriarkal, erlijiosoak eta kulturalak txertatzeko egin zen.

Erljioa aitzakia izan zen, helburua esplotazio sexu-ekonomiko afektibo eta familiar berri bat ezartzea zelarik, merkatuaren hedapenerako eta kapitalaren akumulaziorako beharrezkoak zirenak. Sarraski honen bigarren helburua beraz, nekazari, langile eta herri borroken kontra egitea zen, langile batasuna ezabatzea, gizonen aldeko batasun baten alde.

MATXINADAK

Euskal matxinadak garai aurre industrialeko klase borrokak izan ziren, pre-kapitalistak hain zuzen. Hiru krisi handi kokatu ditzakegu errebolta hauen arrazoi nagusi bezala: elikadura krisiak (uzta txarrak, burgesiaren akaparazioa...), krisi

soziopolitiko ezberdinak eta segurtasun krisiak (gerrak, izurriteak, bidelapurrak...).

Ordea, Euskal Herrian, gainerako herri zapalduetan bezalaxe, egoerak latzagoak egiten zituen estatuen presio zentralizatzaile eta zerga bilketek, Foru Sistemetan jasotzen ziren eskubide tradizionalen kaltetan, edo bestelako instituzio komunaletan jasotzen zenak baino.

Lehen matxinada bezala ezagutzen dena horren lekuko izan zen. 1631 eta 34 artean, Estatu espainolak gatzaren zergak igotzea erabaki zuen, bere gastu militar geroz eta handiagoei aurre egiteko, eta honen aurrean altxamendu ugari egon ziren. **Harrez geroztik, langile errebolta eta matxinadek ez dute etenik izango.**

Xiberuan lurren jabetza esku gutxirengan uzteko joerak, nekazari altxamendu bat ekarri zuen 1661ean Matalas apaizaren gidaritzapean, benetako ejertzito iraultzaile bat osatu zuena: klero eta jauntxoaren lurren desjabetzea eta nekazariarentzako kolektibizazioa, nobleekiko zergen eta elizarekiko diezmoen ezabapena... gainera Xiberuaren burujabetza aldarrikatzen zuten, esküaldun eta tirano arrotzen kontrako guda bezala hartzen zelarik.

Matxinada guztietan beraz hainbat konstante agertuko dira: **langile herriaren ordura arteko eskubideen defentsa lege berrien aurrean; eskubide nazionalen defentsa** (identitate nazionalaren eztabaida zabalduko duena); autoritate gorenei (errege, jainko...) errespetua eta konfiantza zaien arren, **erdibideko funtzionario eta agintariekiko errespetu eza eta bortizkeria nagusituko dira; euskal burgesiaren boterearekiko fideltasuna; emakumeen parte hartze aktibo eta zabala mugimendu guztietan; eta euskararen erabilera.**

Matxinadek gure herriaren borroka grina erakusten dute, mendez mende euskararen, amalurraren, eskubideen defentsan egin den herri borroka ez dugu ikusi behar "euskaldunon berezko ezaugarri bezala". Euskaldunak kulturalki borrokalariak izango bagina bezala, baizik eta belaunaldiz belaunaldi borrokalari guztien ondarea jaso eta berrartzeko prest egon garelako izan da. **Modu batean esan dezakegu ez dela inoiz eten borrokaren haria. Eta guri dagokigu matxino guztien hari horri ekitea.**

ESTATU-NAZIOEN SORRERA

Kapitalismoaren ezarpena oraindik ez zen erabatekoa, euskal burgesiak espainiar zein frantziar nobleziarekin harremana mantentzen zutelako. Izan ere (eta ezinbestekoa da elementu hau nazio zapalkuntza ulertzeko) **euskal burgesiak ez zuen inoiz estatu propio bat lortzeko saiakerarik ere egin.** Ordurarte zituzten pribilejioak mantentzea izan zen helburua, herri sektoreekin batera botere feudal eta monarkikoa deuseztu beharrean, estatuaren indar militarra erabiltzea hobetsi zuten, gaur egun arte, **estatu zapaltzaileen interesekin bat egin duelarik euskal burgesiak.**

Ikusi ditugun matxinadei esker ezin izan zuen burgesiak behar adina baldintza

sortu lur komunalen pribatizaziorako, aduanen ezabaketetarako (merkatu estatal bakar bat sortzeko), merkatu horretarako hizkuntza bakarraren inposiziorako, lan diziplina berri bat ezartzeko...

1789tik 1876era militariki urte gordinak izan ziren Euskal Langile Herriarentzat, hemendik aurrera erabateko bereizketa egongo delarik Frantziar eta Espainiar estatuengandik. Iraultza burgesek estatu-nazioen sorrerarekin identitate-estatalak sortzeari ekingo zioten eta.

“Burgesia frantsesak Frantziako Errepublika fundatu zuenean, bere gisako estatua antolatu zuen, bere kultura eta hizkuntzarekin. Eredu idealeko errepublika demokratikoa plaza huts bat da, derrigorrezko kulturarik edo ohiturarik gabe, herritarren biltzarra egiten denekoa. Baina estatua ezin zen hutsik sortu, herria errepresentatzeko, eta nazioa sortu zen, burgesia frantsesaren ereduko berdinketa planifikatua aurrera eramanez.

Libertatea eta egalitatea proklamatu ziren. Baina, justizia berdintasunaz gainera, ez zen “berdintasun sozioekonomikoa” entseatu, errepublika idealean egingo litzatekeen eran, herritarren errenta parekatuz lehenengo. **Berdinketa “homogeneizazio kulturalaren” zentzuan eraman zen aurrera, guztia frantses bihurtuz.** Instrukzio publikoa izan zen medio nagusia, nazio-kide guztiak burgesia frantsesaren hizkuntza eta kultura eruedetara moldatu eta citoyen-citoyenne bihurtzeko. (...) instrukzio publikoa, administrazioa, soldadutza, justizia eta baliabide guztiak erabili ziren estatugintzan. **Eskola zen nazioa ezartzeko erremintarik ahaldunena:** beste hizkuntzak bazterteaz gainera, liburuetakoa frantses eredugarria ezarri zen, burgesiaren hitz egiteko modua, herri xehearen hitz egiteko eta pentsatzeko modua gaitzetsiz. Justiziaren eta kartzelaren papera ere ez zen gutxiestekoa izan, agintearen eta jabegoaren arauak ezartzeko jendearen gogoan. Inork ez zuen zein naziotakoa zen dudarik izango, edozein lege hausteagatik inork eta nongo kartzeletara eramango zuten bazekien.

Mende bat eman zuen Frantziako estatu errepublikanoak mugen barruko jendea asimilatzen. Errepublikak gizabanako partikularrari indibidualizazioa ematen zion, hau da, eskubideen nolabaiteko aitortza, baina aldi berean, totalizazioa ezartzen zion, gizabanako arrazional, autonomo eta ustez eragile horien guztien totalitate uniforme bat moldatu behar zelakoan”. (Sarrionandia J., Moroak gara behelaino artean?)

Urte hauetan beraz, bi gatazka nagusi suertatuko dira, dialektikoki ulertu beharrekoak: **batetik kanpo erasoei aurre egitea, eta bestetik, barne mailako klase borrokak.** Hala ere, 1789tik aurrera estatu frantsesean ematen den iraultza eta ondorengo hedapen inperialista dira fase honetan kontraesanak azkartzeko arrazoi nagusi gisa.

Errepublikaren ideiarekin mesfidati ziren euskaldunak, eta horregatik ez zuen langile herriak iraultzan parte hartu. Honek eraso ezberdinak jasatera ekarri zuen beraz: 1793-1795era errepresio frantsesa Konbentzioko Gudun, Hegoalderen

inbasioa 1808an eta tropa antinapoleonikoen inbasioa 1813an Gasteizetik alde egin ostean. Adibide gisa, 1813ko Donostiako erreketak dugu, Espainiatik ihesi zebilen Frantziako armadari geratzen zitzaion azken hirietakoa zen Donostia. Ingeles eta portugaldar tropek, Espainiaren aliatuak zirenek, Donostia arpilatu eta birrindu zuten, hilketa, bortxaketa, lapurreta eta kalte izugarriak eraginez. Hiriak zituen 600 etxeetatik 36 bakarrik geratu ziren zutik; 1.000tik gora donostiar tiroz edo baionetaz erail zituzten; tropek eta beren ofizialek emakumeak sistematikoki bortxatu zituzten... Honek, Donostiako Langile Herria desagerrarazi eta Donostia burgesentzako hiri bezala birdiseinatzea ekarri zuen. Shockaren dotrinaz, Kapitalismoaren sarrera gure herrian nola izan zen ikus dezakegu, beraz.

Ipar Euskal Herrian, Kapitalismoaren ezarpena iraultza burgesaren ondotik etorri zen beraz, botere politiko eta estatalak burgesia komertzialaren babes osoa izango duelarik, baita txirotutako noblezia eta azkenean apaizeriarena eta honekin batera nekazari txiroena.

GERRA KARLISTAK

Hego Euskal Herrian eraso inperialistek ez zuten euskal nortasuna higitzea lortu, harik eta 1833an guda antiespañola eman zelarik, ofizialki Lehen Guda Karlistada lez ezagutua. Azkar esana bi bloke nagusi zeuden: **eskubide aurreburgesekin amaitzeko espainiar indar armatuen babes eta indarraren aldekoak**, eta **bestetik esplotazio burgesaren aurrean jartzen ziren noblezia txiki txirotua eta nekazari, eskulangile eta bestelako beharginak**.

Horrela bada, **langile herriak Foru Sistemaren defentsa armatua bere egin zuen**. Aipatzekoa da (balizko foruen idilikotasunen kontra), Foru Sistema ez zela bat ere demokratikoa: erabakiak jauntxo txikien esku zeuden, herriaren parte hartzea izugarri oztopatuz. Baina aurrean zegoena, demokrazia liberala lez ezagutzen zena, ez zen askoz demokratikoagoa ere: 1869ean 25 urtetik gorako euskaldunen %24entzako zen soilik eskubide bat. Horregatik esan daiteke, **euskal foru sistema defendatzea zela garaian zegoen aukerarik iraultzaileena**. Adibide bezala Gernikako Arbola ereserkiak zuen eduki demokratiko-internazionalistaz hitz egin ohi da, estatu espainolarengandik debekatua izan zelarik. Hainbat sozialista eta komunista euskaldunek ere erabili zuten ereserkia. Bestetik Max Weber aipatu dezakegu ere, euskaldunon ohitura demokratikoengatik harrিতuta gelditu zena.

Lau ziren Foru sistemari uko egiteak ekarriko zituen ondorio negatibo nagusiak:

- 1) Espainiar **zerbitzu militarrean parte hartzeko derrigortasuna**. Ordurarte beti ukatu izan da Euskal Langile Herria ejertzito atzeritarren, are bertakoen parte izatera. Azken hau soilik diputazioen lurren barruan eman zitekeen.
- 2) **Komunalen desagertzea** ekarriko luke honek. Ez soilik lurrena, ibai eta basoena ere, adibidez. Esku pribatuetara igarotzeko bidea zen hau.
- 3) Foru sistemak **subentzionaturiko produktuen amaiera eta zergen igoera**. Hala nola kanpoko produktuen sarrera, bertako produktuen prezioak apurtuko zituenak. Baita ere, Ebrotik gorako aduanaren ezabaketa ere.

4) Azkenik, **kanpotarren sarrera librea ekarriko zuen**, superpopulazio eta subkontsumorako arriskuak handituko dituenak, hala nola, Eliza inkisitorialaren boterea handitzea eta funtzionario espainolen boterea, euren ministerioak, kuartel, pribilejio eta hizkuntz dominatzailearekin.

Lehen gudaldi hau, Bergarako bakearen sinatzearekin amaitu zen. Euskal Langile Herriarentzat garaipena irudi zezakeena aldiz, ez zen inolaz ere horrela izan. **Espainiar indarrek azkar hautsi baitzuten euren hitza**, hainbat askatasunen murrizketarekin 1841etik aurrera.

Nafarroa Garaiko egoera hagitz garrantzitsua da etorkizuneko historiarako. Bertan biztanleriaren %5ak baino ez zuen boto eskubidea, eta honek, demokrazia-aristokratiko bat sortzean, klase dominatzailearen interesak herriaren interesengandik guztiz bereiztea ekarri zuen. Horrela, Bizkaian edo Gipuzkoan komertzioa, industria eta azpiegituren indartzea bilatzen bazuen burgesiak, **Nafarroan nekazaritza eta lurretan soilik inbertitu zen**. Honek Bizkaia eta Gipuzkoako burgesiekin alderatuta, **klase guztiz atzerakoia bihurtzea ekarri zuen Nafarroan, oraindik ere aje horiek gainetik kendu ezinik gabiltzalarik**.

Bigarren Karlistadaren aurretiko hamarkadetan, estatu espainolak helburu estrategikoa zehaztu zuen: **akumulazio kapitalistarako marko estatal baten sorrera, edo "merkatu espainola"** (edo are, "nazio espainola"ren sorrera). Horregatik ofentsiba erabatekoa gauzatu zuen **1872-76 garaian, oraingoan bai Euskal Langile Herriaren kontra garaipena lortuaz**.

KAPITALISMOAREN HASIERA EUSKAL HERRIAN

1878ko otsailean Kontzertu Ekonomikoak sinatu ziren Diputazioen eta Estatuaren artean. Hiru helburu funtsezko zituen honek: 1) **euskal administrazioen kolaborazioa berrmatzea** zergen bilketan batez ere, 2) **autonomia fiskal apur bat eskaintzea**, euskal burgesiak bere bidea egin zezan eta 3) **Langilera desaktibatu**, ustezko autonomiaren ideiarekin.

Hamarkada hau, beraz, zeharo kaltegarria izan zen Euskal Herriarentzat. **Lurraldetasunaren aldetik, Hego eta Ipar Euskal Herriaren zatiketan sakondu zen, batez ere, frantses estatuaren zentralizazio jakobinoaren ondotik, eta esan bezala, Hegoaldean zegoen espainiar kulturaren inposaketaren ondotik**. Gainera, Baskongadak eta Nafarroaren banaketa, aurretik ikusi dugun burgesien banaketaren ondorioz, Nafarroan espainiar eskuin guztiz atzerakoia nagusitzen zelarik.

Liberalizazio ekonomikoak **industrializazio basatia ekarri zuen**, Bilbon lehenik eta Gipuzkoan ondoren. Bilbon sortu ziren lehen bankuak **Banco Bilbao edo Banco Bizkaya** eta hauek bultzaturik, mendien ustiaketa masiboa. Foruek ordura arte, debekatua zuten burdinaren neurri gabeko ustiaketa zein esportazioa. Ordea kapitalismoaren arauekin, jasanezina zen eredu jarri zen martxan, Altos Hornos de Vizcaya horren eredu. Honek, espainiar estatuko beste herrietako **langileria**

modu masiboan Euskal Herriratzea ekarri zuen. **Euskal burgesiaren sorrera** hemen eman zen: Ybarra, Chávarri, Lezama-Leguizamón... familiekin.

Hala ere, ezinbestekoa da ulertzea, industrializazio hau, guda baten ostean etorri zela, porrot baten ostean, eta beraz horrela mantendu zela: **indarraren bitartez. Euskal Herriko kapitalismoa beti izan da, beraz, kapitalismo-militar bat, atzerriko estatuen zapalkuntza zuena bermetzat**. 1890eko hamarkadan ikusgarria egingo da indarkeria hau, sortu berri den langile klase baten manifestazio, greba, eta mota orotako borroken kontra, indar armatu espainiar zein euskaldunek (mikelete edo foralek) errepresioa eta heriotzak besterik ekarriko ez dituztelarik.

Langileria hainbat garaipen lortzeko gai bada ere, **Primo de Riveraren diktadura agertuko da**, Kapitalismoaren berezko ezaugarri den faxismoaren aurrekari bezala. Diktadurak ordura arte ematen ari ziren hainbat eztabaida eta mugimendu etetea lortu zuen. Besteak beste, euskal nazionalismo ezkertiarren gaineko planteamenduak. Hona hemen Eli Gallastegik 1923an egiten zituen gogoeta bat: "Euskadiren patuaren arrisku handiena, ez dago espainiar "proletalgo gorrian", Comución Nacionalista Vasca alderdikoei errepikatzea gustatzen zaien bezala, aldiz bai "euskal kapitalismo gorri horian". Bide honi Acción Nacionalista Vascak berrekingo dio, 1931etik aurrera, baina hau ere beste diktadura batek etengo du.

Bi saiakera independentista-sozialistak diktadura militar espainolengatik krudelki erreprimituak izan ziren, euskal burgesiaren oniritzi eta kolaborazioarekin. Klase interesen arabera ulertu ditzakegu hemen norabide honetan gertatutako ekintza guzti hauek.

Ikusten dugun bezala, **Kapitalismoa demokraziarekin lotzea, marketing kontu bat besterik ez da**. Euskal Herrian Kapitalismoak azken 40 urteetan soilik eduki dituzte eskubide formal guztiak hiritar guztiek, 150 urtetik 40, beraz. Lehenago, ehuneko txiki batek zituen eta eskubide zibil eta politikoak onarturik, emakumeok ez, txiuroak ez... Eta egun ere, eskubideak plano formalean onartuak dauden arren, erabakitzeke inolako eskubiderik gabeko demokrazia bat dauka kapitalismoak. Beraz, ezer garrantzitsua erabaki ezin den demokrazia da Kapitalismoak eskaintzen duena, eskaintzekotan.

II. ERREPUBLIKA

Munduan iraultza sozialistak ematen ari zirelarik, Euskal Herrian ere oihartzun komunistak helduak ziren. Ordea, jakina den bezala, **euskal nazioaren zapalkuntza eta klase zapalkuntza banatzean, Euskal Herriko langileria zatikatua zegoen, proiektu politiko koherente bat ezin gauzatu**. Estatu espainiarrean, aldiz, langile borrokak bere fruituak emanak zituen, batez ere, anarkista eta sozialdemokratik ziren indarrekin.

1931ean, Berenguerren diktadura (diktablanda bezala ezagutua) amaituta, hauteskundeetan, indar errepublikazaleek garaitu zuten, askogatik ere. **Langile Herriak kontzientzia hartuta eta masa mobilizazio gaitasun handiarekin,**

alderdiak errepublikaren alde lerratzea behartu zituzten. Horrela, egun batetik bestera, Alfontso XII.ak ospa egin behar izan zuen "herriaren biolentziaren beldur", II. errepublikari bide emanaz.

II. errepublika langileriaren garaipena bazen ere, **ez zen Langile Herriak gidaturiko prozesua izan, alderdi aurrerakoiek eta erreformistek gidaturikoa baizik, eta horrek gobernu iraultzaile bat ez izatea ekarri zuen.** Hori bai, espainiar estatuan egon den sistemarik demokratikoena izan dela esatea ez da gehiegikeria ere.

Nazio gatazken inguruan, euskal alderdiek Lizarrako estatutua aurkeztu zuten, konfederazio estatu baten eske eta antzekoa egin zuten ere Kataluniako hainbat alderdik. Ordea, oraindik ez zen aintzakotzat hartuko eskaera. Erreforma sozialei zegokionean, erresistentzia handia zegoen militar, lurjabe eta burgesien partetik. Baita ere ordea, langile mugimenduen partetik, komunista libertarioak eta sozialistak ziren sindikatu eta alderdietan lerratuak zeudenak, hain zuzen.

1934ko hauteskundeetan Azaña presidentea kargutik kentzea lortu zuen burgesiak eskuin katolikoarekin batera, *biurte beltza* bezala ezagutuko den urteetan. Izan ere, ordura arte egiten saiatu ziren erreforma guztiak (txikiak izan arren) atzera botatzen saiatu zen gobernu hau. Honek, langileriaren haserrea areagotu eta **1934eko Iraultza hasi zen.**

1934eko urriaren 5etik 19ra greba orokor iraultzailea planteatu zen estatu osoan zehar, PSOEn bitartez antolatu zelarik, eta azken unean, UGT, CNT edo PCE babesa eta parte hartzea zutenak, lekuan leku. Ordea, alderdi eta sindikatu hauen ezadostasun eta aliantzarako gaitasun ezek, altxamenduak arrakastarik ez izatea ekarri zuten penintsula osoan, Asturiasen izan ezik.

Asturiasen, meatzariak gidatu zuten altxamendua eta hemen anarkista, sozialista eta komunistek bat egiteaz gain, armak zein lehergailuak eskura zituzten. **Iraultza ondo antolatuta, 2 astez Asturiaseko komunaz hitz egin genezake,** industriaren antolaketa, elikagaien banaketa, autodefentsa... langileek den-dena antolatu zuten, bai ondo antolatu ere. Ordea, gainontzeko herrietan iraultzek ez zuten garaipena lortzerik izan, **Asturias bakarrik geratu eta Espainiar indar zapaltzaile guztiak bortizkeria osoz sartu ziren, milaka hildako eraginez.** Ez dago ondo kalkulaterik zenbatekoak izan ziren errepresaliatuak, baina 30.000 preso inguru egon ziren penintsula osoan zehar.

Euskal Herrian ere izan zen iraultza saiakerarik, baina ia momentuan bertan egin zuten porrot. **Deskoordinazioa izan zen arazo handienetako bat,** bai eta gidaritza komunik ez antolatzea. Herrialdeen arabera grebak, okupazio baketsuak edo enfrentamendu armatuak eman ziren baina nor bere kaxara. Urriaren 5ean herri handi gehienetan garaipen txikiak lortu arren, hirietan arrakastarik ez lortzean, iraultzarako planteamendua bertan behera geratu zen. Hala ere, izan ziren enfrentamenduak, sabotajeak eta mobilizazioak urriaren 12ra arte (Sakanan grebak 11era arte iraun zuen, meatzariak armak berreskuratu zituzten, Eibar eta Arrasate gune indartsu bezala agertu ziren...). Errepresioa ere gogorra izan zen

Euskal Herrian, 40 hildako, ehunka zauritu eta 1.500 kartzelatu zituztelarik, tartean PNVko edo PSOEko euskal buruzagi hainbat.

Santi Brouard-ek 50 urte beranduago hausnarketa hau egiten zuen gaiaren inguruan: "Centrándonos en cómo vemos el problema hoy en Euskadi, vemos que las condiciones son distintas. Hoy la influencia numérica de la clase obrera respecto a otras clases populares, ha disminuido -los obreros, porcentualmente, son menos de lo que eran antes respecto a otras capas populares-. Nuestro camino lo tenemos que hacer conjuntando los intereses de la clase obrera con las capas populares, haciendo llegar la conciencia de las clases populares o pequeño-burguesas al grado de altura del proletariado, que tiene que ser la vanguardia que conduzca el proceso que se está dando. Hacen falta consignas para esas clases. Para que esas clases revolucionarias y republicanas que todavía existen alcancen el nivel necesario para luchar contra la burguesía que es fundamentalmente monárquica (...) Nosotros creemos que "esto" sólo puede triunfar -y ahora me refiero a Euskadi- siempre que tengamos la capacidad de ligar en profundidad la lucha de clases con la lucha de liberación nacional y vasca. Una desgajada de la otra no tiene la dinámica y la fuerza suficiente para conducir al pueblo hacia el triunfo".

1936ean Fronte Popularrak irabazi zituen hauteskundeak eta oraingo honetan bai bestelako neurriak hartzeko prest zegoela. Lehen neurriak biurte beltzaren neurrien kontra egitea izan zen, errepublikaren kontrako militarrek sakabanatzearekin hasi zelarik, Franco Kanarietara, Mola Iruñeara...1934ko iraultzaren ondoren zeuden 30.000 preso politikoak amnariatzea, arrazoi politikoengatik kanporatuak izan ziren langile eta hautetsiak berrezartzea... **Nekazarien mobilizazioak ugariak ziren, eta lurak okupatzeari ekin ziotenean, laborantza-erreforma gauzatu zen.**

Militarrek, burgesiak, lurjabeek eta elizak, langile borroken gorakadaz kezkatuak zeuden. Izan ere, anitzak ziren borrokak gobernu errepublikarraren barruan eragiteko asmoekin, eta interes ekonomiko zein ideologiko burgesen kontrako ofentsiba zabala zen. Egoera aurreiraultzailea izan zitekeela ikusirik, eta gobernuan eragiteko gaitasuna ikusirik, **altxamendu faxista-burgesa hasi zen, uztailearen 17 eta 18ko estatu kolpearen ondoren, gerra zibil forman.**

Euskal Herrian PNV buru, autonomia estatutu baten beharra aldarrikatzen zen, azkenik, indar ezberdinekin akordio bat erdietsiko zelarik, Lizarrako estatutuaren ondorengo bezala. Altxamendu faxista emana zegoelako 1936an onartu zenak Nafarroa kanpoan utzi zuen. Hala ere, ordura arteko akordio guztietan Nafarroak bat egin zuen.

Erasotzen lehen herrialdea Euskal Herria izan zen, **Euskal Langileriak zituen borrokarako gaitasunak batetik, eta zuen garrantzi geostrategikoagatik bestetik,** Euskal Herria mendean hartzea ezinbestekoa zela. Altxamenduaren zati bat, Mola jeneralak gidatua, Iruñean hasi zen eta egunean bertan Nafarroa bere egin zuten. Nafarrek ia borrokarako aukerarik ez zuten eduki, baina errepresioaren zatirik handiena eraman zuten: 4.000 hildakoz hitz egiten da, ehunaka deserriratu

eta ehunaka desjabetzerekin.

Euskal Langile Herriaren erantzuna bat-batekoa izan zen, 1934ko altxamenduaren porrotetik urte eta erdira irakaspenak ere atera baitzituen herriak. Horrela, **36ko uztailaren 18an Donostian, langileri eta herri sektoreen komuna ezarri zen, antzeko egoerak sortuz Gipuzkoako gainontzeko herrietan, eta baten bat Bizkaia aldean** (nahiz eta hemen burgesiak egoera kontrolatu zuen). Burgesia-frankista garaitua izan zen eta herri langilea, alderdikieririk gabe (kenduta PNV zein ELAko hainbat kideren jarrera), **armak eskuetan erasoei erantzuteaz gain, defentsa nahiz bizitza sozial eta ekonomikoa antolatzeari ekin zitzaion**.

Gutxi ziren Gipuzkoako Defentsa Juntak zituen bitartekoak, eta gutxi ere zuen denbora (ikusi bezala lehen eraso gunea baitzen), baina hala ere, Estatu baten egitura guztiak sortzeari ekin zitzaion: guda, ordena publikoa, finantzak, lana, garraioak, osasun eta asistentzia sozial, eta informazio eta propaganda, sabotaje eta erasoei erantzuten zitzairen bitartean.

Donostiako Komuna irailaren 13an erori zen, Irun ostean, baina herri langilearen borrokak izugarritzko garrantzia izan zuen, **frankista-burgesei erantzuten lehen herria izatean Bizkaiko defentsa prestatzeko denbora irabaziaz**, besteak beste.

Bizkaian Herri Langilearen borrokak hainbat garaipen lortu bazituen ere jakina da, **Bilbo hartu ostean PNVk Santoñan bere errendizioa sinatu eta gero, zatiketa eragin zuela tropa antifrankistetan, milaka gudari langile desmobilizatuaz**. PNVren klase interesek Langile Herria zatitu besterik ez zuten egin. Azken finean, PNVren oinarriak faxismo espainiarra borrokatzeko prest zegoen arren, **ez ziren Eusko Gudarosteak azken momentura arte mobilizatuak izan**, estatutua eskuratu arte, hain zuzen. 1936ko urria zen hori eta ordurako soilik Bizkaia geratzen zen. **PNV bere aurpegirik gordinena erakutsi zuen**, azken ordura arte faxista zein langileen zortearen gaineko indeferentzia agertuaz. **Interesen alderdia bihurtuko da ordutik aurrera PNV; noski, interes burgesen alderdia**.

Eta zer esan Nafarroa zein Arabaren egoeraz. Tropa militarrek hasieratik izan zuten herrialdeko burgesiaren babes, eta hemengo langile herriak ez zuen borrokarako aukerarik izan, hildakoak jartzea soilik tokatu zitzairen, beraz. Errepublikaren aldeko ehundaka nekazari eta langile exekutatuak, atxilotuak, erbesteratuak eta desjabetuak izan ziren.

FRANKISMO HASIERA

Frankismoaren ezarpenak, ekonomiaren nolabaiteko antolaketa ekarri zuen: burgesiak bere bidea egin behar zuen, baina estatu frankistaren babes behar zuen. Eta horrela aliantza natural bat gertatu zen. Gutxi balitz, errepublikarren lur eta mota guztietako jabegoak bereganatu zituzten, batzuetan prezio barregarrien truk, indarrez besteetan. Langileria zeharo txikituta, hildako eta desagertuak zenbatu ezinik, burgesiarentzat joko zelai ezin hobea izan zen.

Euskal Herrian **PNVk erbestetik promesa ezberdinak egiten zituen arren**, gerran saldukeriaz jositako jarrera herri langilearen gogoan geratuko da, esperantzarik gabe geratuaz: beste alternatibarik ez da kausitzen. Azken finean, **guda zibil antifaxistak askapen nazional eta sozialean egiten hasi ziren teorizazioak eten zituen eta beraz subjektu iraultzaile baten artikulazioa.**

20.hamarkadan Eli Gallastegi PNVko militanteak diskurtso internazionalista eta humanista eskaini zion ordura arte zegoen nazionalismo jeltzaleari. Bide horretatik, baina bestelako garapen batekin **sortu zen ANV**, tradizio katolikoarekin hausten zuelarik. Bestetik mugimendu komunistaren hausnarketak berebiziko garrantzia izan zuten ere. III. internazionalaren hausnarketatik eta Leninen autodeterminazioaren aldeko defentsatik, PCE-k PC de Euzkadi sortu zuen, eta aurrerago “Euskadiko askapen nazional eta sozialerako komiteak” sortzea bultzatu zuten. **Luis Zapirain eta Jesus Larrañaga izan ziren lan eta teorizazio hau egiten nabarmendu ziren komunistak.** Ez dakigu egiazki zein garapen izan zezakeen Alderdi Komunistak bultzaturiko estrategia honek, ea benetan klase borrokarako marko nazional propio bat sortzeko apustua zen edo ez ote zen Espainiaren barruko erregionalismo bat bultzatuko zuen mugimendua. Kontua da, gerra zibilak guztiz eten zuela ildo honetatik eman zitekeen garapen eta borroka oro.

Egoera ekonomikoa ezin larriagoa zen. Gerraosteko ekonomia, eskasian oinarritu zen, gosete eta errazionamenduari gaixotasun eta epidemiak gehitu behar zitzaizkiolarik. Soldaten jaitsiera etorri zen jarraian, 1935etik 45era soldata errealak erdira jaitsi zirelarik, eta kontrari prezioen igoera eskandalagarria izan zen: 100etik 529ra datu ofizialen arabera. Langile Herriaren adkizio aukerak dramatikoki jaitsi arren, hauek ez zuten aurre egiteko tresnarik. Errepresioaren ondorioek eztabaida eta mugimendu oro eten baitzituzten, ezkertiar eta abertzale ororen kontrako benetako genozidioa gertatu zelarik. Aurrean, esan bezala, klase oligarkikoak irabazi izugarriak izan zituzten. Gutxi balitz, burgesiaren diskurtsoa triunfalismo batean oinarritu zen, etengabeko hazkunde ekonomikoaren ideia lau haizeetara hedatuz.

Makiak izan baziren hasieran Langile Herriaren esperantza, PCEren estrategia “errekontziliagarria”-ren ondoren ez zegoen inolako borroka esparru antifaxista antolaturik. 1947an hasi ziren, Euskal Herrian lehen langile protesta eta borrokaldiak, guztiz era espontaneoan, frankismoari egiturazko inolako kritikarik egin gabe, soldata hobekuntzak eta abar eskatuz. Orduan, frankismoak bere Sindikatu Bertikala indartu zuen, bertan parte hartzera bultzatuz langile oro, Enpresa Juradoarekin batera, langile borrokalariak kontrolatzeko helburuarekin.

Gatazkek gora egin ahala alderdi guztiek (PCEk ezik) **greba bat deitzea adostu zuten maiatzaren batean, honen ondorioz 14.000 kaleratze emango direlarik Euskal Herrian.** Horrek haserrea areagotu eta maiatzaren 2an greban jarraituko dute beste hainbeste langilek. Errepresioa bortitza izango da, **6.000 baino atxilotu gehiago** bilduko direlarik zezen plazetan. Langileen berrartzea onartu ezean grebak iraungo zuela aldarrikatu zuten, eta ELAko kide bat torturetari eraila izatean, greba Gipuzkoan hedatu zen. Maiatzaren 10era arte iraun zuen azkenean

borrokak, kaleratze, espetxeratze, tortura eta jipoi ugari ekarriko zituelarik. Lan klandestinoaren etapa berri batean 1951ean antzeko garapena izan zuen beste greba orokor bat egon zen. **Bi greba orokor ikaragarri hauekin, langile borrokaren etapa berri bati hasiera eman zitzaion.**

Datozen urteetan, esan bezala, langile borrokak gora egingo zuen etengabe. Altos Hornos, Euskalduna edo Sestaoko La Navalen, baina baita Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban. Frankismoaren kontrako jarrearen igotzeak, borrokarako grina piztu zuten hainbat abertzalerengan. PNVrekiko deskonfiantza erabatekoa izanik sortu zen beraz **ETA, Euskal Langile Herriaren esperantza bihurtu zena.**

ETA: ABERTZALETASUN IRAULTZAILEAREN SORRERA

ETA hasiera batean, euskal nortasunaren eta euskararen galeraz kezkatuta zegoen ikasle talde batek sortu zuen. Euskal Herrian zegoen diskurtso abertzalea Sabino Aranak sortutakoa zen soilik, eta beraz, nahi gabe bere egiten zuen ETAk arrazan edo etnian oinarrituriko diskurtso abertzalea. Apur bat arrazista eta baztertzaila irudituko zaigu gaur egungo perspektibatik. Ordea, azkar joan zen garatzen postura humanistetatik postura marxista eta iraultzaileetara.

ETako kideak herriarengandik gertu egotean, ondo ulertu zuten Euskal Herritarrek zuten zapalkuntza zehatza, benetan zapalduak zeudenak euskal langileak zirela. Beasaingo CAFeko langile borrokek hausnarketa hau ematen lagundu zuten (eremu abertzale bateko langile mugimenduak, alegia). **Klase gizarte batean “Euskal Herria” subjektu abstraktu bat zen, baldin eta ez zen herriaz ari; hau da, Langile Herriaz.**

1966etik aurrera egin zen V. biltzar famaturaino itxoin behar izan zuen eztabaidak fruituak emateko, eta bertan adostu zen **Euskal Langile Herria kontzeptua.** Hala ere oroitu behar dugu, jada 1963ko Intelektualei Gutunean hurrengo esaten dela: **“Euzkadiren salbazioa -eta Euzkadi bere langileak dira, zentzu zabalenean-langileen bidetik soilik etor liteke”**

Aurrerago KASek egindako klase sozialaren definizioaren barruan, euskal nazio askapenarekin bat egin dezaketenak definitzen ditu ELHren parte:

“Langile klasearen baitan dira **soldatapeko langileak**, kapitalak bere lan ez ordainduaren zati bat lapurtzen dietenak, bere lan indarraren kontrolaren kanpo daudenak eta bere erreprodukzioaren eta kapitalaren kontrol konstante eta aldakorrean direnak. Langile klasekoak dira etxeko lanen bidez eta esplotazio patriarkal-familiarraren bitartez, **lan indar sozialaren erreprodukzioa mantentzen duten emakumeak.** Langile klasearen barne daude, **aparatu burokratiko-administratiboetako eta politiko-ideologikoetako langileak, bere etorkizunaren jabetza minimoa ez dutenak**, ezta beraiei dagozkien erabakiena ere. **Langile klasekoak dira biziraupen loturak direla eta, aurreko hiru kategorien menpe diren pertsonak.**”

“Euskal jendartean, langile klaseaz gain, badira klase eta sektore sozialen multzoak sozialismoaren kausara batu litezkeenak. Horiek denak, gehiago edo gutxiago, euren artean **interes komun batzuk dituzte** bai eta kontraesan batzuk ere (baina ez antagonikoak). Klase eta sektore sozialen multzo hauek osatzen dute Euskal Langile Herria”

“**Euskal Herrian bere lan-indarra saltzera behartua dagoena**” izango da herrikoiki egiten den sintesi teorikoa, Euskal Langile Herria ulertzekoa.

Kontzeptu honekin, teorizazio abstraktu bat egin baino, tresna teoriko izugarri bat sortu zen. **Autokontzientzia berri bat sortzeko** balio izan zuen, **errealitate objektibo bati izena jarriz, errealitate subjektibo ere bihurtu zen, langile kontzientzia garatzeko kontzeptua izan zelarik**. Beraz, euskal langileriak bazuen bere burua borroka berdinarenean parte ikusteko tresna, bere benetako errealitatea ikusteko ispilua. Askapen Prozesu Nazional eta Sozialak zentzu osoa hartzen zuen orain, teoria bihurtuz.

LANGILE FRONTEA

V. biltzarrean, Viet Nam-eko Alderdi Komunistak **garaturiko lau fronteen teoria onartu zen ere: fronte militarra, politikoa, kulturala eta ekonomikoa**. Azken hau fronte obrero bezala ezagutuko da. Ordea, hasiera batean lau fronteak ongi bereizi baziren ere, militante gehienek denetarik egiten zuten, beharren arabera fronte batetik bestera mugitzen zirelarik etengabe. Honek, noski bazuen bere muga, langile mugimenduan zegoen militanteak antolakunde armatu bateko errepresio eta jazarpen bera jasaten baitzuen.

Txabi Etxebarrietaren eraiketa, horren lekuko daukagu. Izan ere, Txabi izan zen ELH-ren teorizazioan zein Langile Frontearen antolakuntzan paper berezia hartu zuen militantea. Bere heriotzak gainontzeko sindikatu eta indar politikoen errefusatzea ekarri zuen, bera baitzen harreman gehienak garatzen zituen kidea, figura hori galtzeak ondorio zuzenak izango ditu ETak bere jarduna langile mugimenduan garatzeko.

Esanak esan, **borroka armatua eta langile borroka uztartuz, ETA zilegitasuna irabaziz joan zen, langile mugimenduan nazio kontzientzia hedatzeko gaitasuna izan zuelarik**. Masa borrokarekin batera garatu ziren ekintza militarrek, garaipen txiki baina garrantzitsuak lortzea ekarri zuen, hala nola Lorenzo Zabala edota Felipe Huarte enpresaburuaren bahiketak. **Langile abertzaleez gain, langileria osoaren alternatiba iraultzaileena izango da ETA, bai frankismoan, eta baita ondorengo urteetan ere**.

LABen SORRERA

Frankismoaren amaieran beraz, gatazka maila gorenean zegoen. Azken urteetako adibideak ugariak dira benetan. **Batzuk aipatzearen Altos Hornos Vizcayako greba orokorrak, 68ko maiatzean Ipar Euskal Herrian egon zen mobilizazio**

masiboa, Burgoseko prozesuari erantzuteko emandako langile greba guztiak, Motor Ibericako borrokaldia Nafarroan, Carrero Blancoren desagerraraztea... Noski, horren maila handiko borroka maila handiko eztabaidak egotea ekarri zuen. ETAren barruen ere.

Horrela, ETA V eta ETA VI ren zatiketa etorri zen. Bigarrenak, troskismoaren korronteeekin bat, gainontzeko herrietan iraultza egin behar zela argudiatuta, ETAren eragin esparrua Estatu mailakoa izan behar zuela aldarrikatzen zen, gainontzeko herri zapalduekin batera. Jakinaenez, espainoltasunez jositako militanteek azkar batean utzi zuten nazio borroka zein borroka armatua, LCR alderdiarekin bat eginez. ETA Vak estrategia berregokitzeari ekin zion, bestelako antolakuntza espazioak sortzeko intentzioarekin Comisiones Obreras Abertzales sortu zen (geroago COA-LAB), baita Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia ere.

LABen sorreran askapen nazional eta sozialerako sindikatu bezala ageri zen, ez zuen bere burua independentistatzat jotzen, batez ere, horrek hasiera batean bere eragin esparrua murriztu zezakeelakoan. 1976Eko urrian LABek bere lehen Asanblada Nazionala ospatuko du, Alternatiba Sindikala delakoa adostuz. Hortik aurrera, **langile borrokaren erreferente sindikal nagusia izango da LAB Euskal Herrian eta baita gainontzeko herri zapalduetan ere klase sindikatu erradikal, borrokalari eta aktiboena izatean.**

MARTXOAREN 3A

Francoren hilotza oraindik usteldu gabe zegoenean, frankismoaren ordeko JuanCarlismoa ezarri zuten, Arias Navarro, Fraga Iribarne edo Adolfo Suarez bezalako frankista demokratikoekin buruan. **Noski, errepresioak eta zapalkuntzak berdinean zirauen.** Ordea, erantzuna artikulatuko zuten indarrak geroz eta gutxiago izan ziren. Frankismoaren kontrako indar iraultzaileenak ere, erreformarekin itsuturik, demokrazia burgeseko apurrak lortu nahian, apurketa demokratikoaren ideia alboratu zuten. **Ezker Abertzalea izan zen demokrazia faltsua salatu eta benetako apurketa planteatzen zuen mugimendu bakarra.**

Euskal Herriko borroka egoerak, Gasteizeko langile mugimenduan eragin zuzena izanik, 1975eko abendutik aurrera greba mugimendu izugarri bat antolatzea ekarri zuen. Sindikatu ezberdinen parte hartzea egon bazen ere, Coordinadora Obrera Vitorianan biltzen ziren guztiak. Urtarrilaren hasieran hasi zen greba eta egun gutxitan 10.000 langile zeuden kaleetan. Oinarrizko aldarrikapen taula bat zuten langileek: soldata igoera, 40 orduko lanaldia, bokadiloarentzako ordu erdi, 60 urterekin erretiratzea %100arekin, gaixotasun eta istripuekin bezala. Fronte ezberdinak zabaltzen joan ziren, hala nola, etxeoandre langileena, erresistentzia kutzak, bazkari komunitarioak eta bestelako lan estrategikoak garatzearen arduradun.

Urtarrilaren 20an eman zen lehen asanblada orokorra, inflexio puntua izan zelarik hau, 23rako beste greba orokor bat deitu zen. **Burgesiak greba mugimenduaren beharakada izan zela pentsatu zuen, baina hirugarren deialdi baterako balio izan**

zuen, martxoaren 3rako.

Lantegi ia guztiak itxita zeudela esnatu zen Gasteiz, Langile Herria kaleen jabe zelarik. Gobernu Zibilak kezkatu eta balaz erasotzen hasi zen pikete bat, eta hauek ospitalera eramatea ia ezinezkoa izan zen, langileen kotxeek barrikadak ezin saihestu zitzaketen eta. Hala ere, eguerdian grebak bere horretan zirauen, langileak Zaramagako elizan zeuden bilduta. **Txakurrak orduan eliza kanpoan zeuden grebalariei lekua uzteko eskatu zieten, eta hauen ezezkoaren aurrean kargak hasi ziren.** Gas lakrimogenoa eliza barrura bota zuten, ke bonbekin batera. Gerora, 2000 bala azal topatu ziren inguruneetan, erasoaren larritasunaren erakusle.

5 euskal langile hil zituzten: Francisco Aznar 17 urte, okina eta ikaslea. **Pedro María Martínez** 27 urte, Forjas Alavesaseko langilea. **Romualdo Barroso** 19 urte, Agratorreko langilea. **José Castillo** 32 urte, Basa-Grupo Arregiko langilea. **Bienvenido Pereda** 30 urte, Grupos Diferencialeseko langilea. Azken hiruak ospitalean hil ziren hurrengo egunetan, eta zorte hobea izan arren larriki zaurituriko beste 20 langile egon ziren, asteak hilzorian.

Hiriko historia markaturiko egun honek, **langile borrokan mugarri bat suposatuko du, borrokaldi honek markatzen zituen helburu ugari lortu zituen eta.** Hala ere, aipatu beharra dago beldurra zabalduko dela hurrengo belaunaldietan ere, erailketak presente egongo direlarik gaur egun era arte gutxienez.

DESINDUSTRIALIZAZIO PROZESUA

Beharrezko erreformak jada emanda, demokrazia burgesa ezarrita zegoen. **Bizitza osoko frankistak bizitza osoko demokratak ziren** jada, eta gutxi balitz, **indar antifrankista orok hori onartzeaz gain euren proiektu iraultzaile oro baztertu zituzten.** Frankismoan langile mugimenduak zituen erreferente iraultzaileak banan-banan beren mozorroa erantzi eta sistemaren apurrekin konformatuko ziren. PCEn adibidea bazen harrigarriena, ez ziren gutxiagorako PSOE, CCOO edo UGT sindikatuen saldukeriak.

PSOEk hautagai gazte, errebelde eta moderno bat aurkeztu zuen 1982ko hauteskundeetara. Iraultza sozial eta demokratikoaren aldekoa, autodeterminazio eskubidearen aldekoa... 80ko hamarkadako testuinguruan zegoen demokrazia bidezko iraultzarako aukerarik hoberena zirudien.

Honela Felipe Gonzalez espainiar estatuko presidente izatera iritsi zen, bat batean bere promesa iraultzaile guztiak pikutara bidali zituelarik zuzen-zuzenean. Estatu espainiarraren izugarritzko garaipena izan zen hau, bipartidismo bezala ezagutu izan den sistemaren ezarpena. **Eskuineko zein ezkerreko alderdi bik gobernua txandakatuko dute, inolako aldaketa estrukturalik eman gabe batak bestearen oniritzirik gabe, noski beti burgesiaren eta estatu proiektuaren mesedetan.**

Paktu estatal honen helburua mugimendu iraultzaile oro asimilatzea izango da,

bide instituzionala bakarrik erakutsiz alternatiba gisa. UGT eta Comisiones proiektu beraren baitan sartuko dira, “sindikatu hori” izenez ezagutuko direlarik. **Instituzioen bidez Ezker Abertzalea asimilatzeke apustua egiten da ere, Euskadiko Ezkerrako saldukekin gertatu bezala.** Ordea, Ezker Abertzaleak instituzioak borrokarako esparru bezala irudikatzean eta herri mugimenduekin zuen loturagatik, asimilatua ezina izateaz gain benetako mugimendu iraultzaile bezala finkatu zen.

Estatu paktuaren bigarren helburu zuzena beraz, Euskal Herria izango da, PSOE eta PPK (hasieran AP bazen ere) indar autonomistak askapen prozesuaren kontra lerratuz. **Horrela, PSOE, PP eta PNVren arteko batasunak terrorismoaren kontrako paktu eta mota guztietako erasoak adostu dituzte:** Ajuria-Eneako paktua, Dispertsioa, Gerra Zikina, Ilegalizazioak...

PNV frankismoan izandako saldukeria eta epelkeria saritu egin zuen sistemak, eta gutxi balitz, PNV euskal burgesiaren interesak ongi defendatzeko tresna nagusi bihurtu zen. **Nazionalismo burgesaren desagertzea etorriko da orduan, espainiar interesekin bat eginik dagoen burgesia batekin, euskal autonomismoa izango da PNVren estrategia politiko berria.** Boterearen kudeaketa eta euskal burgesiaren interesen defentsa bermatzeko, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren erabateko abandonua horrela uler dezakegu. Klase interesen defentsan, eta kolaborazionismoari jarraituz, EITB erabili izan du euskal kontzientzia nazionala apurtzeko eta zipaioak euskal langile herria erreprimitzeko.

80 hamarkadan egoera oso gogorra zen, Langile Herriak borroka armatuaren bidez ekintza ugari garatu zituen batez ere ETA (m)ren baitan. Egoera iraultzaile bat emateko aukerak eten behar ziren eta ikusita Ezker Abertzalea ez zela ogi apurrekin konformatuko, beste bide bat hartu beharra zegoen: **Langile Herria ezegonkortzea.**

Testuinguru horretan eman zen beraz, **“rekonbertsio industrial” deitu izan dioten prozesua.** 73ko petrolioaren krisiaz geroztik eta neoliberalismoaren paradigma berriak indarrean, deslokalizazio prozesuak martxan jarri ziren. Lan indar merkearen bila eta merkantzien eta kapitalak mugitzeko inolako zergarik gabe, **industria nazionalak lekuz aldatu ziren, bertako langileria langabezia utzia.**

Horrek, **ekonomia nazionala desagitea ekarri zuen, interes burgesen arabera axola ez duen auzia, izan ere irabazi gehiago izatea da irizpide bakarra.** Herri baten ikuspegitik ordea, aberastasunak sortzea eta sare produktiboa ehuntzea lehenetsunak dira, ahalik eta autosufizientzia eta dibertsitate handiena izan dezan herri langileak. Monokultiboa adibidez, ez da inoiz herri baten hautua izan, beti burgesien eta transnazionalen monopoliak bezala diseinatutako mundu mailako estrategiak baino ez dira.

Horrela, **70 eta 80 hamarkadetan eman ziren desindustrializazio prozesuek, erresistentzia handia jaso zuten Herri Langilearen partez.** Lanpostua galduko zuten langileen aldetik aldarrikapena argia izan zen, ordea, bestelako herri sektoreen

elkartasuna ulertzeko, aurretik azaldutakoa kokatu beharra dugu, **Euskal Langile Herriaren burujabetzaren kontrako eraso bezala ulertzen zelako.**

Euskaldunako bataila izango da borrokaldi honen adierazpen goren, hamaika izango direlarik, ordea, Euskal Herri osoan emandako gisa honetako borrokaldiak.

1984ean hasi ziren Euskaldunako itxieraren kontrako protesta nagusiak, errepide eta trenbide mozketekin. Deustuko zubia, Bilboko komunikazio puntu garrantzitsuenetako bat, mobilizazioen erdigune bilakatu zen.

Momentu horretan, Euskaldunan 2471 langile zituen, eta erreformak 1.700 lanpostutik gora galtzea ekartzen zuen. Ia hasieratik langileekin batera gainontzeko langile mugimenduak eta ikasle mugimenduak batu zitzaizkien, eta noski, euren familia eta auzokideak ere, herri osoaren borroka bihurtuz lantegiko gatazka. Maderoen eskusartzeek Vicente Carril langilea zauritu zuten eta Pablo Gonzalez langilea bihotzekoak jota hilko zen.

ONGIZATE ESTATUA

Euskal Langile Herriaren zati borrokalarienetako bat desegituraturik, Ezker Abertzaleak gidatuko du, ia bakarrik, sistemaren kontrako borroka. 80. hamarkada amaieran Perestroika izenez ezaguturiko desegituraketa prozesu bat biziko du SESBk, azkenean Sozialismoaren erorketa etorriko delarik Europako Ekialde osoan, eredu iraultzaileen erorketa irudikatu nahiko duelarik burgesiak "historiaren amaiera" aldarrikatuz.

Hamarkada bakoitzak bere erdua izan du Euskal Herrian: 50. hamarkadak Txina, 60.hamarkadak Cuba, Viet Nam, Argelia, 70ak Chile, 80ak Nicaragua eta el Salvador. 90 hamarkadak ordea Sobiet Batasunaren erorketarekin, paradigma guztiz aldatu eta bestelako ereduak bilatuko ditu: EZLN, antiglobalizazio mugimendua... **ordea hauetako inork ez du Euskal Langile Herriaren errealitatearekin eta proiektuarekin bat egingo eta Askapen Mugimendua eredurik gabe dagoela irudituko da.** IRA izango da, noski oraindik orain eredu, baina ezin da ahaztu, bertan egiten den diskurtsoa abertzaletasunetik gehiago edaten duela sozialismotik baino, eta honek ere bere eragina izango du Ezker Abertzalearen baitan.

Desindustrializazio basatiaren ondoren merkatuaren berregituraketa bat emango da, ongizate estatuaren aroa bezala ezagutzen delarik hau. Sindikatu horiek langile aldarrikapenak, zerbitzu publikoen arabera borrokatzea ekarriko du, estatuaren muga juridiko-politikoak guztiz onartuz eta langile borroka era instituzionalizatu batean ulertuz.

Aldi berean, kreditu errazen bidez, langileriaren kontsumo gaitasuna abstraktuki handitu eta, kontsumismoa izenez ezaguturiko fenomeno hasiko da. Merkantziak moden arabera sortu eta zaharkitze programatuaren bidez, geroz eta azkarrago berritzeko estrategiak, kultura berri baten sorrera ekarriko du, **muturreko indibidualismo kontsumitzaileen perfila.**

Kontsumo eredu masiboak jendartea gidatuko du beraz, adibidez telebistaren kontsumo masiboak eragin zuzena izango du **kaleak hustearekin edo kotileoaren kultura ezartzearekin**. Indibidualismo bortitz bat garatzen hasiko da, lehenago inoiz ezagutu gabeko erasoaldi ideologiko sakonekoa. Ohitura komunitario ugari galduko dira horrela eta klase elkartasuna bezalako ideiak alboratuko dira, adibide bat jartzearen. Kapitalismoaz hitz egitea bera ere zeharo *demodé* geratuko da, jendarte gutzit despolitizatu bat sortzen hasiko delarik.

Langile mugimenduak Ezker Abertzalea izango du beraz alternatiba iraultzailea bakarra, mugimendu autonomoen beherakada ere nabaria izango baita hamarkada honetan. Ezker Abertzalea ordea, **nazio askapen mugimenduaren erronkei heldu asmoz, borroka soberanistan kokatzen ditu lehentasunak**, klase borroka hein batean bigarren plano batean geratuko delarik. Ez da harritzekoa testuingurua ikusita, sozialismoaren aldeko borroka eta alternatibak erorita, eta Europar SESBaren erorketaren ondorioz sorturiko estatu berrien porrusaldak aukerak irekitzen baitzizkion Euskal Herrian independentziaren ateak zabaltzeari.

PNVk euskal burgesiaren interesei leial, **euskal kapitalismo modernoaren zutabe ezinbesteko** bezala ikusi behar dugu. Bai alor ekonomikoaren barruan, baita alor ideologikoan, zein errepresiboan. Eusko Jaurlaritza eta bere barruan EITB eta zipaioak tresna nagusi bezala ulertu behar ditugu, beraz.

90.hamarkadan LAB sindikatuak eginiko borrokei esker, **96an eraberritzeko beharra ikusi zuen**. Hiru arrazoi nagusi zeuden: 1) LABek hauteskunde sindikaletan gora eta gora egiten zuen%14,59koa lortu arte. Honek sindikatu nagusietako izatera eramane zuen, baina horretarako prest ez zegoen egiturarekin. 2) Langile klasearen egiturak aldatu egin ziren, prekarietatea, gazteak eta emakumeak sektore kaltetu bezala lantzeko beharra ikusiz. 3) Ezker Abertzalearen Nazio Eraikuntza estrategiari moldatu beharra zegoen.

Beraz, LABek bere burua eraldatu eta sindikatu soziopolitiko eta borrokalari izaera mantenduz, gehiengoak lortzeko bidean hasi zen. Sozialismorako estrategia sozioekonomikoa ere martxan zuen beraz Ezker Abertzaleak, bereziki LAB sindikatuari esker. Jarraik ere ETT-en kontrako kanpaina zabalak burutu zituen, gazteriaren prekarietatea eztabaida politikoaren erdigunean jartzea lortu zuen, errealtate hori ikusi araziz.

Ordea, espekulazio estrategiak aurrera urratsak eman zituen, higiezin burbuila izenez ezagutu den fenomenoarekin etxebizitzaren prezioak zerua ukitzearaino. Honela, Langile Herriaren benetako kontsumo gaitasunak jaisten joan dira, berehalako kontsumorako aukerak zeuden bitartean (aipaturiko kreditu-hipoteka sistemen bidez). Egoerak okerrera egingo du 2007tik aurrera, subprime hipoteken krisiak eztanda egitean.

AZKEN FINANTZA KRISIA

Euskal Herrian berandu hasi zen nabaritzen krisialdi ekonomikoa. Besteak beste, bazegoelako “hemen hobeto bizi gara” bezalako ideiak aski zabalduak. Kapitalismoaren mundu mailako berdefinizio eta berregituratze honetan, prekarietatea hedatu egin da, eta neoliberalismoaren bidetik estatu kapitalistek era orotako murrizketa eta miseriak hedatzeari ekin diote. Datu batzuk ikusten saiatuko gara, jakinik estatistikak estatuen jakintzak direla eta beraz, ez dutela benetako esplotazioa erakusten, baina ideia orokor bat egiteko balioko digute.

Estatu espainolean populazio aktiboaren inkestaren (EPA) 2015eko kontutan hartuz, 5,4 milioi pertsona dago langabezian. Horrek langabezia-tasa % 23,7an kokatzen du, Europakoa % 11,5ekoa den bitartean.

Europako langabezia tasa % 11,5 bada, **Hego Euskal Herrikoa % 16,2 da**. Beraz, **220.500 pertsona dago langabezian Hego Euskal Herrian**. Gutxi balitz Hego Euskal Herriko **475.000 pertsonak pairatzen dituzte bazterketa sozialaren** ondorioak eta 161.000 lagunek bazterketa sozial larria pairatzen dute. Gutxi balitz Hego Euskal Herrian 2013-2014 artean **2821 etxe kaleratze** jazo ziren, datu ofizialen arabera. Ia lau eguneko.

Jada lana izateak ez du bizitza duinik bermatzen, **prekarietate orokortu batez hitz egin behar dugu**. Zaila da oro har, prekarietateri buruzko datu zehatzak eskuratzea eta ondorioz, lan-munduko hainbat faktore aztertuz eta horietan islatzen diren aldaketan esanguratsuak begiztatuz, hainbat ondorio ateratzeko aukera izango dugu.

Europako zenbait ikerlari sozialen arabera pobrezia mugak kalkulatzeko lurralde bakoitzean, biztanleko BPGren (Barne Produktu Gordinaren) eta diru-sarreraren arteko erlazioa hartu behar da kontuan. **Biztanleko BPG Per Capita ren %37,5a baino txikiagoak badira diru-sarrerak, pertsona hori pobrezia mugan bizi da.**

Kalkulu horren arabera, 2013an **Euskal Herrian oinarritzko batz besteko soldata 937 €koa da. Zentzu horretan, biztanleen %28,8 pobrezia mugan bizi da Euskal Herrian, 900.000 pertsona.**

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko **gazteon %72a baino gehiago ez da 937€-ko diru sarreretara iristen**. 16 eta 29 urte arteko kontratudun gazteon batz besteko soldata 1.100 eurokoa da. Gazteon batz besteko soldata 30 urtetik gorakoena baino txikiagoa da, 30 urtetik gorako emakumeena 1.422 euro eta gizonezkoena aldiz 1.922 euro. Pentsatu beraz gaztea eta emakumea izatearen eragina.

Baina batz besteko soldata horrek ez dio erantzuten gazteen gehiengoaren errealitateari. **Gazteon %35a baino ez baikara kontratua dugunak**. Eta kontratuen artean, Formazio kontratua deiturikoa dagoela gogoratu behar da (gazteon %2), kasu hauetan 500 € soldatarekin egon gintezke 33 urte bete arte. Gainontzeko

gazte guztiok (%65a) bestelako diru sarrerak ditugu: gurasoen paga, beltzean (kontraturik gabe) egindako lana edo diru laguntza publikoen bidez (bekak, RGIa, eta abar).

Adierazgarri da beraz gazteriaren pobrezia maila, gutxieneko diru sarrerak errealtatean ditugun diru sarrerekin alderatuz. Pobrezia maila ikusita ezinbestean **familia bilakatzen da sostengu ekonomiko gazte askorentzat.**

2013-2014an sinatutako kontratuen % 93,7 aldi baterakoak dira eta gazteon kasuan % 97ra iristen da. Eta ikusi bezala, aldi baterako kontratu hauek, kasu askotan hilabeteko kontratuak ere izaten direla, mehatxurako eta lan-baldintza txarrak ezartzeko helburuarekin.

Sinatutako kontratu berri horien ondorioz, behin-behinekotasuna nabarmen igo da. Emakumeok dugu oro har, gizonek baino behin-behinekotasun tasa handiagoa baina bestelako ezaugarri batek gaitutako du genero ezberdintasuna: gazte izateak. **Gazteon %70ak jasaten du jada behin-behinekotasunak sortarazten duen prekarietatea.**

Sektoreen arabera koadro honetan bere garapena ikus dezakegu:

| Langile Kopurua sektoreka | 2008 | 2014 | Suntsitu dira |
|----------------------------------|-------------|-------------|----------------------|
| Zerbitzuak | 823.500 | 817.000 | 6.500 |
| Nekazaritza | 28.700 | 21.900 | 7.000* |
| Eraikuntza | 117.200 | 61.300 | 55.900 |
| Industria | 314.200 | 238.700 | 75.500 |

*Azken 30 urteetan 4 baserritik 3 galdu dira

Desberdintasun sozialari dagokionez Hego Euskal Herriko biztanleen **%1en esku dago Barne Produktu Gordinaren ia erdia.** Hona hemen Forbes zerrendaren arabera Hego Euskal Herriko 8 aberatsenak.

| Izena | Jatorrizko herria | Kapitala | Enpresa |
|---------------------------------|--------------------------|--|--|
| Daniel Mate Badenes | Donostiarra | 1.800 milioi euro-rekin | Glencoreko zuzendaritzako kidea eta akzioduna da |
| Jose Maria Aristrain de la Cruz | Donostiarra | 825 milioi euro ditu, iaz baino 325 milioi gehiago | Arcelor Mittaleko akzioduna |

| | | | |
|-------------------------------------|-----------------------|--|--|
| Sendagorta Aranburu familia | Plentziarra (Bizkaia) | 650 milioi euro dituzte, iaz baino 50 milioi gutxiago | Sener konpainiaren jabeak dira, eta baita Rolls Royce autoen motorrak egiten dituen ITP konpainiarenak ere. |
| Zardoia familia | Donostiarra | 550 milioi euro dituzte, iaz baino 150 milioi gutxiago | Zardoya Otis konpainiako akziodunak dira. Hain justu, Mungiako (Bizkaia) lantegia ixtear da enpresa, 80 lagun kaleratuta |
| Javier Ormazabal Etxebarria familia | Bilbotarrak | 525 milioi euro ditu, iaz baino 100 milioi gehiago | Velatiako presidentea da, lehengo Ormazabal taldearena |
| Victor Urrutia Vallejo | Getxoztarra | 400 milioi euro ditu | CVNE ardo konpainiaren presidentea da |
| Sabino Arrieta Heras | | 375 milioi euro ditu | Sidenorreko akziodun eta presidente ohia. Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuordea izan zen 1980ko hamarkadan, EAJrekin |
| Alejandro Aznar Sainz | | 350 milioi euro ditu | Ibaizabal itsasontzi enpresako presidentea da, eta baita Marques de Riscal bodegakoa ere |

Aberatsenak hauek izanik, **hauek dira Hego Euskal Herriko enpresa garrantzitsuenetakoak** fakturazioaren arabera hurrengo hauek dira. **Nafarroan:**

| Enpresa | Fakturazioa (milioi €) | Langile Kopurua |
|-------------------------------|------------------------|-----------------|
| Gamesa Eólica | 3.633 | 6.700 |
| Volkswagen Navarra | 3.085 | 4145 |
| Bsh Electrodomésticos España | 2.253 | 4635 |
| Acciona Energía | 1.469 | 349 |
| Acciona Windpower | 941 | 365 |
| Trw Automotive España | 858 | 2.208 |
| Cementos Portland Valderrivas | 863 | 803 |

Baskongadetan:

| Enpresa | Fakturazioa (milioi €) | Langile Kopurua |
|-------------------------------------|------------------------|----------------------------|
| Mondragon Enpresa Taldea | 12.574 | 74.061 (mundu osoan) |
| Iberdrola Distribución Eléctrica | 10.548 | 4.939 EHn (orotara 30.764) |
| Petronor | 5.613 | 875 |
| Iberdrola Generación | 4.562 | 296 |
| Iberdrola Ingeniería y Construcción | 2.268 | 2.404 |
| Sidenor Industrial | 1.630 | 3.016 |
| CAF | 1.506 | 3.414 |

Banketxeei dagokionez **BBVA da jaun eta jabe, 651.511 milioi** Euro aktiboetan dituelarik. Privatizatu berri den **Kutxabankek 59.413 milioi Euro ditu**. Caja Laboralak 20.962 milioi €. Azkenik, Caja Navarra CaixaBankengatik fagotizatua izan zen, kutxa fundazio bihurtuz.

Datu bilketa azkar eta partzial hau egin ostean ondorio argi batzuk atera ditzakegu. **Desberdintasun sozialak geroz eta gehiagora doaz**, aberatsak geroz eta aberatsago diren heinean, eta txiroak txiroago. **Euskal burgesia eta langileriaren kontrako talka geroz eta gogorragoa delarik**. Birdefinizio kapitalistak beraz, klase pribilejioak mantentzeko eta esplotazioa areagotzeko uneak bihurtu dira: **Neoliberalismoaren inposaketa egiteko Euskal Herrian**.

Sektore publikoen privatizazioa eta lan erreforma ezberdinen bidez eskubideen galera izan dira beste bi ondorio nagusi; **Kutxabank eta konbenio kolektiboetarako sindikatu eta patronalaren arteko akordioen behar eza adibide**. Aipatzeko azken elementua botere politiko eta ekonomikoen arteko aliantza izango zen. PNVk dituen loturak Iberdrola, Petronor edo Euskaltelekin, edota UPNk Gamesa edo Volkswagenekin, baita Kutxabank eta CANeko eskandaluekin. **Botere erreionalisten klase interesak argi erakusten dizkigu honek**.

Baina egon dira erantzunak. Urteetan zehar LAB sindikatuak eginiko lanari esker, gehiengo sindikal nazional bat sortzen da, batasunean mobilizatorako eta borroketarako gaitasuna erakusten duena. ELA da LABekin batera sindikaturik handiena, baina bere barnean klase diskurtso nazional bat egiteko gaitasuna badu ere, **lehentasun gisa enpresetako bere hegemonia kokatzen du**, herri prozesua erabat bigarren maila batean kokatuz. Honek kontraesan ugari ekar baditzake ere, EILAS, EHNE, ESK eta Hiru-rekin batera 7 greba orokor arrakastatsu antolatuko dituzte Euskal Herrian 2009-2014ra. Hauetakoren batean CNT, UGT edo CCOO batu diren arren, sindikatu hauen lehentasun estatalak kokatzen dituzte, klase borrokarako marko nazionala ukatuz.

Greba hauek eta bestelako dinamikek, klase borroka berpiztea ekarri dute, bai eta kapitalismoaren eta klase jendartearen kritika erradikala berreskuratzekoa ere. **Krisi sistemiko honen aurrean jada ez dago isiltzen den ahotsik.** Krisi ekonomikoaz gain krisi ekologiko, politiko, kultural, energetikoa... ditugu. **Zibilizazioaren krisia hain zuzen.**

Alternatiba bakarra dugu: Euskal Langile Herriak boterea hartu behar du. Gure bizitzaren gaineko boterea hain zuzen. Euskal Herriko ekoizpena, banaketa eta kontsumoa era demokratiko batean adostu behar dugu, herriak asmatzen dituen mekanismoen bitartez. Noski, lanaren banaketak demokratikoa izan behar duela ere, zaintza lanak emakumeengan erori ez daitezen soilik, eta bizitza osoko lanaldiak izan ez ditzagun. **Eta sortzen ditugun aberastasunak ere denon beharren arabera kudeatu beharko ditugu, bakoitzak ahal duena eginez, bakoitzari behar duena emanaz, jendarte feminista eta sozialista bat eraikitzeko tenorean gaude.**

Galderak:

Euskal Herriaren historia ikusi dugu gainetik, klase ikuspegi batetik. Baina noski, ikuspegi oso murrizta izan da, azken finean langile borroka txiki eta lokalek egiten baitute historia eta horiek hemendik kanpo geratu dira. Liburuxka honetan ez doana kontatzeko beharra ere badugu, beraz. Ordea, zer dakizu guk, gure herriko langile mugimenduaren historiari buruz? Ikusi dugu Historia garaileek idazten dutela. Zure herriko historia nork idatzi du? Zer dakizu zuk?

Pentsatuko duzu akaso zure herrian ez dagoela Euskaldunarik, Altos Hornosik, ez eta Donostiako Komunariak. Baina herri guztiok eduki ditugu borroka txiki zein handiak, kontua da zein garrantzia ematen diogun. Proposamena erraza da, saiatu, modu kolektiboan zure herriko Langile Herriaren historia ulertzen hemen proposatu dugun eskemaren arabera. Hau da:

Feudalismoa eta sorgin ehizak
Matxinadak
Estatu-nazioen sorrera
Karlistadak
Kapitalismoaren hasiera Euskal Herrian
II. Errepublika
Frankismo hasiera
ETA: abertzaletasun iraultzailearen sorrera
Langile Frontea
LABen sorrera
Desindustrializazio prozesua
Ongizate Estatua
Azken finantza krisia

Saiatu bilatzen garai bakoitzeko gertakari eta testuinguruak. Eta gogoratu, Historia Klase Borrokaren historia dela. Zure herria zein mendetan sortu zen, garaiko zein borrokarekin zuen zer ikusia ikertu behar duzu. Sorgin ehizek zein ondorio izan zituzten eta zein proiektu etorri ziren segidan (zein hiri eraiki, zein auzogune, zein enpresa...). Denak du eta zer ikusia klase borrokarekin.

Noski, saiatu gero konpartitzen egiten duzuen lana. Jakintza askatu dezagun geure buruak askatzeko. Ez dezagun garaileen historia kontatu. Erre ez zituzten sorginen bilobak garelako. Egunero da martxoaren 3a. Egunero gara matxinoak.

Bibliografia:

APAOLAZA, UNAI (2010): **Abertzaletasun esentzialistatik dialektikora**
<http://basque.criticalstew.org/?p=2832>

ABASOLO, JON PATXI; MENDAIZA, DAVID; BUSTILLO, JOXE ERRAMUN
(2014): **Nuestro Mayo Rojo.** (Txalaparta)

ERNAI (2014): **Prekarietate Dossierra.** http://topatu.info/wp-content/uploads/2014/02/gazteria_lana_prekarietatea_ernai.pdf

GIL DE SAN VICENTE, IÑAKI (2010): **Resumen y propuesta de historia marxista vasca.** <http://www.rebelion.org/docs/132367.pdf>

MAJUELO, EMILIO (2004): **LAB Sindikatuaren Historia** (Txalaparta)

SARRIONANDIA, JOSEBA (2010): **Moroak gara behelainoan?** (Pamiela)

SORTU (2015): **Dossier Sozioekonomikoa.** <http://sortu.eus/dok/SOaldizkaria1eusk.pdf>

3.

**EKONOMIA
POLITIKORAKO
SARRERA
(OINARRIZKO
KONTZEPTUAK)**

Ekonomia kritikoak bi eskola nagusi dituela esan dezakegu, biak maila berean aintzakotzat hartu behar ditugunak eta sakonki aztertu: **ekonomia marxista** eta **ekonomia feminista**.

Marxismoaren ezaugarri ezberdinak ikusi izan ditugu liburuxka honetan zein gainontzekoetan. Izan ere, marxismoa teoria oso aberats eta konplexua da (egungo intelektual ugarik sinplifikatu eta barregarri egin nahi duten arren). Hiru eremu nagusi bereiz genitzake: filosofia marxista (materialismo dialektikoa), ekonomia marxista (materialismo historikoa) eta teoria politiko marxista (iraultza sozialista).

Marxen obrarik garrantzitsuenak den Kapitalak, **kapitalismoaren ekoizpen-harremanen azterketa du helburu merkantziaren analitiko abiaturak, merkantzia kapitalismoaren oinarri gisa hartuta beraz**. Klase esplotatuen errealitateak abiaturak egiten da azterketa, hau da langileriaren ikuspegitik.

Kapitalismoan ordea, merkatutik kanpo geratzen diren elementu ugarik parte hartzen dutenez, **azterketa partziala da**. Hau da feminismoak erakutsi digun kritika. **Ekonomia beraz, ezin dugu merkantzien munduan ematen diren harremanetan soilik ulertu. Ekonomia bizitza sostengatzeko egin beharreko aktibitate multzo guztiak dira eta**.

Ekonomia Feministak beraz, begia **emakumeengan** jartzen du, batetik eta **subjektuen aniztasunean** bestetik. Izan ere, feminismoa ere oso aberatsak eta konplexuak diren teoria multzoak barnebiltzen ditu. Feminismoak ez du soilik "sexu-genero" afera tratatzen, baizik eta sakonago, **botere harremanen gaineko teoriak jasotzen ditu integritasunean**, klase, aniztasun funtzional, jatorri kultural edo etnikoak... ere aztertzen ditu. Beraz **ekonomia feministak patriarkatua sistema ideologiko eta ekonomiko bezala tratatzen du, kapitalismo inperialistaren barruan**.

ONDASUN MATERIALEN EKOIZPENA, GIZARTE BIZIMODUAREN OINARRIA


Ondasun materialen ekoizpena da gizartearen bizitzaren oinarria. Alde batetik, pertsona guztien oinarritzko beharrak asetu ahal izateko, eta bestetik, pertsonen desirak eta nahiak asetzeko baliabide modura, ongizateari dagokionez.

Aldiz, feminismoak azpimarratu duen legez, gizarte eta pertsonak existitzeko eta garatzeko beharrezkoak diren sostengurako prozedurak **ez dira soilik ondasun materialetan oinarritzen**: hortxe ditugu etxeko eta zaintzaren eremuan burututako lan guztiak, non denak ez dituzte objektuak produzitzen (esaterako, jaten eman, garbitu, entzun, sendatu, segurtasun psikologikoa garatu, eremu afektiboa landu...). Haatik, lan hauek guztiak egin gabe, ezinezkoa litzateke pertsonen bizitzak sostengatzea, ezta gizarte bera ere. Hortaz, **nahiz eta lan hauek ezkutatu, gizartearen oinarrian daude**.

Ondasun material eta immaterialak ekoizteko antolatze beharrezkoak diren ekoizpen-harremanen arabera dira gizartearen bizimoduak. Jendarte baten

balioak, egitura ideologiko eta juridikoak ekoizpen-harremanen arabera sortu dira eta hau betikotzeko diseinaturik daude. Ekoizpen harremanak noski ez direla soilik fabriketako langile-patroi harremanak, askoz harago goaz: aiton-amonak zaintzeko modua, kontsumitzeko ohiturak, harreman afektiboak garatzeko modua, espazio publikoaren erreprodukzioa, eta abar luze bat aipatu dezakegu ere. Bide honetan, klase jendarte batean, edota jendarte patriarkal batean egitura ekonomikoak logika zapaltzaile hauengatik daude zeharkaturik.

Materialismo historikoaren oinarritzko tesietako bat da hori: **ekoizpen moduak direla oinarria, eta hauetan ematen diren klase borrokek egiten dituztela gainontzeko egiturak (juridiko, politikoa, ideologiko, artistikoak...)**. Marxismo klasikoek atentzio osoa jarri bazuten lana-kapitala gatazkan zeuden ekoizpen harremanei, aipatu behar dugu bestelako gatazkak ematen direla ere kapitalismoan bertan baina merkantzien mundutik at (eta beraz "lan-kontsideratzen-den-mundutik" at). Baina kritika hori beti presente edukita jarrai dezakegu baieztatzen ekoizpena dela jendartearen oinarria eta honen gainean eraikitzen dela gainontzekoa: **egitura eta gainegitura, hain zuzen**. Beraz egitura kapitalista-patriarkala, eta gainegitura kapitalista-patriarkala.



Beraz, **bizitzaren jasagarritasuna modu kolektiboan nola kudeatzen den** da ekonomia politikoak aztertu behar duen objektua.

ZER DA MERKANTZIA?

Merkantzia, hortaz, **kapitalismoaren ekoizpen prozesuko azken produktuari esaten zaio**. Hau da, gizakien nahiak eta behar-izanak asetzen dituen objektua da, baina kapitalismoan merkantziaren izena hartzen du objektu hau ez delako zuzenean kontsumitua izateko ekoizten. Merkantzia kontsumitua izan aurretik

truke harreman batean agertzen da, salmenta/erosketa harremanean hain zuzen ere.

Merkantzia bat, "saldu edo erosi daitekeen" edozein objektu da eta kontzeptuak barnebiltzen du trukagarria dela beste objektu batengatik. Trukagarritasun horrek merkantzien arteko ekibalentzia aurruposatzen du. Hau modernitate kapitalistaren ezaugarri propio bat da, aurretik, erabileraren araberakoa zen eta trukea.

MERKANTZIAREN IZAERA BIKOITZA

Merkantzia baten "balio" kontzeptua oso korapilatsua da, izan ere **"erabilerako balioak" ez du zer ikusirik "aldaketarako balioekin"**. Merkantzia baten prezioa ez da objektuak zertarako balio duenaren arabera neurtzen. Janaria ezinbestekoa zaigu bizitzeko eta diamanteek ez dute ia inolako erabilerarik. Eta bata eta bestearen arteko balioa ez da konparagarria ere. **Balioaren izaera bikoitzaz hitz egiten da beraz, "erabilerako balioa" eta "aldaketarako balioa" hain zuzen.**

Kapitalaren lehen kapitulua merkantziaren analisi dialektikotik hasten da, erabilerako balioa eta aldaketa balioak berezitu. **Erabilerako balioak giza behar eta desira bat asetzeko duen balioari egiten dio erreferentzia, eta aldaketarako balioak, duen trukatu izateko gaitasuna.** Baina Marxentzat "aldaketa balioak" beste zerbaitek ezkututzen du. X merkantziaren A kantitatea, Y merkantziaren B kantitateagatik aldatzea baimentzen duena, esan bezala ez da bere erabilerako balioaren (merkantzia beraren ezaugarrien) arabera neurtzen. Bi hauen ekibalentzia, **biek "giza lan abstraktuaren" kantitate bera dutela da** (aurrerago ikusiko dugu). Marxentzat merkantzia baten aldaketa balioa sozialki beharrezkoa den **lan akumulazioan dago**, balioaren kantitatea duen **lan kopuruagatik (denboragatik) neurtuz.**

MERKANTZIEN TRUKE MODUAK

Merkantzien arteko truke modu ezberdinak ere aztertuta izango dira Kapitalean. Noizbehinka egiten zen truketik (izan ere, ikusi dugun bezala, berehalako kontsumora bideratuta ekoizten zen, eta soilik soberakinak truketzen ziren). **Kapitalismoan ordea, zuzenean merkaturako ekoizten da, hau da, trukea da arau nagusia.** Baina ez truke espontaneo, **ongi erregulatutako trukea** baizik.

Horretarako neurgailu bat behar da, **ekibalentzia papera beteko duen merkantzia hain zuzen.** Ekibalentzia-merkantzia hori hasieran urrea izan bazen ere, gero txanpon eta billeteetara pasako da, eta azkenik egungo kreditu eta kapital finantzarioetaraino (suposatzen da urrearen balioak direla, baina espekulazio finantzarioen eraginez badakigu askozaz kapital finantzario gehiago dagoela benetan dagoena baino).

Kapitalismoko trukea merkatuaren bidez egiteak, **diruaren bidez egitea suposatzen du beraz**. Horrela, M-D-M trukea egiten da (merkantzia dirua merkantzia). Dirua kapitalean transformatzean berriz D-M-D' trukea erabiltzen da, zeinetan $D' > D$ den. **D' > D gertatzeko, lehen fasean erositako merkantziak (D-M) balio berria sortzen duen merkantzia izan behar da, plusbalio bat sortzen duena: Merkantzia hori gizakion lan-indarra da.**

Marxek deskubritu zuen, beraz, kapitalaren sorrera langileok sortzen dugula, gure lan-indarrarekin, gure plusbalioarekin. Ekonomia feministak deskubritu zuen gainera, **plusbalio horretan dagoen zati bat emakumeon lan ezkutatuan oinarritzen dela**, plusbalio tasa horrela handituz. Baina ez gaitezen gehiegi aurreratu, jarraian lana eta lan harremanak zer diren ikusiko dugu.

ZER DA LANA?

Gizakien beharrak eta desirak asetzeko intentzioarekin, **pertsonok naturarengandik eratorritako objektuek eraldatu eta moldatzeko egiten dugun aktibitate arrazionala da**, gizakiaren gaitasun propioa.

Lana baina, ezin dugu soilik produkzioari edo ekoizpenari lotu. Lana, ekonomia eta ekoizpenaren kontzeptuak askotan anbiguoak suertatu daitezke, kapitalismoaren glikan merkantzien arabera pentsatzen baitugu soilik.

Gizarte guztietan elikagaiak eta objektuak sortzeko prozedurak egon dira, baita sexualitatea eta zaintza antolatzeak ere. Aldiz, soilik gizarte kapitalistan bata bestearikiko zatiketa gauzatu da: hau da, bien arteko harremana ezkutatu eta bata besteari ginetik kokatu da **eremu produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa zurruna** osatuz. Teoria marxistan ere, eremu produktiboari arreta gehiago eskaini zaio.

Aldiz, feminismoak seinlatu du historikoki gizonen eremu produktiboan burutu dutena, lana kontsideratu dela eta, aldiz, **emakumeok etxean burututakoa ez dela lana kontsideratu**. Beraz, ekonomia, lana zein ekoizpenaren definizioak ireki eta eremu erreproduktiboarekin duten erlazioan analizatu behar ditugu.

Gai hau aztertzeko Marxek lanaren izaera bikoitzaz hitz egiten zuen: lan abstraktua eta lan konkretuaren banaketa eta batasunaz, hain zuzen.

LAN ABSTRAKTUA ETA LAN KONKRETUAREN ARTEKO EZBERDINTASUNA

Lan konkretua ekoizpen modu guztietan, salbuespenik gabe ematen da, hau da **“erabilera balioaren” sortzaile den lana existitzen delako**. Aldiz, **lan abstraktua**, “aldaketa balioaren” sortzaile den heinean, **soilik merkantzien ekoizpena dagoen lekuan existitzen da**. Lanaren izaera bikoitza ekoizpen modu kapitalistari soilik dagokio, beraz.

Kapitalismo-patriarkarrak banaketa berezi bat egiten du, **emakumeoi, gure lan**

konkretua esfera publikotik kanporatzean, bere izaera abstraktua desagertzen. Honela, emakumeoi esleitu zaizkigun lan erreproduktibo guztiak, ez dute aldaketa baliorik eta beraz ikusezin egiten ditu jendarteak, emakumeon **berezko lan kontsideratuz** batetik, eta **merkantziak eskuratzeko aukeratik kanporatuz** bestetik, honela **esplotazio bikoitza** emanez. **Lana=enplegua eskemarekin apurtu behar dugu, bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetzen duten ekintza ororen errekonozimendua emateko, eta beraz, emakumeon lana izatetik, komunitate osoaren lan bezala aitortzeko.**

Marxek “abstraktua” deitzen dion lanak aldaketarako balioa ekoizten duelako, izan ere “lana” erabiltzen denez merkantzien ekibalentzia neurri bezala, ezaugarri ororengandik desagerrarazten da. Lana erabilera oroz abstraitzen da, hau da, behar hau edo besterekin duen loturaz desagertzen da, eta soilik kantitate bezala ageri zaigu: zenbat “A” merkantziek balio duten “B” merkantzia.

Kantitatea gastu psikiko eta fisikoaren tamainaz determinatua dago (lan indarraren gastua) eta lan orduetan neurtua dago.

“Un valor de uso, un bien, sólo encierra un valor por ser encarnación o materialización del trabajo humano abstracto. ¿Cómo se mide la magnitud de este valor? Por la cantidad de ‘substancia creadora de valor’, es decir, de trabajo, que encierra. Y, a su vez, la cantidad de trabajo que encierra se mide por el tiempo de su duración, y el tiempo de trabajo, tiene, finalmente, su unidad de medida en las distintas fracciones de tiempo: horas, días, etc.”

Aipatzen den neurgailuak, bistan da, enpresan egiten den lanaz mintzo dela soilik. Esan bezala, ez duela kontuan hartzen lan indarraren errekonozimendua inbertitzen diren lan ordu guztiak. Hau da: emakumeok zaintza lanetan sartu beharreko ordu guzti horiek.

LAN PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ELEMENTU NAGUSIAK

LANDUKO DEN OBJEKTUA: Naturatik eratorritako materiala da, zeineri, gizakiak lan prozesuan, bere indarra aplikatu eta eraldaketak eragiten dizkion. Oro har, eraldaketa prozesu baten (material izatetik produktu edo ondasun izatera) gizakiaren lan-indarraren efektua pairatzen duena.

LEHENGAIK: Giza lanaren efektua jasan duen, baina oraindik eraldaketa nagusi baterako erabiliko den materiala da. Hau da, eraldaketa eta bilakaera gehiago izango dituen eta aurretik eraldatu izan den objektua.

LANERAKO BITARTEKARIAK: Giza-lanerako beharrezkoak diren elementuak dira (lurra, eraikinak, komunikazio sareak, baliabide teknikoak...). Gizakiak objektuaren eraldaketarako zuzenean erabiltzeko edo bitartekari modura beharrezkoak dituen elementu guztiak osatzen dute multzo hau.

LAN INDARRA: Ekoizpen prozesuan eragiteko gizakiak duen gaitasun fisiko eta intelektuala.

LAN INDARRAREN ERREPRODUKZIOA: Lan prozesuan parte hartzen duen oinarri-oinarrizko elementua etxean burutzen diren lan guztiak dira, ekoizpen prozesuak eragiteko pertsonak dituzten gaitasun fisiko eta intelektual horiek bermatzen baititu. Lan indarra produzitzen duen eremua dugu eremu erreproduktiboa.

PERTSONAREN BIZITZA SOSTENGATZEKO BEHARREZKOAK DIREN LAN PROZESUAK + LAN INDARRA + LANDUKO DEN OBJETUA + LAN BITARTEKARIAK = PRODUKTUA

ZER DA PLUSBALIOA?

Ikusi dugun bezala, merkantzia bakoitzak duen balioa, **ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan-aldiaren arabera da**. Altzari baten kasuan, hau ekoizteko beharrezko ordu kopurua eta baita ere, merkantzia honetan dauden merkantzia bakoitzak duten lan orduak ere (iltzeak, egurrak, erremintak, eta abar...).

Beraz, lan indarraren erabilera orduak merkantziak bezala ordaintzen dira: hau sortzeko eta erreproduzitzeko beharrezko balioengatik. Hau da, langileak eta etorkizunerako bere ordezkioak, existitzeko (eta erreproduzitzeko) eta hurrengo egunean lanera itzultzeko beharrezko dituen ondasun material eta immaterialak eskuratzeko behar duen diruaren arabera neurtzen da lan indarraren balioa. Gutxi gora behera, egun batean behar dituen elikagai, argi-indar, etxebizitza, aisialdi beharrak asetzeko minimoak (ulertu behar da, minimo hori garaien arabera aldatu egingo dela, aisialdiari garrantzia handiagoa emango dioten herrien arabera, eta abar).

Beste modu batean esanda, **langileari ez zaio pagatzen ekoizten duenagatik, baizik eta, berak balio duenagatik**. Gainera langilearen lan indarraren balioa, sexu-genero, jatorri, adin, sektore eta espezializazioen arabera **aldatu egingo da, eskaria eta eskaintza legeengatik eta zapalkuntza espezifikoenagatik**.

Plusbalioa existitzen da, langileak bere bizitza ekoizteko eta erreproduzitzeko behar duen denbora baino gehiago lan egiten duelako. Beraz, lanaldia eta bere ekoizpenerako beharrezkoa ez den denbora guzti horretan, **langileak sortzen duen aberastasun guztia da plusbalioa**. Beraz, plusbalio tasa langilearen lanaldia (L) ken beharrezkoa-duen-lana (BL) bider lanaren denboraren espresio monetarioa (m). Plusbalioa (P) neurtzeko:

$$P = (m) \times (L - BL)$$

Lanaren denboraren espresio monetarioa (m) unitarioa bada, plusbalioa pluslanaren berdina izango da.

Adibidez, suposa dezagun sozialki beharrezkoa den lana langileak eta bere familiak

bizitzeko behar dituzten ondasunak sortzeko, 4 ordukoa dela, eta langilearen soldata bere lan indarraren balio bera duela ($m=1$).

Lan-aldiaren 8 ordukoa bada, orduan, 4 orduan langileak bere ordainsaria ekoiztuko du (beharrezko lana) eta beste lau orduetan, dohainik egingo du lan, ordainsaririk gabe (lan soberakina, edo pluslana)

$$P = 1 \times (8 - 4) = 4$$

Beraz, kapitalistak pluslan honek sorturiko balioa bereganatzen du musutruk. **Plusbalioa beraz, pluslanetik etorritako forma izateaz gain, akumulazio kapitalistaren oinarria da, baita esplotazioarena ere.**

Azkenik, plusbalio masa, lan-indar guztiaren lan soberakina izango da. Aurreko adibide berarekin, lanaldia 8 ordukoa bada eta 4 orduan langileak bere lan indarraren balioa erreproduzitzen badu, plusbalio tasa 4 ordukoa da. Kapitalistak 10 langile (T) kontratatuko balitu, plusbalio masa 40koa litzake:

$$P = m \times T \times (L - BL)$$
$$P = 1 \times 10 \times (8 - 4) = 40$$


Plusbalioa aldiz, konturatuko ginen bezala, hau baino handiago da oraindik. Izan ere, kapitalistek langileei sortu duten produktuaren balioaren zati bat baino ez diote ordainduko soldataren bitartez. Kapitalistek, langileek bizirauteko behar dutenaren arabera ordainduko dute. Baina **kapitalistek badakite langileek behar dutenaren zati handi bat etxeetan eskuratzen dutela, emakumeon lan ezkutuaren bitartez.** Plusbalioaren oinarrian beraz, kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko ezinbesteko harremana topatu dezakegu, **kapitalismoak patriarkatua erabiltzen baitu kapital gehiago metatzeko.**

Zer dira ekoizpen harremanak?

“Ekoizpen harreman sozialak” ez dira gizakion artean sortzen diren edozein harreman. **Harremanok pertsonen borondateetik eta nahietatik kanpo daude, izan ere, ekoizpen prozesuaren antolakuntzaren eta funtzionamenduaren arabera definituko dira.** Beraz, ekoizpenean norberak duen funtzioaren arabera izango dira: ekoizpen baliabideen jabeen eta ekoizleen artekoa. Gizakien arteko harreman orok ekoizpen eta erreproduzio moduekin du zerikusia.

Puntu hau oso garrantzitsua da, batez ere “langile eta nagusien arteko kolaborazio” oro desagerrarazten laguntzen digulako. Izan ere **ezin dira elkertasunezko harremanak izan, baldin eta ez diren ekoizpen bitartekariak aldatzen.**

Koadro nagusiago honen barruan ikus dezakegu, jabetza formak, klase sozialen egoerak eta distribuzio moduek eragina dutela, baita, noski, bizitzaren jasangarritasun estrategiak banatzeko moduak.



Ekoizpenerako bitartekarien jabeen eta ekoizpen prozesuan parte hartzen duten pertsonen arteko posesio, propietate, eskubide eta kontrol harremanak "ekoizpenaren harreman sozialak" terminoarekin identifikatzen ditu teoria marxistak.

Ekoizpen harremanek ekoizpen bitartekariak noren jabegoa diren adierazten dute eta honen ondorioz **lanaren emaitza** (ekoizpena eta honen ondorioak: irabaziak, boterea...) **noren eskutan bukatzen duen ere**. Hau da, nor den gizakien lanaren eta honen ekoizpenen jabe. Hortaz, jabegoari dagokionez azaleko bi aukera egon daitezke: ekoizpen bitartekarien jabe den klase zehatz eta gutxiengo bat egotea (burgesia kapitalismoan) edo ekoizpen bitartekariak, eta beraz, bai lana eta bai lanaren produktuak gizarte osoaren esku egotea.

Ekoizpen harremanak elkarlaguntzan eta elkarlanean oinarritzen diren giza-erlazioak izan daitezke, ideologia komunistak eta sozialistak proposatzen duten bezala, edo dominazioan eta esplotazioan oinarritutakoak izan daitezke: gizarte kapitalistak gauzatzen dituen harreman motak adibidez.

EKOIZPEN BITARTEKARIEN JABETZA PRIBATUA

Kapitalismoaren zutabe garrantzitsuena da jabetza pribatua, hau ukitzean kontrairaultzak datoz (Venezuela edo Chile kasu). Adibide oso argiak ditugu, duela gutxi utzi gintuen Azkuna alkate ultrak Kukutzaren eraisketaren testuinguruan azaldu zuen «El Ayuntamiento tiene que defender la propiedad privada». Hau da kapitalisten maxima goren.

Ordea, ezin dugu pentsatu jabetza pribatuaz ari garenean etxeen edo zapatilen jabetza pribatuaz ari garela. **Ekoizpen bitartekarien jabetza pribatuaz ari gara:** fabrika, errepide, tresneria, makina, komunikabideen... jabetza pribatu hain zuzen.

Ekoizpen bitartekariak, hau da, lan prozesuan parte hartzen duten elementu eta kondizio material guztiak, gutxi batzuen jabetza dira kapitalismoan. Hau da klaseen arteko esplotazioaren arrazoi nagusia, izan ere, ekoizpen bitartekariak dira edozein produkzioarako beharrezko elementuak, hauek gabe ezin daiteke produzitu. Bitartekari hauek gutxi batzuen eskutan daudenez langileak behartuta gaude gure lan indarra saltzera eta guk sortutako aberastasunak beste bati ematera. **Aurretik ikusi dugun plusbalioaren jabetza pribatuan dago esplotazio kapitalista patriarkarraren muina.**

Emakume langileok esplotazioa lehenagotik pairatzen dugu ere: **etxeetan, eremu pribatuan, inolako errekonozimendu ekonomiko zein sozialik gabe lan egitera behartuak baikaude.** Gizon langileen lan indarra bermatzen dugu, ondoren hauek lan indar hori saldu ahal izateko esplotazio kondizioetan. Emakumeok, zentzu honetan, "zapalkuntza bikoitza" pairatuko dugu, emakume eta langile bezala. Zapalkuntza bikoitz hau gainera, beste zapalkuntza batzuekin elkarlotu daiteke, izan jatorri etniko-kulturalagatik, sexu-aukerarengatik, etabar.

Lan-indarra saltzera derrigortuak egotea da langileon esplotazio arrazoi nagusia. Bestetik ekoizpen bitartekarien **jabeek lan egin ahal izateko ezartzen dituzten baldintzen (lan-baldintzak) pean lan egitea beste bat arrazoi garrantzitsu bat** da. Langilea bi faktore horietan dago jazarria. Horregatik langilea ia gizatiarra ez den egoera baten aurkitzen da lan prozesuan zehar, batetik berak ekoiztutako eta berari dagokion lan-indarraren gastua beste batzuen esku geratzen delako, eta bestetik ezagunak zaizkigun lan-baldintza prekario horietara sometitu behar delako.

Emakume langileok gizon langileen beharrianak bermatzen ditugu esplotazio egoera batean, gizonen lan indarra bermatzen dugu gero lan indar hau alienatua izateko. Gainera, baliteke emakume batzuk ere lantegietan lan egitea ere, hortaz, **etxeko eremuan esplotatuak zein lantegian esplotatuak izan daitezke** eta azken eremu honetan, gizona baino baldintza txarragoetan ere (jazarpen sexualak direla eta, soldata baxuagoak izatea, diskriminazio zuzena zein zeharkakoa...)

Lan prozesu orotan, baita kapitalistak ez diren sistemetan ere, ekoizpenerako bitartekarien jabeen eta ekoizpenean zuzenean parte hartzen duten langileen artean tentsio egoera eta hortaz gatazka ematen da. Egoera horri aurre egiteko modu bakarra ekoizpenen bitartekarien jabegoa ekoizpenean parte hartzen duten guztiena izatea da, bestela bitartekarien jabetza pribatua duenak ez dutenen egoera determinatzen du, beste pertsona horien bizitzan erabaki zuzenak hartzeko indarra eskuratuz.

Ezinbestekoa zaigu ere ekoizpen eremua eta eremu erreproduktiboaren arteko harremana ulertu eta horretaz jabe izatea, azken **eremu hau demokratizatuz**

(**lana banatuz eta kolektibizatuz**), bestela, nahiz eta ekoizpen bitartekarien jabetza sozializatu, eremu erreproduktiboan geratzen den zapalkuntza guztia birproduzituko dugu, emakumeen zapalkuntza betikotuz.

Hortaz:

- a) Langile eta kapitalisten esplotatu/esplotatzaile erlazioa, ekoizpenerako bitartekarien jabeak langileen lan-indarraren eta lanaren apropiazioaz bizi direnean gertatzen da.
- b) Elkarlan harremanak ekoizpenerako bitartekarien jabetza publiko eta kolektiboa dagoenean gauzatzen dira (jabetza sozialista, kooperatibo, komunista, komunala...). Horrela, produktuen ekoizpenean, bizitzaren erreproduktzioa eta ekoizpen bitartekariak demokratizatzea lortuko dugu, harreman ekonomikoek botere harreman antagonikorik ekarri ez ditzaten. Denon lana denon onurarako eman dadin.

KLASE SOZIALAK

Orain arte ikusi dugun bezala, jendarte gehienak klaseen arteko banaketan oinarritu dira. Ordea, klase kontzeptua askotan ez zaigu oso argi geratzen. Leninek egindako definizioetik abiatzen saiatuko gara:

Klase sozialak, pertsona talde handiak dira, sistema dinamiko eta interaktibo bat osatzen dutenak, egitura sozial bat sortuaz. Euren artean desberdintzen dira: a) ekoizpen sistema historiko bakoitzean betetzen duten paperagatik; b) ekoizpen bitartekariekin duten harremanagatik (legeetan ematen dena); c) lanaren antolakuntza sozialean betetzen duten paperagatik; eta ondorioz, d) jasotzen duten aberastasun sozialaren proportzioaren arabera.

Klaseen artean ematen diren harremanak esplotazioan oinarriturik daude. Honela, egitura soziala kontrako poloetan ageri da, zapaldu eta zapaltzaileak, klase antagonikoetan identifikatzen direlarik: burgesia eta langileria. Zapalkuntza gehiago ematen dira ere gizartean, sexu-genero, adin, jatorri, eta abarren arabera, eta denek dute zer ikusia lanaren antolaketan, aberastasunaren banaketan... **Klase sozialak beraz, ez dira homogeen edo estankoak.**

Klase antagoniko bakoitzaren barruan, sektore ezberdinak daude (klase frakzioak). Burgesiaren kasuan, desberdintasun hau, ekoizpeneko sektore ezberdinen arabera izan daiteke (nekazaritza, industria edo zerbitzuak), edo atzerriko kapitalaren menpekotasunaren arabera, edo barne merkatuen arabera, eta abar. Aldi berean, kapital zirkulazio kopuruaren arabera burgesia handia, ertaina edo txikiak hitz egin dezakegu.

Hala ere, langileriaren aurrean, burgesia frakzio ezberdinek interes komun bat duten arren (jabetza pribatuaren bitartez langile eta emakumeon plusbalioa lapurtzea), batzuetan frakzioen arabera interesen arabera jokatzen dute, euren

arteko kontraesan eta gatazkak sortuaz (nazio gatazkan, adibidez, burgesiaren zati batek nahiagoko du independentzia eskuratu, bertan merkatu propio bat sortzeko, eta beste batek ez, atzerriko merkatuetan dituen interesengatik).

Proletalgoaren kasuan, ekoizpen prozesuan betetzen duen paperagatik (soilik lan indarra du bizirauteko eta aberastasuna berak sortzen du), burgesia desagerrarazteko interesik handiena duen klase soziala litzake. Aldiz, proletarioak, langile klasearen zati handiago baten parte dira (soldatapeko langile guztiak, beren sektore ekonomikoaz independente).

Langile klasearen barruan, desberdintasun ugari ematen dira: formazio profesionalaren arabera (kualifikatu ez-kualifikatu), enpleguaren egonkortasunaren arabera (langile vs langabetuak, iraunkor vs ebentualak), adinaren arabera, sexu-generoen arabera, jatorriaren arabera... Honek guztiak, **langile klasearen barruan prekarizazio egoera oso-oso ezberdinak egotea ekarri du.** Honek, hainbat autore "prekariadoaz" hitz egitera eraman ditu, prekarietatean iraunkorki bizi den langile klaseaz. Guk ordea, nahiago du proletalgo-berriaz edo langileri-berriaz edo **prekarizaturiko-langileriaz** hitz egin.

90.hamarkadan gazteoi esplotazio modu espezifikoak ezarri zizkiguten (kontatu tenporalak, azpikontratak, ETT-ak...) eta **honek gazteriaz hitz egitean prekarietateaz hitz egitea eramaten gintuen.** Hala ere, egun, gazteon prekarietate baldintzak hedatu eta langileri eremu ezberdinetara iritsi dira, langile-behartsuez hitz egiteraino. **Gazteontzat dauden esplotazio eta prekarizazio tresnak bere horretan jarraitzen dute, eta areagotu egin dira ere, besteak beste emigrazio eta langabezi iraunkorrera kondenatuz.**

Prekarizaturiko langileriaz gain, emakumeon kasua berezia da, izan ere, **esplotazio bikoitza modu estrukturalen pairatzen dugu.** Hau da, ekoizpen eta erreprodukzio bitartekarien jabetzaren arabera ematen den lan banaketa sozialean, guk paper berezi bat dugu iraunkorki. **Liburuxka honen hasieran o.lan banaketa proposatu dugu, beste lan banaketa guztien oinarri izango den egiturazko lan banaketa alegia.** Honela, feudalismo, esklabismo eta kapitalismo patriarkarra emakumegizon langileen lan banaketa eta egiturazko esplotazioaz elikatzen da. Emakumeok bizi dugun esplotazio bikoitzik ezean, kapitalismoa ez litzateke bideragarri izango. Ezinbesteko oinarria dugu o.lan banaketaz hitz egitea, esplotazio egoera oro gaindituko duen jendarteaz pentsatzeko. **Sozialismoa feminista ez bada, ez baditu zaintza lanak era demokratiko eta komunitarioan planteatzen, ez da sozialismoa izango.**

Euskal Langile Herria, beraz bizirauteko bere lan indarra soilik duten gizon-emakume guztiok osatzen dugu: industriako langileetatik hasi, telepiztan lan egiten dugun gazteetaraino, irakasle eta musikarieretatik, etxekoandreetaraino. **Hor barruan gauden sektore guztion batasunak ekarriko du kapitalismo-patriarkar espainol eta frantsesen eraisketa. Euskal Herri Sozialista Feministaren eraikuntza.**

